# *Araba*
# *bertso histori ezberdin bat*

Izenburua:
Araba, bertso histori ezberdin bat

Egilea:
xxxxxxx

Azala eta bildumaren diseinua:
Esteban Montorio

Argitaratzea:
Arabera
Lehenengo edizioa
Gasteiz, 2006eko maiatza
Copyright
© Araberak
© xxxk

Diseinu grafikoa
Nabarreria argitalpen kudeaketa

Inprimaketa
RGM

ISBN
xxxxx

Lege gordailua
xxxxxxxxxxx

XXXXXXXX XXXXX

# *Araba*
# *bertso histori ezberdin bat*

a r a b e r a
kultur taldea

# AURKIBIDEA

Hitzaurreak ........ 9

Abel Enbeita ........ 15

Artean gazte eta berde ........ 31

Aiara aldeko bertso eskola ........ 31

Gasteizko bertso eskola ........ 39

Nire lehenengo bertso plaza (Txerren) ........ 41

Haiek urteak, haiek! (Txipi) ........ 42

Gazteak ginen (Serapio) ........ 43

Zapako gauak gogoan (Patxi Aizpurua) ........ 45

Joan horra, mesedez (Rikardo Glez. De Durana) ........ 46

Gogorapen batzuk (Karmele) ........ 48

Bertso eskolako oroitzapenak eta beste batzuk (Xabi Riko) ........ 48

Gu bai ausartak!!! (Amaia Otsoa) ........ 51

Beti eskamak kentzen (Martin Mimentza) ........ 52

Ume moko baten gogorapenak (Oier Enbeita) ........ 53

Taberna bertsolari baten historia ........ 54

Patxi Aizpurua ........ 54

Bertso sorta (Juan Mari Juaristi) ........ 58

Txusta Jauna ........ 60

Euskaldun berriok bertsotan ........ 66

Ia ezer ezetik mintzora, mintzotik bertsora (Xabi Rico) ........ 67

zein gogorra den gasteizko euskaldun berria izatea… (Ruben Sánchez Bakaikoa) .. 68

1984ko txapelketa ........................................ 75
1984ko hamasei aitzindari ausartak ........................................ 76
Rikardo Gonzalez de Durana Alzota (Arabako lehenengo bertsolari txapelketako partaidea) ........................................ 77
Arabako lehen bertsolari txapelketa (Abel Enbeita) ........................................ 79
Juan Isasi 'Txinotxu' txapelduna ........................................ 82
Sendotzen ........................................ 87
Oihane, Asier eta Zigor ........................................ 90
Txustatik belodromora (BEC-era) (Andoni Egaña) ........................................ 100
punto eta koma (Igor Elortza eta Joan Maia) ........................................ 102
Kartzelako gaia (Iosu Ormaetxea) ........................................ 114
Arabako bertsolaritzari bultzada; eskolen garantiza ........................................ 118
Irati lotina ........................................ 118
Juan Mari Juaristi ........................................ 122
Bertsolari gazteen topaketak ........................................ 125
nire semea driss (eta etorkizunean zer?) (Ruben Sánchez Bakaikoa) ........................................ 128
Arabako "bertso aurrekariak" ........................................ 131
Esker onak ........................................ 135
Beste argazki batzuk ........................................ 137

# HITZAURREAK

Gure historia laburra bezain bitxiaren zertzeladak laburbiltzen dituen libururako "Hitzaurrea" idaztea proposatu zidaten eta, nola ez, atsegin handiz eta ohorez onartu dut mandatua.

Zenbat aldiz nire buruari «Abel eseri eta idatzi…» ez ote nion esango. Idatzi gure Errota zaharrean ustekabean izandako bisita eta zekarten mezua: «Bertso Eskola bat jarri nahi diagu abian Gasteizen…». Itzela! Ondoren "Lantzale"-n dantza zalapartarekin batera gure lehen bertso saiakerak sortzen zuen kontraste izugarria… Gero "Txusta" tabernako urte hunkigarriak… Amona Luisaren irri xumea eta bertsoak entzuteko gogoa… Bego errainaren tortilla bereziak eta afari gozoak… eta noizbehinkako erretolika eta purrustaldiak, emakume bizia baitzen Bego… eta gu bihurri xamarrak ordea… "Txusta"-ren purujana eta jendearekiko abegi zuzena… Zenbait ospetsuren bisita edota egonaldiak… Bertso saio aspergarriak baina gogo eta ilusioz gainezkatuak… Urte ahaztezinak…! Nola ez, Arabako Lehen Bertsolari Txapelketa edo Laudioko Euskal Tokian izandako Bertso Eskola luze eta mamitsuak… Aretako "Tunel" tabernako afari didaktikoak, Bizkarren txiste eta ateraldi bikainez gozatuak… Eta Amurrioko euskaldun berri talde jatorrak astero-astero eta hutsik egin gabe bertsolaritzarekiko jartzen zuen adeitasun eredugarria… Baita Errioxako irakasleak elkartuz, Biasterin burututako ikastaro bereziak… Eta Neguan elurrak, izotzak, euriak edota maizegi izaten nituen "armatutako" kontrol beldurgarriek bidaiatzeko jartzen zizkidaten oztopoak…

Alferraren arrazoi merkeak: «Egingo diat… bazegok denpora…». Txukun hasi eta bukatu gabe utzi ditugun milaka bertso bezalaxe, burmuinetan gordeta izan dut ibilbide eder honen historia… Nork esan behar zidan ordea, 82an «altruista-utopiko» haiek irekitako zidorrak liburu baterako haina eman behar zuenik…?

Gaur, ordea, liburua esku artean hartzeaz batera halako zirrara batek besarkatu nau. Zigorrek eta Karmelek, Ane alaba zoragarriari esker, "Aitona" izendatu nauten honetan, bigarrenez "Aitonatu" naizela iruditu zait. Izan ere, "seme-alabak" bailiran estimatzen ditudanen fruitua da liburu hau. Ireki eta gelditu gabe, di-da batean, irakurri dudan liburua. Zenbat oroitzapen eta sentsazio nahasketa bat-batean… elkarrizketak bizi-bizi… Abentu-

ra honetan bidailagun izandakoen iritzi eta pasarteak… hauen bertsoak… Guztia egoki tolestu eta ordenatuta, gosez irakurtzeko tenorean.

Badu meriturik Euskara ikastetik irakastera jauzia emanez bertsolari txukun eta "bakarrizketa edo monologoetan" maisu izateaz gain, hain idazkera xamur eta errazean liburu hau eskuratu digun Ruben Sánchez langile fin eta porrokatuak. Bejondaikela Ruben!

Hitzaurreak laburra behar du izan, liburua baita garrantzitsua. Bertsozale, euskaltzale edo azken finean irakurle horri, aholku sinple bat: «Irakurri eta gozatu».

*Abel Enbeita*

Oroitzapen asko datozkit burura gure bertso eskolaren sorrera begien aurrean ikustean liburu honetan. Esan dezaket ni berarekin batera nagusitu naizela; ume nintzela murgildu nintzen bere jaiotzan eta berarekin batera eman ditut pausoak gaur arte.

Jende asko agertzen da liburu honetan, baina ziur eskertu beharreko beste asko ere kanpoan geratu direla, ez baita erreza denetaz oroitzea edo denei kabida ematea; beraz, eskerrik beroena jende guzti horri. Arabako lurralde zabalean gure bertsolariek abesteko aukera eman diozuen orori, herriko festetan bertsolariekin oroitu zaretenoi, guregana laguntzeko prest hurbildu zaretenoi edo txapelketa garaian hurbildu zaren publiko fin eta leialari.

Liburu hau ez da bakarrik bertso eskola baten historia, Arabaren euskalduntze prozesuaren erakusgarri bat ere bada, euskara eta euskaldunik gabe ezinezkoa izango baitzen gure abentura aurrera ateratzea; beraz, eskerrak eman nahi nizkioke ere bai euskara irakasten ibili eta dabilen irakasle orori eta ikasten ari den ikasle finari.

Ez nituzke ahaztu nahi gure lehen urrats haietan ezinbesteko laguntza eman zigutenak: Lantzale elkartea, Txusta…

Denoi mila esker, baita liburu hau irakurtzen ari zaren horri, denon artean egindako lanaren fruitua da liburu hau eta espero dut nik adina gozatuko duzuela.

*Zigor Enbeita*

*Arabako Bertsozale Elkarteko Lehendakaria.*

## Jostunaren hitzaurrea

Ez dakit zein hormatan izango zen: Kutxiko tabernaren batean, edo “Txusta”-n akaso, ez! nik uste fakultatean izango zela. Bo, kontua da, nonbaiten ikusi nuela kartela. Gasteizko bertso-eskolan izena emateko kartela. Urteroko jaia zen ikasturte berriari ekiteko, beste bertso-eskolaren batekin bertso-afari desafioa edo bertso triki poteoren bat…

Nik 22 urte nituen, Euskal Filologiako bigarren urtean nenbilen eta euskara eta euskal kultur kontuetarako esponja bat nintzen, dena nuen gogo eta ilusioa, eta bertsolaritza, euskaldunberri askorentzat bezala, misterio erakargarri bat zen, eta amets bat: bertsoa ulertzea eta gozatzea, bertso-munduan murgiltzea, noizbait afariren batean edo poteoan bertso koxkorren bat bota ahal izatea…

Fakultateko lagun batzuei esan nien eta laster osatu genuen taldetxo bat: Gasteizko 15 bat urteko 3 neskato, beste mutil bat, Joseba, baita ere Gasteizkoa, baina pixka bat zaharragoa, gu fakultateroak eta geroxeago etorri zen Albaro (eskerrak! bera izan baitzen zaharrena, handik aurrera). Tokatu zitzaigun maisua: Iriondo! (Asier).

Ostegunetan izaten zen bertso-eskola hori, iluntzeko zortzietan, nik arratsaldez Arrasateko Fagorren egiten nuen lan, baina ostegunetan lanetik ahalik eta lasterren ateratzen nintzen, kotxea hartu eta ziztuan abiatzen nintzen bertso-eskolako minutu bat ez galtzeko.

3 neskek laster utzi zuten, eta Josebak gero. Agian gure arteko adin aldea… Fakultaterook jarraitu genuen bertso-eskolan, jo eta su, eta eskolaren ondoren bigarren (edo lehenengo) eskola: bertso-poteoa, hau da, ordu erdi kopla xixtrin bat botatzeko, topikoak bata bestearen atzetik, eta eskuan mingain-askatzailea… Mundial pasatzen genuen. Han genbiltzan Eunate, Leire, Egoitz, Reki, Mikel, Albaro… eta gure super maisua: Iriondo, guretzako graziosoena, salauena eta onena! (Baina inoiz ez genuen lortzen poteoan 12etatik aurrera geratzea, Mari Errauskinen moduan alde egiten zigun beti…).

Orduan eta horrela ezagutu nuen nik Gasteizko bertso-mundua. Giro alaia bezain txoroa: barreak, poteoa, afariak eta batez ere: bertsoa, bertsoa eta bertsoa. Ligatzea bera ere pasatzen zen bigarren mailara, gu regionaleko bertsolariak izanda gainera.

Ez ginen gu, ordea, horrela hasi ziren lehenengoak, bai zera! Gu baino lehenago egon zen zoroagorik, egon zen ausartagorik, egon zen utopikoagorik. Izan ere, guretzako bertsoa utopia eder bat baldin bazen 1998. urtearen bukaeran, pentsa ezazue zer izan ziren 80. hamarkadaren hasieran Gasteizen eta Aiara aldean, bertso munduan murgiltzen hasi ziren haiek, asko eta asko euskaldunberriak, Araban eta Gasteizen %2 euskaldun zen garai hartan, «agur» esan eta jendea bueltatzen zen garai hartan, EHn bertsoa bera berezko izatetik bertso eskolarako jauzia ematen hasi zen garai hartan…

Haiek ere ostegunetan Gasteizen, eta ostiraletan Aretan eta Amurrion biltzen ziren, hutsik egin gabe, eta bertso-eskola ofizialaren ostean bertso poteoa izaten zen (kaleko eskola), Zapa eta alde zahar osoko tabernetatik, edo Laudio eta Amurrion barrena. Baina garai horietan ez zegoen “kanpoko” hainbeste euskaldun Gasteizen (Arabara oraindik ez da ia batere iritsi), ikastolak hasiberri zeuden, gau eskolak zulotan…

Liburu honetan aurkituko dituzuen pertsonak zoragarriak dira. Zer edo zer baldin badugu pozteko eta harrotzeko gurean beraiek eta beren moduko euskaltzale eta utopikoak dira.

Bertsolari bat, bakarra, zegoen Araban urte haietan: Abel Enbeita. Bizkaitik erbesteratua (diktadurako "kontuak") eta Abornikano herrira bizitzera etorri zena. Beregana jo zuten Rikardok, Iosuk, Patxik, Xabik, Jonek....

Eta pixkana-pixkana ez bertsolari, ez bertsozale ezta bertsorik ere ez zegoen herrialde honetan, iraganeko erreferentziarik gabe, giro askorik gabe, eta gure herrian erabat arrotz izanda, hasi zen bertsoa sustraitzen, ernatzen, loratzen...

Horrelako burutazio ederra izan zenutelako orduan, gara gaur garena.[1]

Egun Araban segitzen dugu Euskal Herriko zazpigarren alaba izaten kontu askotan, baita bertso munduan ere. Ez gara lehiatzen, ez aritzen, plaza handietan. Baina esaera zaharrak dioen bezala: atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu. Pentsa dezagun 23 urte pasa direnean, non eta nola geunden eta non eta nola gauden. Asko falta zaigu oraindik, bai, baina emandako urratsak asko izan dira, eta alferrik ez inondik inora.

Bertsolari bat zegoen orain dela 23 urte, gaur egun Arabako Txapelketan 20 bat bertsolari lehiatzen da. Bertsozale militanteak ginen lehen, gaur egun bertsozaleak. Bertsoa ez zegoen, ez zen, egun bada, badago, baditu plazak Araba osoan, askotan hemengo bertsolariek betetzen dituztenak, eta hemengo bertsozaleek gozatzen dituztenak. Susto eder eta atsegina hartuko lukete Uztapide eta Basarrik burua altxatuko balute, beren garaian Aramaion baino ez zuten kantatzen, hori zen garai hartan Araban bertsotan egiten zen plaza bakarra.

Nonbaiten frogatu bada euskaldun berri "onik" egon daitekeela, baita bertsolari izateraino ere, nonbaiten frogatu bada, maila kolektiboan ere, erabat erdalduna zena apurka-apurka euskaldundu daitekeela eta artifizial izatetik natural izatera pasa, hemen frogatu duzue/dugu (beste lurralde batzuetan ere bai, jakina).

Zoroak eta utopikoak izan zinetelako, ekin zeniotelako, jarraitu zenutelako, (auzo)lanean eta giro ederrean. Mila esker. Bestela, ez ni, ez beste asko, akaso, ez ginen hasiko bertsoa gozatzen.

Eta zuri irakurle, gure 7. bertso mundutxokoa ez bazara, hemengo izen asko arrotz egingo zaizkizu, ezezagun. Merezi du, ordea, gure istorioz betetako historia txiki honetan murgiltzea.

Nik jostun lana besterik ez dut egingo, oihal puxketa ezin ederragoekin soineko zatarrik egiten zail da. Hori da nire zortea. Haria hartu eta puxketak josi, protagonistek beraiek, ordea, kontatuko dizute, nola egun batean, oraindik gazte eta berde zeudela,

1. Iñigo Izagirrerekin aurreko baten hizketan, Araban urterik urte euskaldun berri-berriek-eta izandako "burutazio"-ari harrikada deitu zion: batere bertso-tradizio hurbilik gabeko herrialde honetan, euskaraz hitz egiten hasi, bertso eskolan sartu... Ados nago berarekin, harrizko herri honetan, etxea, kirola eta borroka askoren oinarri izan da harria, eta utopiarena ere izan beharko da, ezta? Utopia guztien atzetik ez al dago harrikada eder bat?

Amurizak UEUn ematen zuen ikastaro baterako izena eman zuten (lehenago "Zu ere bertsolari" hartu eta goitik behera irakurrita –han zegoena kantatzen ez baitzekiten oraindik–), eta gero nola joan ziren Abornikanora Abelekin hitz egitera, eta bi urte eskas beranduago nola antolatu zuten Arabako lehenengo bertsolari txapelketa, eta Txustako mokaduak eta bertso koxkorrak, eta Tuneleko ostiraleroko afariak, eta nola zebiltzan taberna batetik bestera meleak osatzen, eta nola hasi ziren gaztetxoagoak, eta Egaña Gasteiza etorri zenean, eta Puntu ta Koma, eta San Prudentzio, eta «probatu nahi al duzu eskoba kirtena?»… Probatu nahi? Animatzen?

*Ruben Sánchez Bakaikoa*

Irakurleentzako oharra: liburu honetan erabilitako grafiaz bi hitz besterik ez. Saiatu naiz hiztunaren hizkera errespetatzen, pentsatzen dudalako liburua horrela aberastuko dela, horrek idazkera "zuzenaren" arauak bortxatzea ekarri du zenbaitetan. Berez nireak ziren testuetan, berriz, nik ez dut erabiltzen hizki larririk eta horrela agertzen dira hemen ere.

# ABEL ENBEITA

Bo irakurle, Abelen atal hau ez da beste atal bat gehiago. Nahiko bertsozalea baldin bazara, Enbeitatarren familia ezaguna izango duzu: Urretxindorra, Balentin, Abel, Jon, Oihane, Zihara, Moises, Zigor, Oier, Onintza… Tradizio handiko familia, baina ez hori bakarrik, ez bertsolari/bertsozale huts soilik; bertsoa bai baina, euskara eta euskal kultura eta herriarekin konpromisoa, lana, aitzindaritza erakutsi eta erakusten duen familia da… Bertso eskolen aitzindari izan zen "Gerriko eskola"-ren sortzaileak, garai latzetan kantuan zailduak, eta hedabide gutxiago geneukan lehengo garaietan, beste lagun batzuk bezala, bertsolari/herri-ahots…

Eta Abel? Bada liburu honek eskaini didan beste bizipen zoragarri bat, Abeli elkarrizketa egin eta 2 ordu horietan berari entzundako guztia… (bide batez: oso buru ona gauzak gogoratzeko). Abel bere Muxikako auzoa den Areatza utzi eta Arabara etorri zen, beste lagun batzuekin, Abornikano herrira, Urkabustaiz udalerrian, 1969an. Eta etorri ziren barne gogo batek bultzatuta, baserria, euskara eta euskal kulturarekin, 3 osagai horiekin, beren ekarpena egitera. Berak "kibbutz" hitza aipatu zuen, hortik kontuak atera, nik entzunda neukan probintzia "euskaldunagoetatik" Araba euskalduntzera-eta etorritako "misiolariena", baina Abel eta bere lagunen asmoak haratago zihoazen oraindik!

Lizentzia bat onartu beharko didazu, irakurle, baina kasu honetan Arabako mugak zeharkatuko ditugu, eta ez gara mugatuko Abelen arabar bizitzara. Izan ere, pena nuen behin Abelekin hasita, Arabako bizitza-zatira mugatzea, ezta? Behin bere berri hartuko eta bere bizitza "osoa"-ren berri ematea hobe izango da.

Abel "Ormetxe" baserrian jaio zen 1942an. Bere esanean txiki-txikitan bertso giro handirik ez zuen ezagutu baserrian, bertsotan eguberritik eguberrira egiten zen, bazkalosteren batean edo herriko jaietan… Ez asko.

6 urte zeuzkala anai zaharrak 12 urte bete eta fraide joan zen, horrek eragin zion bere 4 neba-arreba txikiak zaindu beharra, eta gainera eskolara! Eskolan gorriak pasatzen zituzten: erdara jakin ez eta beste leku batzuetan eraztunaren bidez zen zigorra, eurenean botoia zen (euskaraz egiten zuen haurrari botoia ematen zioten, berak beste haurren bat euskaraz harrapatu behar zuen eta botoia pasa, eta egunaren bukaeran botoiaren jabe

zenari… makila!). Zer edo zer ikasi zuen behintzat: zer irakurtzen ari zen ulertu gabe irakurtzen.

9 urterekin eskola utzi behar izan zuen eta behorrarekin Gernikara jaisten zen egunero goizeko 6etan esnea banatzera. Gero etxeko lanak egin behar izaten zituen, eta bukatzeko eskola "partikularretara", non euskara, behintzat, ez zuten beste eskolan beste galarazten. Horrelako bizimodua nahiko gogorra izaki, eta baserriko lanik ez egitearren, bera ere asko bezala fraide joan zen. Arantzazura.



Kartzelak eta apaiztegiak, biak probatuta, kartzela nahiago du Abelek. Nik orain arte Arantzazugatik entzundako guztia "gordeleku jator" esamoldean laburbildu zitekeen, baina Abelekin solastu eta gero "jator" hori ia erori zait esamoldetik. Gordeleku hartan, egurra izugarri ematen zuten, garai hartan kokatu behar da egur hura, baina, eman ematen zuten. Hainbeste non Abel 3 aldiz saiatu baitzen handik ihes egiten: atzamarretan jo, bazkaldu gabe utzi, euskara galarazi… Irakasle ospetsuak izan zituen han: aita Villasante, Gandiaga… Baina haurrentzat behintzat gogorrak ziren oso. Frustrazio txiki-handi bat ere geratu zaio: han noten arabera ematen zituzten aukerak, bat adibidez pianoa ikastea zen, berak nahi zuena, baina erdara ondo ez zekien eta ikasten gogoz ahalegindu zen arren, gainditzea lortu bai, baina bere notek mekanografia ikasteko baino ez zioten balio. Gustukoa izan ez, eta horrelakoetan maiz gertatzen den legez, ez pianoa, eta ez mekanografia, ez zuen ikasi. 3 urte pasatu zituen han eta Forura joan zen, etxetik gertuago.

Foruan 2 urte eman zituen. Bigarren gordeleku hartatik ere ihes egiten saiatu zen, eta etxea gertu izanda, han bai, han lortu zuen. Zoritxarrez, lehengusu apaiz bat eta eskolako zuzendaria bere bila baserrira joan eta berriro eraman zuten. Bi urteak joan eta azkenik Zarautza joan zen.

Han hasieratik lan gogor samarrak egokitu zitzaizkion: garbitasuna egin, esnagailu-mutil izan (atez ate joan apaizak esnatzen)… Noizbait ordea, kuerdaz zebilen erlojuak kuerda nahiko eduki ez eta lozorroan jarraitu zuen. Zarautzen ere gaztiguak ez ziren samurrak eta lo geratzeagatik ezarri ziotena apaiz guztiei oinetan muin ematea izan zen. Makurtu, bati muin eman, zutitu, makurtu, muin eman, zutitu, makurtu, muin eman… Horrela ilara osoa. Fraidetako batek, muin emateko makurtu zelarik, oinarekin muturrean jo eta odol pixka bat eragin zion, Abelek hortzak estutu, negar malkoei eutsi eta ezer esan gabe aurrera jarraitu zuen. Handik egun gutxira, berriz, silizioen txanda zen: zigorra hartu eta nork bere bizkarra berotzea. Abelek eta lagun batek beste kide bat hartu zuten ("comesantos" goitizena zuela esanda antzemango duzue apaiz eta santuen lagun handia zela), eta silizioak berari eman zizkioten. Zizurkilgoak ez omen zuen ezer esan, baina hala ere harrapatu zituzten. Orduan, ostera ere hamar egunera, oinetan muin eman beharra apaiz guztiei. Mendekuaren ordua zen: muturrean jo zuen fraidearen txanda iritsi zenean, Abel makurtu zen otzan-otzan, eta oina ahoaren parean eduki zuenean hortzaka egin zion. Apaizari malkoak zerizkion. Baina ez zuen ezer esan.

Handik lasterrera, behin betiko, apaiztegiak utzi zituen. Arantzazun bere garaian zeuden 50 mutikoetatik, bakarren bat baizik ez da geratzen "abituak" jantzita. Soldaduskan eta apaiztegian, bietan, falta dira bokazioak. Abel ez da asko harritzen.



Utzi bai, utzi zituen apaiztegiak, urtebete iraun zion ordea "tonterak", ez han, ez hemen ez zegoela, ezin "kanpoko" bizitzara ohitu eta barruan egon ez, irten berritan preso gehien edo guztiei gertatzen zaien bezala. Baina, tira, apurka-apurka berriro esnatu zen. Bertso munduan ere orduan ibiltzen hasi zen, hasieran gai jartzen Jon anaia gaztea eta Ireneo Ajuriarekin. Egun batean, ordea, Oromiñon, behetik batek bota zion: «Hi'pe botako dok bertsua, ala?». Jon anaiak ere zirikatu zuen eta hura izan zen goitik behera bota zuen lehenengoa, ordura arte kateatuta bezala zebilen, eta hura bota, traba kendu eta handik aurrera isildu ez, eta bertso denak goitik behera bukatu! Egun horretan bertan Karmelo Zedrun Athletic-eko atezaina zenaren baserrian bazkaldu zuten eta bertsoak bota eta bota aritu zen.



Handik bi urtera 3. gelditu zen eskualdeko txapelketan. Soldaduskara joan behar izan zuen. Hurrengo eskualdeko txapelketan Lopategirekin berdinduta buruz burukoa egin eta galdu egin zuen. Bizkaiko lehen finala 22 urterekin jokatu zuen. Garai hartan guztira 300 bat plaza egin zuen eta denak apuntatuta dauzka. Kantukide ohikoenak, berriz, hauexek izan zituen: Iturri, Sardui, Lopategi, Muniategi, Amuriza, Jon anaia (hura ere fraide joan zen).







Besteak beste, Loiola irratiko txapelketa bitan jokatu zuen eta Ernandorenak bikoteka eta herrialdeka antolatutako txapelketan Gipuzkoatik Lazkano eta Gorrotxategi, Iparraldetik Mattin eta Xanpun, Nafarroatik Arozamena eta Madariaga eta Bizkaitik Azpillaga eta Abel bera aritu ziren. Gipuzkoarrek irabazi zuten eta Abelek bertsorik onenaren saria eraman zuen.



69an galarazi egin zioten Bizkaian bertsotan egitea. 67an Izurtzako urteroko saiora joan zen Amuriza eta Muniategirekin, aguazilak agertu ziren eta oholtzatik jaistea agindu zieten; orduan udal agintari eta herritarren artean sortu zen iskanbila. Handik egun gutxira berriro Gernikan kantatu behar zuen eta 25.000 pezetako isuna ezarri zioten (garai hartako 25.000 pzta.) egun horretan boteagatik. Abel harritu zen ez zutelako izugarrizkorik kantatu, eta bazeukan susmoa salaketa nondik zetorren. Gernikako artzapezarenera joan zen, esan zion seguru zegoela bera izan zena, eta besteak ezetz, bera ez zela izan, eta Abelek orduan «beno ba zuk badakizu nor izan den!». Jarraitu zuen salatariaren bila eta orduan abiatu zen bertsotan egin zuten tokiko, Lurgorriko, auzapezarenera. Galdera batzuk bota eta gero, beste irteerarik ez zuela ikusita, «neu izan naz!» onartu egin zien eta Abelek esan zion 25.000 pezetako isuna jarri ziotela, auzapezak orduan eskaini zion zati bat ordaintzea berak, baina Abelek erantzun zion pezeta bat ere ez ziola hartuko eta kartzelara joango zela. Basaurira joatea egokitu zitzaion, egin berria zen Basauriko kartzelara, bere anaiak estreinatu zuen eta han "Mina del Aleman"-en eta Urbian harrapatutako jende mordo batekin batu zen, denak isunengatik barrura eramanak. Bere akorduan, oso jende ona zegoen barruan. Debekua, ordea, Franko hil bitartekoa izan zen, bakarrik elizetan edo Bizkaitik kanpo kantatu ahal zuela.



Garai horretako bertsolari gehien-gehienekin kantatu zuen Abelek. Uztapidek seme bat bezala hartzen zuen, Basarrigatik dio ez zela hainbeste beren girokoa (herri-baserri girokoa), Xalbador, Mattin, Xanpun (asko estimatzen zituen), Agirre, Lazkano, Lizaso, Arozamena, Lasarte… eta Bizkaikoak: bere aita Balentin, Lopategi, Sardui, Iturri, Ireneo Ajuria, Muniategi, Arregi, Mugartegi, Ibarzabal, Iriondo, Mañukorta, Jon anaia, Pujana, Kastrejana (oso bertsolari xelebrea)…



Bizkaieraz kantatu izan zuen beti, Arabara etorri zen arte behintzat. Herriko bertsolaria, plazaz plazakoa eta ez txapelketakoa izan da Abel, edozein txinparta txiki nahikoa zitzaion bertso-sua pizteko, edozein aitzakia txiki. Bermeora joaten zirela, 9etan bukatzen zen dantzaldia eta Andeko tabernan sartzen ziren, hango nagusia oso bertsozalea zelako.

Bertsoa eskatzen zien eta orduan afari-truk baietz hasiko zirela, eta holaxe! Txapelketetan, berriz, azpiko oholak ihes egiten zion oinetatik, postu onak eskuratu zituen arren, asko sufritzen zuen txapelketak tokatzen zirenean. Esaterako, bere Bizkaiko lehen finalean (22 urte zituela) izugarrizko hotza zegoen, bera neska-lagunarekin zegoen, Abelina hotzak akatzen eta Abel izerdi patsetan. Han esan zion bere buruari berriz ez zela txapelketetan aterako.



Berak maite zuen giroa bere auzotik datorkio. Areatzan, beti izugarrizko tradizioa egon da kanturako. Ondoko auzoa, Uharte, apustua eta demarako zalea zen bezala, Areatzako tabernan beti bertsolari bat egongo zen, Uharten bat ere ez, igandero-igandero kantatzen zen. Eta jaiak baziren gehiago! Jai izugarriak antolatzen ziren orduan, zahagi-mutila ibiltzen zen denei ardoa debalde ematen. Berari ere tokatzen zitzaion holako lanetan jardutea eta urte baten hola zebilela, lana pixka batean utzi eta lagun batekin dantzara joan zen. Hango neska polit batekin hasi zen dantzan, eta a ze kasualitatea:

–Zelan dozu izena? –Abelek galdetu.

–Abelina!

–Joño Abelina! Eta ni Abel! Beno ba gaurtik aurrera aldatu izena, gaurtik aurrera "Abelena"!

Horrela ezagutu zuten elkar eta elkarrekin hasteko modua ere Tasio-n sartzeko modukoa, beren bi lagun ere bikote eginak ziren eta "elkarrekin hasi ziren" eta orduan Abelek eta Abelinak jakin zutenean, Abelek esan zion: «eta guk ze in bigu ba? Beno ba gu'pe bardin!».

Bo, eta gatozen Abelen arabar bizitzara. Abel gazte bat daukagu, beraz, bertsotan plazaz plaza nahikotxo ibiltzen zena, emaztearekin hasi berritan, bestalde Bizkaian kantatzeko debekua jaso berria, eta beste kontu bat aipatu ez duguna, baina funtsezkoa dena etorrera hori ulertu ahal izateko: bizi proiektua. Arabara etorri baino bi urte lehenago 66-67. urteetan gau eskolak ematen hasi zen, batez ere alfabetatzen (Bizkaian alfabetatzen ibili zen gehienbat eta Araban euskalduntzen).

Baina nahikoa ez zen hori. Euskara, euskal kultura eta euskal mundua (kasu honetan baserrira lotua) batu egin nahi zituzten. Dirua gutxi, ordea, eta lurra garesti. Batez ere Nafarroan eta Araban bilatzen ibili ziren, eta azkenean fundazio baten errota zahar bat zena utzi zieten (errota txarto zegoen oso, eta eurek egokitu zuten bizitzeko moduan jartzeko) Abornikano herrian, Urkabustaiz udalerrian. Azkenean, 69an 5 lagun etorri ziren Abelen anaia Kepa barne. Egitasmoa euskara eta baserria batzea zen, gerora dantzak ere, guraso batzuek eskatuta, etorri baziren ere… Euskal "kibbutz"-a. Pentsatu eta ekin.

70ean Abelina eta biak ezkondu ziren. 5 lagunetatik 3 joan ziren beranduago, bizitzaren gorabeherak, eta gure zorionerako Abel eta anaia behintzat geratu ziren. 72an berriz atxilotu zuten Zabala-ren bahiketa zela eta. Abelek gogoan du garai hartan edozer gertatzen zela, guardia zibilek beren baserrira jotzen zutela beti, ihes eginda zeuden lagunen bila, miaketak egitera… Bere kartzelaldietan azkena 80an, 6 hilabete eman zuen barruan.

Zorionez ez ziren halako bisitak izan bere baserrian eduki zituen guztiak. 82. urtean Gasteiztik heldutako koadrila bat joan zitzaion. Eta bisita horrekin eta Araia aldean bertso eskolan hasiak zirenekin, ziur aski, eurak asko ohartu gabe, hasi zen egiten Arabako bertso histori txiki hau.

Abelek ez zuen bi aldiz pentsatu behar izan bere baiezkoa botatzeko: galde-eskea bertso eskola bat egitea zen eta Abelen buruan eta bihotzean ideia bera zegoelako, Araban bertso eskola bat egitea.

"Lantzale" dantza-taldeko lokaletan lehenik eta "Txusta" tabernan gero Gasteizko bertso eskolan irakasle hasi zen, eta Areta auzoan "Tunel" tabernan ere urtebete jardun zen Aiara aldekoentzat eskola ematen. Izugarrizko taldea zela dio Abelek, oso urte onak pasa zituela. Ilusioak eta gogoa hainbesterainokoak ziren non hasi eta berehala, 84. urtean, Arabako lehen Bertsolari Txapelketa bururatu, prestatu, antolatu eta burutu egin zuten. Abeli beti damutu izan zaio bere ikasle "berde" haiek txapelketa egitera bultzatu izana. 16 bertsolarik hartu zuten parte, tartean txapelketan atera zen lehen emakumea: Amaia Otsoa.

Finalerdiak ondo samar joan ziren, baina finala handiegi egin zitzaien denei. Gaur egun Florida zinemak dauden orubean, lehen Florida antzokia zegoen eta bertan egin zuten. Izugarrizko jendetza bildu zen. Hura marka! Arabako lehen bertsolari txapelketa! Eta gogorra egin zitzaien denei. Bertsolariei, entzuleei, lagunei eta, jakina, Abeli.

Publizitate lan handia egin zen, gainera, Gasteiz irratiaren 50. urteurrena ere bazen, eta beraiek lagundu zuten txapelketa. Horrez gain, txapelketa horrekin batera hasi zen Abelen beste borroketako bat: instituzioak.

Abelek, txapelketa hura antolatzeko, garai hartan Jaurlaritzak Araban zeukan kultur ordezkariarengana jo zuen (Abelen oroimenean: buruhandi erdaldun bat) eta berak ez zegoela dirurik, beranduegi zela eta aurrekontuak itxita zeudela, baina Abelek erantzun zion bera ere bere herriko alkatea zela eta beti gordetzen dela diru pixka bat ezustekoetarako, baina bestea hala ere temati ezetz. Martin Ugalderengana jo zuen orduan Abelek (garai hartan Martin ugalde Jaurlaritzan kultur sailburua baitzen) eta Martin Ugaldek eskea entzun zuenean: «Nola ez ba? Arabako lehenengo Bertsolari Txapelketa, nola ez ba lagundu?». 100.000 pezeta eman zuen. Buruhandia burumakur.

Handik aurrera urtero negoziatu behar izaten zituen diru-laguntzak, baina Arabako Foru Aldundian, eta ez bakarrik bertso-eskolarako, beste saltsa askotarako ere bai, banan-banan ezagutu zituen hango kultur arduradunak. Kultur ordezkarietan bat euskalduna, beste bat euskaldundua eta azkena erdalduna tokatu ziren.

Txapelketakoa pixka bat eten, baina eskolek jarraitu zuten, Aiarakoak eta Gasteizkoak. Biak antzekoak. Abelen esanetan, Arabakoa ondo pasatzeko topagunea izan da, euskal giroan murgiltzeko, euskara hobetzeko ere... Eta Arabako euskaltzaletasunean aitzindari eta motorra ere izan dira bertso eskolak, gero Geu-n, Bagare-n, Aek-n ibili ziren asko bertso eskolatik paseak ziren.

"Nagusiekin" bakarrik ez, umeekin ere hasi zen eskolarik eskola ibiltzen, bertso eskolak ematen. Ozta-ozta moldatzen ziren euskaraz askotan, baina Abelekin egin beharko, denei esaten baitzien berak erdaraz ez zekiela eta bakarrik euskaraz ulertzen zuela. Umeek sinesten zuten. Behin Lapuebla de Labarca-n umeak galdetzen hasi ziren, ea hango tabernan "Curro"-n nola moldatzen zen bazkaltzeko, zeren han euskaraz ez zekiten. Abelek esan zien lehenengoan eskuekin keinuka eskatzeko moldatu zela eta handik aurrera beti berdina bazkaltzen zuela! Lapueblan bertan beste behin, bere ume ikasle horietako baten aitak, ikastolako zuzendariak, negar egin zion Abeli elkarrekin hitz egiten ari zirela, bere umea beraiengana joan eta Abeli galdetu baitzion: «aitak ez daki euskaraz ta erdaraz egingo diot?». «Bai, aitari bai, baina niri ez eee!».

Arabako lehen eskolarteko txapelketan bertso idatzietan 2.000 umek hartu zuten parte, irakasleak prestatzeko 3 eguneko ikastaroa egin zuten eta Amuriza, Mendizabal eta Etxeberria etorri ziren. Azkenik finala egin zuten Gasteizko apaiztegi zaharrean 100 umerekin, txapelak, gerrikoak eta guztientzako luntxa ere egin zuten!







Arabako eskolaz eskolako bertso ibilbideak, ordea, 86an PSOE Jaurlaritzan sartu zenean eta "konpetentzia" instituzioz aldatu zenean eten ziren. Lakuako pertsonaleko arduradunek kontratua ez zioten berritu, 3 hilabetez langabezian egon zen eta azkenean berriz sartu zuten baina bidaia-laguntzak moztuta. Orain dela urte gutxira arte.

Abelen bizitzan ardatz bat euskara, euskal kultura, bertsoa, herria izan da, baina bada beste ardatz bat hori guztia egiteko indarra, ilusioa eta gogoa ematen ziona: bere emaztea. Gorabeherak izaten dira bizitzan, eta argi dago Abelenean beherako handienetakoa bere emaztearen ezbeharra izan zela. Bikote egin zirenetik beti batera ibiltzen ziren; akaso, askotan Nafarroa Oinez batera joaten baziren adibidez, eta Abel oso saltseroa izanik, batekin eta bestearekin geldituko zen eta orduan onena izango zen bakoitza bere kasa ibiltzea, baina beti batera, hala ere. Ezbeharraren arratsaldera arte: arratsalde hartan 6etan musu eman elkarri eta 6ak eta hogeian emaztea hilda zegoela abisu eman zioten.

Gaur da eguna Abel oraindik bakarrik ateratzen moldatzen ez dena, bere lekua topatu ezinik, bere esanean "pegote" moduan sentitzen dela. Ohituta zegoen beti batera ateratzen eta ezin du hura gainditu, koadrila jatorra eta lagun onak izanagatik.

Aiara zein Gasteizko bertso eskoletakoek beti aipatu didate Abelina, emakume aparta zela, sukaldari mundiala, eta pertsona ona. Eta hunkituta gogoratzen dituzte bere hiletak, basoan, txalaparta, lagun eta lehengusuen bertsoak...

Elkarrizketa bukatzen ari ginela, orainaz eta geroaz galdetu diot, Araban eta Euskal Herrian, euskara, bertsoa... Araban Abelek ikusten du lan handia egin dela baina handiagoa falta dela egiteko. Geldituz gero, gainera, oso azkar doala atzera. Itxaropenez ikusten du, baina itxaropen "moderatuaz". Urkabustaizen, esaterako, %40 da euskalduna egun, bera joan zenean %2 besterik ez zen, baina euskaldun gehienek ez dute euskaraz egiten beren artean, ez Urkabustaizen ez eta Euskal Herri gehienean.

Hasieran uste zuten 2 egunetan egingo zutela dena, baina ez. Instituzioak ez dira benetan bustitzen, Franco hil zen, baina bizirik dago eta bere itzala luzea da, estatutu eskas bat, Nafarroan... Pauso txiki bat emateko zenbat denbora?

Eta bertsoa? Bada, bertsoa osasuntsu ikusten du, politto. Araban gazteek lekukoa hartu dutela ikusten du eta itxaropentsu dago; jartzen digun erronka, berriz, ez da ahuntzaren gauerdiko eztula: Euskal Herriko Txapelketan finalerdietara iristea (2009an beharko du!!!), elitekoen artean bertsolari arabar bat sartzea... Berak dio etorriko dela hori ere, lan asko eta ondo egiten ari dela. Arabako bertsozale elkarteak ateratzen duen berripapera, kasu, goitik behera irakurtzen du.

Eta bertsoa Euskal Herrian oso jasoa ikusten du, berdin osasuntsu, izugarrizko mailarekin, sekula egon ez den mailarekin. Hala ere, itzalen bat jartzekotan, bada baten bat: bertsolaria izatea normalizatuago dago gaur egun, jada ez da garai batean zena, garai batean bertsolaria herrian fenomeno sozial bat zen, orain ez da hain misteriotsua, hain gauza handia, bere hitza ez da hain "jainkoarena" nolabait esateko.

Garaiak aldatzen doaz, eta bertsoa beraiekin.

# ARTEAN GAZTE ETA BERDE…

81. urtean gaude. Udaberriaren bukaeran. Laster uda dator eta udan UEU: euskaraz den unibertsitate bakarra eta Euskal Herriko euskaldun guztientzat. Aurten ikastaroetan bada bat, Joni, Iosuri eta Serapiori, gustatu zaiena: bertsolaritza. Baina, klaro, hara joango direnek asko jakingo dute eta guk batere ez! Bo, Xabier Amurizak, Euskal Herriko txapelduna eta ikastaroa emango duena, atera du liburu bat, nola da? A bai! “Zu ere bertsolari”. Liburua erosi, hartu, goitik behera irakurri eta horrela pixka bat jakinda joango gara. Puffa! Zenbat jende!, entzun al diezu horiei, horiek gutxienez Azpeitikoak izango dira! Eta bizkaitar horiek? Zelan egiten daben berba! Gu nongoak garen? Arabakoak! Amurriokoak, hori Baranbiokoa, Amurrioko auzo bat da. Hori uste dut Laudiokoa dela, goazen galdetzera! Ni? Txaber! Bai Laudiotarra eta zuek Amurriokoak, ezta? Begira, begira hor dator Amuriza!

Ikustekoa omen zen Amurizaren harridura aurpegia gazte haiekin topatu zenean: «nongoak zaretela?»… «eta bertsotan egin nahi duzue?»… «ederto!». Ikastaroarekin beren zaletasun berri bat, gutizia bat, deskubritu zuten: bertsoa. Handik aurrera beren bizitzako parte bilakatu zena. Eta ez zuten nahikoa izan ikastaroarekin. Jarraitu nahi zuten.

## AIARA ALDEKO BERTSO ESKOLA

Aitortu behar dut, lehenik eta behin, ezjakina nintzela Aiarako bertso eskolaz. Izen batzuk banekizkien, edo hobeto esanda, entzunda nituen, eta zuetako baten bat gehiago edo gutxiago ezagutu. Oraindik ere denak ez zaituztet ezagutu tamalez. Bestalde, argi zegoen liburuan sartu behar zintuztegula, baina ez nekien oso ondo nondik jo. Halakoetan herri honetan badago formula bat, magikoa ez dena, baina askotan funtzionatzen duena: zuekin afaritxo bat egitea pentsatu nuen eta zita jarri.

Elkarrekin afaldu eta gero, ordea, ohartu naiz, ez bakarrik sartu, leku gehiago ere eskaini beharko genizuekeela, berriz ere gasteizentrismoak jota geratuko garela.

Tira, ondorengoa afari horren aproposko transkripzioa da, benetakora hurbiltzeko ahaleginarekin eginda. Eskerrik asko bertaratu zineten Bizkar, Emiliano, Iosu, Iñaki eta “Izarra” (Bego), Karla, Juanjo, Jon eta Lander (eskerrik asko argazkilari!). Eta bertso eskolakoak izan, baina ezin zinetenak etorri: Txaber, Jesus Angel, Serapio, Juan Mari, Peli, Ion Pagoaga… zita bat pendiente daukagu!!!

Ni, askotan bezala, berandu abiatua nintzen Gasteiztik; beraz, gogoz kontra, autopistatik joan behar izan nuen. Areta auzoa, Tunel taberna; bi datu horiek nituen: “Tunel” Aiarakoen bertso eskolako “egoitza” 10 urtez ostiralero; Areta, berriz, Tunel taberna dagoen Laudioko auzoa. Autopistako irteeretan Areta ezagun egiten zitzaidan; hala ere, Landerri deitu nion, badaezpada ere, nondik joan ondo galdetu eta argazkiak egitera joango zen eskatzeko.

Behar zen irteeratik irten nintzen bai, baina gero bakarrik “Bilbo” jartzen zuen, gutxienez “Bilbo/Areta” jarri beharko zuen lekuan, beraz gaizki abiatu nintzen, eta ni larri-larri berandu iritsiko nintzela, berandu iritsiko nintzela, bueno, Landerri berriz galdetu eta gero, Aretara heldu, eta azkenean bertan bueltatxo batzuk eman eta gero “Tunel”-era iritsi!!! (15 minutu berandu).

Bertan zain, Juanjo, Karla, Lander eta Bizkar. Berehala hasi ginen solasean, lehenik eta behin Tunel-i buruz, ostiraleroko bertso-eskola afari horiei buruz… 10 urtez biltzen ibili zirela, urte batzuetan ia ez zegoela ostiralik huts egiten zutenik, ez ostiral santu, ez gabonetako, ez estatuko jai. Eta nola egoten ziren ostiral gaua noiz helduko, tunelera afaltzera joateko, zenbat sesio politiko, eztabaida soziologiko eta emakume aipamen… Bizkarrek lehen bertsoa botatzen zuen arte.

Juanjo gaztetxoagoa zen besteen aldean, bertso eskolako lehen urte haietan 21 urte zeuzkan, eta bere esanean lehenengo ostiral haietan ez zuen berehala asmatuko bere adineko gazte batek 10 urtez bere ostiral gau gehien-gehienak “izorratuko” zituenik, gazte-parranda egin barik, bertso eskolara joateko “zaharrago” horiekin. Baina diruz larri bazebilen ere, beti gordetzen zituen 500 pzta. (prezioak aldatu direla eee!) bertso eskolara joateko: «Preferentzie! Lehentasune esaten dok, ez? Ba hori, lehentasun kontue dok!» barrez-barrez.

Pixkaka badatoz gainontzekoak, Iosu, Ion Gerrero, Iñaki, Bego eta Emiliano: «ze, barrure sartuko gara-ero?». Sartu eta berehala lehenengo oroitzapen bizia: «Hara! Oi be eoten zan oain dala 10 urte!». Jangela barruan gizon txiki bat dago laguntzen duena. Zerbitzariak ere buruarekin agurtu gaitu, lehengo jabe berak dira, eta niri lehenengo inpresioa geratu zait, batetik gustura daudela aspaldiko bezero zaharrak ikustean, baina bestetik beldur pixka bat ere badirela, gaur zer ordutan aterako garen jatetxetik…



Ez gara eseri zegokigun mahaian, izan ere, 10 urte haietan beren mahaia jantoki bukaeran zen, ondo sartuta, baina beno, tira. Zerbitzariak karta ekarri digu, eta prezioak ikusten hastean, oroitzapenak eta errealitatearen arteko beste kolpe bat, pentsa ezazue aurreko aldia pezetaren garaian zela, eta txanpona ez da izan aldatu den gauza bakarra, jakia eta poltsikoaren arteko trukea ere pixkat-pixkat aldatu dela… Urte askotan 500 pzta. zen haiek markatutako prezioa, bai haiek, zeren eta lehenago merkeagoa baitzen, eta urte baten esan zuten, «bueno este año te vamos a pagar 500 pts.!»: afari osoa. Eta ostiralero menu ber-bera.

Gauza jakina da bertsolari zein bertsozale asko pertsona "graziosoak" direla/garela (edo graziosiloak), zerbitzaria izan da hori nozitzen lehena. Gizona etorri da eta 10 bertsozale/bertsolari batera eskatzen… Entsalada: bakoitzak berea edo 3 fuente? (lehen eztabaidatxoa), «ardaua ta ogixe ipinite egon behar ziren ja!», «Bizkarri atera postrie kalluek, e Bizkar!», «kar, kar, kar!», «ez, ez, gisaue!», «kar, kar, kar!», «lehen beti eskatzen genuen xerra patatekin, eskalope!, orain ez dago hori?» (Kartan ezin topatuz)…

Ni kezkatzen hasita: «bo, zuek afaldu lasai ta ni joango naiz galderak egiten ta apuntatzen», «grabadoria ez dok ekarri?», «eske 10 laguneko afari batean jasotzeko grabadorarik ez dago, mahaian erdian utzita ez luke asko grabatuko, ez zen ondo entzungo, eta bestela elkarri pasatzea grabadora… ez da oso naturala! Zuek lasai, nik jasoko dut nola edo hala!», «baina egixe ipini ee!», «bai, bai, lasai! Ni txintxua naiz-ta». «Horrek ondo kontauko dizu dena, e Bizkar?» (Nire aldamenean jarrita Bizkar baitzegoen).

Ni pixka bat urduri artean apunterik hartu gabe, eta afalkideak nahiko aztoratuta, normala bazen kontuan izanda hainbeste urtetan zehar bildutako lagunek urte dezente zeramatela elkartu gabe. Baina galdetzen ere hasi behar nuen eta… ea ba!

**–Aizue! Lehen pixka bat jardun gara horretaz, baina zeintzuk joan zineten UEU-ra Amurizaren ikastarora?**

–Ba Jon (Gerrero), Serapio (López) eta ni (Iosu Aldama), gero han Txaberrekin elkartu ginen.

**–Ta zergatik bertsolaritza ikastaroa, zergatik bertsoa?**

–Gu euskaldun berriak ginen eta orduan ba… euskara hobeto ikasteagatik eta euskal giroan sartzeko… Amurizak aterata zeukan “Zu ere bertsolari” eta “Hitzaren kirol nazionala”, beno “Zu ere bertsolari”-ren fotokopia batzuk geneuzkan, eta nik zinta batzuk banituen… Baina pentsa zer gertatu zitzaigun, zintak entzunda eta dena irakurrita joan ginen hara, beldur ginelako beste guztiek asko jakingo zutela eta guk oso gutxi… Eta orduan Amurizaren metodoa badakizu, ezta? Lehenengo kopla eta handik pixkanaka aurrera, eta guk: «zer? Kopla?» Kopla bat zer zen ez genekien, ezta doinurik inoiz entzun ere! 9 puntuko neurria eta doinua bagenekien eta kopla bat zer zen ez! A ze lotsa!

**–Eta Abelekin nola jarri zineten harremanetan?**

–Bo, ikastarotik etorri eta lehenengo urtean, bakarrik hasi ginen: autodidaktak! kar, kar; gero hurrengoan ja Abelekin hasi ginen urtebetez eta gero Trino Azkoitiarekin, eta gero berriz bakarrik, 10 urtez!!!. Nik ez dot uste Euskal Herrian beste halako bertso eskolarik egon danik! Hasikeratik autodidaktak eta gero Abelekin eta Trinorekin egon eta gero be, holan! Ostiralero ee!.





**–Eta 84ko Txapelketa? Gasteizko bertso eskolako batzuekin hitz egin dut horretaz eta zuek nola bizi izan zenuten? Nortzuk joan zineten?**

–Beno joan, Juan Mari Fernández, Bizkar, Ion Gerrero, Iosu Aldama, Juanjo, Serapio eta Txaber.

–Ba oso gogorra izan zen!

–Pasada bat!

–Inkreiblie!

–Garai horretan gogoratzen naiz Ion Gerrero eta ni (Iosu) aizkolarien txapelketa zela, eta guk hor kantatu behar genuela-eta, han Amurrioko frontoiko komunean, walkman batekin, Pello Joxeperen doinua ikasten gero kantatu ahal izateko… Kar, kar, kar!

**–Zer nolakoa zen edo da Gasteizko bertso eskolakoekin zenuten/duzuen harremana? (Gasteizko baten batek afari hau ere ez genuela egingo uste zuen…)**

–Ba! Ondo! Inoz Baranbion elkartu ginen ta Abelen etxean be bai… Baina benetako eskola hau zan!!! Haiena ba…! Euskal Herrian Algortakoa, Santutxukoa eta gu aurrenak!

–Pikea izaten zen nork norenera joan behar zuen, 84ko txapelketa izan zenean Aramaion izan zen kanporaketa bat, bigarren finalerdia, eta egun horretan mundial pasatu genuen… kantuan!

–Abelen etxean be sekulako afarixak eiten genduzan Abelinak eginak. Hori andria hori! Ai ene! Ona zan e! 87an hil zan istripuz, Bizkaiko Txapelketako final egunian izan ziran hiletak eta izugarrie… 3 txalaparta joten basuen… hunkigarrie, Pablitoren bertsuak. Nik ez dot halakorik bizi izen inoz.

(denak geratu gara pixka baten isilik)

**–Bo, eta zuen bertso eskolara itzuliz, zer giro izaten zen, zer kontu?**

–Beno, hemen askotan berriketan hasi eta bertsorik bota gabe!

–Ez, ez, bertsotan egiten genun beti, kantuan asko egiten gendun!

–Bai, baina eztabaidatu ere asko, eztabaida sutsuak, politika… Eta euskararenak ere bai! Ea kateak a itsatsia zuen ala ez. Gogoratzen zarete? Eta ea asko plurala edo singularra zen eta…

–Bizkarrek lehenengo bertsoa botatzen zuen arte!

–Hori dok! Askotan euskaldun berriek euskaldun zaharrei galderak egiten zizkieten: bizkaierazko berbak, nola esaten zioten ez dakit zeri, esapideak…

–Eta txisteak! Bizkarrek eta Serapiok txiste asko kontatzen zituzten, kontau baten bat Bizkar!

–E naz akordetan…

–Benga!

–Zuk bakizu zer dan txapela?

–Ez dakit ba…

–Fundamentala! (funda-mentala eeeiinnn?)

–Ta txakur euskaldunarena zelan zan?

–A bai! Ikastolan bi mutiko zeuden da batak besteai: «gure etxeko txakurra euskaldune da! pastor aleman-vasco!». Ta bestiak: «zelan pastor aleman-vasco?» «Bai! Alemana ta euskaldune da!», «Alemana ta euskaldune?», «Baiiii, euskaraz dakixelako!», «euskaraz jakin?», «Baina zuek etxian euskaraz iten dozue?», «Bai! Aitak txakurrai esaten dotsa: etorri hona!», «Ta txakurrak zer iten dau?», «Zer iten dauen? Ba… entzun!».

–Eta Arratiko baserritarra Bilbora jaitsi ta han diskoteka moduko batera, elegantie, jun da, eta sarrerien morroi bet, ta «aizu! Holan jantzite ezin za sartu eee!» «Ze ba?» «ba hemen etiketaz jantzite sartu bidalako, korbatagaz ta»… «Orduen lagun batek laga dotsa korbatie ta bueltau da ta atekoai esan dotsa: Ze oin bai sartu neike?» Ta atekoak goitik behera beittu dau ta han ikusten dotsa abarketak oinetan ta «gizona! korbatia bai ekarri dozu, baina zelan sartuko za holan abarketakaz?» Ta baserritarrak: «ze? lokatza da barruen ala?».

Barre batzuk bota ditugu, eta berriz ekin “elkarrizketari”.

**–Eta bertso eskola ostean, ze?, parranda?**

–Bai! Pub-etara joaten ginen, kriston musika altua eta gu bertsotan! Eta Patxirenera, eta Kultur etxera… Neurrian baino dexente edaten zen! Azkenean andreak ere etortzen hasi ziren, aspertuta zeuden gure ostiralekin! (Iñakik Begori begira).

–Baina gauza asko ere egiten genituen! Txapelketak antolatzen genituen lehenengo mailako bertsolariak eta bigarrenekoak, Ion Gerrero ibili zen antolatzen…

–Nik etxea txoritxoz beteta daukat (Emilianok)! Saria hori izaten zen eta!

–Eta gazteen txapelketak! Hor aritzen ziren Peli, Ortuzar, Aritza, Jurgi…

–Institutoan bertso eskolak ematen genituen eta gero parkean bertso-eskola egoten zen, gaztetxea dagoen lekuaren ondoan (Laudion), hori Tunelekoa baino lehenago ematen genuen.

–Ta beste bat ere, zinta baten grabau genduzan 60 baino gehixao doinu edo bertso eskolako gazteentzat eta instituto eta eskoletan banatzeko, nik oindino eukiko dot etxien zinta hura. Eta orduen ez egoan oraingo gauzaik… "Bertsotan" liburue eta… gauza gutxi gehixao, ez oraingo moduen eee…

**–Eta bertsotan plazetan ibili zineten?**

–Bueno batez ere Juanjo, Bizkar eta Serapio dexentetan.





–Nik Balentin Enbeita zenagaz kantau neban Santi Mamiñeko leizean, han jatexien, ta beste batzuekaz, Amuriza ta Peña ta, garai horretan saio asko izaten genduzan urtian, asko!

**–Eta gero 10 urte pasa zirenean bat-batean dena eten?**

–Bai, San Prudentzion be ja ez gendun kantetan, Juan Angel, Juanjo eta nik (Bizkar) ez gendun parte hartu-ta, beno ja gutxiago elkartzen ginen, ta txarto pasetan neban, ta beno beste kontu batzuk be bai… Apurka-apurka utzi…

–Eta nola ikusten dituzue Aiara aldeko oraingo gazteak? (Landerri begiratu diot zeharka, bera da eta haietako bat).

–Bo, ondo, baina kostako zaie gure giroa hartzea, eee!

–Zuek lagundu beharko diguzue (Landerrek), orain ostiralero biltzeko jendea ez dago prest, nahiko kostatzen zaigu elkartzea bertso eskola egiteko, baina ostiralero afaltzea… Desafioa egin beharko dugu!!! (eta jatetxetik ateratzean erdi lotu dute zita Juanjok eta Landerrek).

Eta horrela jarraitu dugu berriketan, ni aspertu naiz gauzak apuntatzen, eta esan diet, «bo! Nik ja ez dut besterik idatziko-ta esan nahi duzuena, libre!». Giro ederra dago, hamaika kontu zahar berritu! Algarak, irribarreak… Baina nire aldamenean Bizkar dagoela aprobetxatuta… «Hi, Bizkar! Hik kantau beharko duk orduan lehenengo bertsua, ee?»… Aurpegia pixkat larritu zaio, baina pentsatzen hasi da pixka baten eta handik lasterrera hasi da kantuan, abisurik eman gabe, ozen, lege zaharrean. Hirugarren berbarako edo, beste

denak isildu dira, bertso-saioa hasi da, eta denok kantatu dugu (inspiratzen gintuen eta ia lokarrarazi genuen Izarrak (Begok) izan ezik).

Segi ondo denok, bejondeizuela!



## GASTEIZKO BERTSO ESKOLA

Aiara aldekoak nahiko autodidaktak izan ziren hasieratik, Abelekin ere biltzen ibili ziren urtebete, baina batez ere beraiek "bakarrik" ibili ziren hor, Gasteizkoekin harremanak bazituzten ere. Serapio izango zen lokarria, bi bertso eskoletako kidea baitzen. Baina Aiara aldekoei abiatzen lehenengoak izan zirela aitortu behar zaien bezala, Gasteizkoei Abel Enbeita erakartzearen meritua aitortu beharko zaie.

Esan behar da bi bertso eskolen artean pike sanoa bazela. "Egin" zaharretan bertso erronka batzuen berri irakurri dut nik "Zuzendariari gutunak" atalean. Erronkak eta desafioak egiteko lekuan ere ezin ados jarri ibiltzen zirenez, Enbeitatarren Abornikanoko etxea izaten zen "guda-zelaia", eta Abelinak jarriko zituen bertsolarien armak kargatzeko diren jakiak eta ardoa mahaian.

Baina joan gaitezen harira. Hemen Gasteizko bertso eskolan ibili zirenek elkarri idatzitako gutuntxoak dauzkazue txandan-txandan eta gaia "Gasteizko bertso eskola" delarik, librean jarduteko. Azkenengotik hasita, Oierrengandik, nik bakarrik idatziko dizuet nola behin Gasteizko bizardun batzuk Abornikanora joan ziren Abel Enbeitaren bila. Gero bertso eskola hasi zuten "Lantzale" dantza taldeko lokaletan, Txusta-ra mugitu ziren, antolatzen hasi... eta kimu horretatik hazi zen gaur egungo Arabako Bertsozale Elkartea.

Protagonistei hitza eman baino lehen, liburuaren leku hau baliatu nahi dut nik Martin Mimentzari goraintziak bidaltzeko. Ezustean harrapatu gintian denok hire martxak, ni behintzat liburua eskura ezin emanda geratu ninduan, eta hik nirekin txintxo, azkar eta aldarte onez bete huen eskatu niana. Beste ezertaz ez haut ezagutu, eta ezagutu ginen apurrean oso jatorra. Gehiago ezagutzen hautenek berriz izugarri estimatzen hautela ohartu nauk. Zorrak zor dituk eta: eskerrik asko eta liburuaren ale bat hirea duk.

ARABAKO BERTSOZALEOK BIL GAITEZEN

Denok dakigu nola dagoen euskara eta euskal kultura Gasteizen ( edo Araban, hobe nahi bada ). Euskal giroa piztu eta azkartzeko taldeak sortu behar ditugu, euskal kulturaren arlo desberdinei ekingo dieten taldeak.

Euskal Kulturaren arlo garrantzitsuenetariko bat dugu bertsogintza, edo horrela uste dugu guk behintzat. Eta hemen kokatzen dugu gure asmoa: bertsogintzaz, bertsolaritzaz arituko den taldea sortzea.

Ez dugu gehiegizko pretentsiorik. Gure helburuak xumeak dira, baina garbiak. Ondo pasatzea nahi dugu ( eta bertsoak asko laguntzen du horretarako) Bertsoak, doinuak...ikastea, guk geureak egitea, etab. nahi dugu, baina joku bat bezala hartuz ( filosofia honekin ari dira Santutxuko eta beste lekutako eskolak; gauza berdina diosku Amuritzak bere "Bertsolaritza" liburuan ).

Gusti honek ondorio ederrak ekar liezazkioke Gasteizko euskal giroari. Hortik abia daiteske ere "Bertsolaritza"-z ikastaro baten egitea, bertso saioak, etab.

Beraz, gauza hauetaz mintzatzeko eta eztabaidatzeko bertsozale gustien lehen bilera batetara dei zabal bat egiten dugu. Bilera hori LANTZALEn ( Cantón Sta. María - 4 ) izango da, datorren ostiralean (Ekainak, 4) arratseko 8.30etan.

EUSKARA KALERA

Gasteiz, 1.982-VI-2

## Nire lehenengo bertso plaza (Txerren)

Nork esango zidan 23 urte geroago garai haiek gogoratu beharko nituenik!

Gure bertsozale ibilera Lantzalen hasi zen Abelen gidaritzapean. Hasiera-hasieratik garbi izan genuen janaria-edaria-bertsoa hirukotea banaezina zela. Ura edan eta bertsotan? Oximorona (contradictio in terminis).

Ostegun gau hartan Lantzaletik atera ginenean, beti bezala, alde zaharreko tabernetara joan ginen baxoerdi batzuk edatera (ardoz bete, bertsoz hustu). Kopletan hasi, gero zortziko txikira, gero handira, hurrena bederatzikoa…

Halako batean hara non botatzen duen batek:

–Hi, txapelketa egingo juau?

–Beno, guk bajaukau etxien patxarana.

Aldi hartan Axpe, Txipi eta hirurok Frantzia kaleko pisu batean bizi ginen (Jesus Obrero aurrean). Joan ginen, bada, etxera koadrilatxoa, tartean izango zirelarik Patxi, Rikardo, Xabier Rico, Martin, Amaia Otsoa, Karmele…

Sukaldeko mahaiaren inguruan eseri ginen eta baita taldeak antolatu ere: gai jartzailea, epaileak…

Hasi ginen bada, eta poliki-poliki bertso saioa aurrera zihoan, baita erlojuaren ordu txikiak ere.

Kartzelako lana ere iritsi zen eta han sartu gintuzten komunean denok batera. Txanda iritsi zitzaidanean, zuzen abiatu nintzen sukaldera. Berehala bota zidan Amaiak puntua bertsoa osatzeko:

«Ez al zara erori
komunetik behera?»

Sekula bota izan dudan bertsorik mundialenaz erantzutera nindoalarik, ahots ozen bat entzun genuen:

«OS CALLÁIS O LLAMO A LA POLICÍA».

Nik uste, gure auzokoak ez zuela gehiegi ulertzen bertsoaz. Hik zer uste duk, Txipi?

## Haiek urteak, haiek! (Txipi)

Bai, Txerren, ados hirekin: auzo hark bertsoaz ulertu balu, ziur guregana hurbilduko zela. Baina gizajoak (ez hain gizajoa, poliziari deitzeko prest zegoan eta!) gure bertsoen kalitateaz ez jabetzeaz gain, ziurrenik hurrengo egunean, ostiralarekin, lanera joan beharko zian, besteok bezala. Baina gu gazte zoroak, eta hura zahar erretxina.

Ni ere gai-jartzaile lanetan ibili nintzela diat gogoan, bertsorik osatzeko gaitasunik ez izaki. Etxe bakoitzean parrandero eta bertsolari bakarrarekin nahikoa duk, eta bi horiek hi hintzen gurean.

Pasadizo horrekin amaitzeko, gogoan diat etxeko patxarana zela gure gasolina. Eta zenbat eta patxaran hobea, orduan eta bertso osoagoak. Komeriak etorri zituan garrafoiko patxarana azken tantetara iritsi zenean. Ezinbestean, aran zahar xurgatuei anis berria erantsi geniean, eta patxaran berria egin; hori bai, kolore tristeko eta pattal samarra. Haren kalitatea jaitsi zuan, eta bertsoena ere bai.

Garai hartan gure arteko batzuk Amurizaren ikasle izanak gintuan Udako Euskal Unibertsitatean, 1981eko udan. Ezin diat burutik kendu Xabier Larraonan eskola ematen ari zitzaigula, nola etorri zen norbait esanez Mattin hil berria zela eta irratitik deitzen ziotela Mattinen gainean zerbait esan zezan. Eta, hara, orain gutxi joan zaiguk haren emazte xarmagarria, Maddi Treku. Amaiak seguru ez duela ahaztua izango Maddiri bere Ahetzeko baserrian egin genion elkarrizketa. Hura emakumea!

Esaten nuen bezala, Amuriza irakasle. Ordukoak dituk *Hiztegi errimatua* eta *Hitzaren kirol nazionala*. Apaletan begiratu diat eta ikusi 1981eko abenduan eskuratu nituela. Hortaz, gure eskolan erabiliko genitian, seguru.

Guk Gasteizen Eskola sortu genuenean ez genian helburu handirik. Baina ondo pasatzeko gogoa bai. Eta bide batez, bertsoaren munduan sartu apur bat, euskara hobetu eta euskaraz bizi. Eta hori Gasteizen ez zuan gutxi!

Osteguna zuan gure egunik maiteena eta bertsozaleena. Eskolarako, Lantzaleren ondoren Txusta taberna izan zuan gure habia. Jan, edan eta bertsotan dena batera egiten genian. Eta eskolaren ondoren poteoa, gorputzak basta esan arte. Eta, jakina, bertsorik ezin falta. Baina ostegun gaueko ordu horien berri emateko badituk ni baino egokiagoak, oroimen askoz hobea dutenak. Serapio, zer daukak kontatzeko?



## Gazteak ginen (Serapio)

Baa… Txipi, hik beste. Ostegun gau haiek beren osotasunean denak bat bailiran gogoratzen ditut. Orduko bertso bat ere ezin dut gogoratu. Bueno, gerora, ostegun haietako ibilerak utzi eta urte batzuetara (zeren, jakina, ez zenuten usteko parranda haiek betiko izango zirela) egindako afari batean garai zoro hura hartu genuen bertso gaitzat eta Txerrenek kantatutako bertso baten puntu bat gogoratzen dut gau haietako noraeza ederki laburbiltzen duena:

«Neurritik kanpo ibili ginen
edan genuen doblia»

Nik gogoan dut ostegun haietan nola kuadrila bat biltzen ginen eta puntuka, koplaka edo bertsotan nork baino nork jarduten genuela batere lotsarik gabe batak besteari txanda kenduz. Edozer kantatuta ere bertsotan ondo genbiltzala iruditzen zitzaigun.

Horiek guztiak bertso eskolaren ostean Motrirenean bapo afaldu eta gero gertatzen ziren. Handik irten eta lehenik, Kutxira. Beti bertsotan. Ordu biak aldera, Zapara, bertso-

tan; eta azkenik batzuek, ganorabakoenok Lady Yulin edo Kattosen espuela hartzen genuen. Beti bertsotan. Kontua da jendeak ez ziela kasu handirik egiten gure bertsoei. Baina harriduraz eta kuriositatez geratzen zitzaizkigun begira «Zoro hauek zertan dabiltza?» esanez bezala. Batzuetan izaten zen famaturik ere tartean, Patxi Biskert esate baterako. Guganа hurbildu eta berehala alde egiten zuen. Ez genuen bertsozaletu. Beste behin, Kattosen goizeko 3retan eta kanpoan kristoren elurtza zegoela, Jon Idigorasekin egin genuen topo. Abel Enbeita eta Maritxu Goikoetxea ere baziren han. Idigorasek behingoz isiltzeko esan zigun, nahikoa zela esanez. Guk ederki pasatzen genuen. Goizeko 4rak aldera joaten ginen lotara, nahikoa jota, baina pozik. Goizeko 7:30etan altxa eta lanera; nahikoa kondizio eskasetan, baina umore onez beti ere. Gazteak baikinen!

Gaiak ere beti berak. Zer pentsatua ematen zutenak: mozkorra, neskak, elkarri adarra jo, inor hurbiltzen bazitzaigun hari kantatu… Kontua zen, Zapako tabernetan batez ere, musika altu xamar egoten zela eta nahiko komeriak izaten genituela kantatzen genituenak elkarri aditzeko. Hik, Patxi, badakik zeozer hortaz, ez duk?



## Zapako gauak gogoan (Patxi Aizpurua)

Hogei urte pasa diren honetan, bazeudek oraindik zenbait gauza gordeta eta gure garunetan itsatsirik daudenak. Artean ostegun soilak zituan, Jon Arretxek liburura eraman gabeak, eta gu gazte, gazte eta berde, hitzaren zentzurik zabalenean. Dena dela, nagok hainbat mundu eta giro zeudela ibiltzen ginen kale eta tabernetan. Ez gintuan taberna guztietan sartzen, ibilbide zehatz eta markatua genian. Gure taberna horiek bazizkiaten zenbait ezaugarri komun, eta komunean zenbait ezaugarri. Nik honako hauek gogoratzen dizkiat.

1. Musika. Euskal rockaren urterik gogoangarrienak zituan eta musikari horietako asko ere gure alboan ibiltzen zituan. Konpainia egiteko moduko musikarik ez zegoan, “hilo musikal”-ik ez Larri eta Bodegoian. Gure entzumenari galdetzea nahikoa. Zarata hark Uztapideren belarriak ere kizkurtuko zizkian! Beraz, zerbait egin behar bertsotan jarduteko. Hortik etorri zuan *bertso-melea*, bertsoaren aitzakian elkarri igurtziak ematen genionekoa. Baina haragizko zirkulu horrek nolabaiteko isolamendua sortzen zian, gure harremanei hesia ezarri.

2. Hala ere, ez pentsa, bazegoan harresia zeharkatzen zuen jenderik ere. Alde batetik, mozkor jendea. Gau horiek gogora ekartzen ditudanean, Somorrostro etortzen zaidak burura. Han ibiltzen zuan *ardo mindua edanez historiaren tabernan*, norbaitek ordaintzen bazion, noski. Baina honetaz aparte, hik esaten huen moduan Serapio, etxe bakoitzeko birigarrorik onenak elkartzen zitzaizkiguan. Bestalde, sasi bertsolariaren kategoriarik ez zuen unibertsitateko ikasleren batek edo bestek ere –giputz edo bizkaitarren bat– gure aldera ematen zizkian pausoak. Guretzat probokazio hutsa zuan hori eta txanda elkarri kenduz ibiltzen gintuan sujetoa uxatu arte.

3. Aipatzeko azkeneko ezaugarri nagusia euskararena zuan. 80ko hamarkadaren erdialdean edo ikaragarrizko jende mordoa matrikulatu zuan AEKn. Gu ere han ibili gintuan eskolak ematen. Baina jende samalda horren erabilera ez zuan inondik inora azaltzen, ez zuan igartzen kalean egunez. Gauez, aldiz, guztiz kontrakoa zuan. Ehuneko nabarmenak euskaraz hitz egiten zian, gaueko errelebora pasa genian euskara, 22:00etatik 6:00etara. Ziur nagok SIADECOren diagnosirik zuhurrena ere aldatzeko moduko datuak aterako zirela.

Dena dela, pena handi bat zeukaat honetaz mintzatzean, ez genuela inolako grabaziorik egin; lekukotasuna falta zaiguk. Horrelako baldintzetan kantatu ondoren eta nolako estimazioa genuen kontuan hartuta... Nire burua kaskarra izan duk beti memoria kontuetan, eta zahartzen ari naizen honetan gero eta kaskarragoa. Baina, bestalde, zer arraio! Hobeto. Horrela urte haietako inpresioa aldatuko digun grabaziorik ez zagok, guk esandakoarekin konformatu beharko dik jendeak.

Arestian aipatu diat euskara gaueko hizkuntza zela Gasteizen. Egunez ere Alde Zahar aldean, arratsaldeko poteoan edo zerbait entzungo zuan, ezta? Zer diok hik, Rikardo?



## Joan horra, mesedez (Rikardo Glez. De Durana)

Bai Patxi, bai. Ez nian entzungo ba? Esaidak bestela entzuteko ez bada belarriak zertarako behar ditudan. Beharbada merezi zuen asko entzuteke edo agian ulertu gabe utziko nian. Baina orduan entzun nituen guztiak idatziko ez ditudan arren, bazeukeat zer kontatua. Dena dela, gure arteko entzulerik onena Xabi zelakoan niagok. Lanbidez harakina zenez gero, guk beti "harakina" deitzen genioan eta euskararik ez zekien arren beti gurekin ibiltzen zena zuan. Zalantzarik gabe bere dohaina isiltasuna zuan. Behin Xabi "harakina" eta biok Aldapako Aldapa izeneko tabernan geundean. Taberna horrek eserleku luzea zeukak eta gu, edariak eskatu ondoren, jartzera joan gaituk. Gure "harakina" ohi bezala, hitz erdirik esan gabe, eseri duk eta bera eta eserita dagoen neska baten artean tartetxo bat zegok, baina ez duk ni jartzeko nahikoa. Neskarengana hurbildu nauk eta honela esan zioat: «joan horra, mesedez» ni esertzeko adina tokirik egiteko adieraziz. Baina zoritxarrez neskak ez zekik euskararik eta hauxe erantzun zidak: «Oye, que yo no me llamo Joanorra».

Beste behin, Barbara Donearen plazako lorategietan orduan nuen lankide euskaldun bakarrarekin lan egitea egokitu zaidak. Lan tresnatzat aitzur bana diagu. Aitzurrak ezkutatu eta hamarretakoa egitera joan gaituk. Baina berriz lan egitera itzuli garenean, lankideak ahaztu dik bere aitzurra non utzi duen, eta niri galdetu zidak. Nik esan zioat non daukan baina nonbait ez dik ulertu eta bigarrenez galdetu didanean hantxe dagoela erantzun zioat eta gure ondotik pasatu den mutil batek ere azkeneko hitza, «dagoela» alegia, «argi» entzun omen dik, baina euskaraz ez dakienez gero, haserre eta galdezka etorri zaidak: «¿Que ha dicho usted de mi abuela?».

Ondorengoa gure lehengusu baten ezkontza egunean gertatu zitzaidaan. Ezkontzara joandako osabetako batek bazkaldu ondoren mesede hau eskatu zidak: «Venga, Ricardo,

échanos un versolari». Nik neure burua botatzeko asmorik ez dudanez gero, bertso batzuk bota dizkiat, eta denok pozik.

Aurrekoa kontatu eta beste osaba batekin gertatua gogoratu zaidak. Azken hau ni bezalaxe Oreitian bizi zen osaba zuan. Eta noizbait Gasteiza eramateko mesedea eskatu zidak. Jarritako egunean kotxean hartu diat eta Gasteizko bidean goazela, zera galdetu zidak: «¿Qué, Ricardo, sigues con eso de los versículos?». Ikusten duanez, Patxi, garai hartan bazegoan zer entzuna. Gainera, argi zegok hik arrazoia duala hainbat mundu eta giro zeudela esaten duanean. Eta oraindik gogoan askoz gehiago zeukeat. Baina ez diat irakurlea aspertzeko eskubiderik, ezta gogorik ere. Beraz, hire baimenez joan berri zaigun eta adiskide mina izan nuen Martin Mimentza zena agurtzeko lizentzia hartuko diat.[2]

Kaixo, Martin, hirekiko bakarrizketa hau egitea oso erraza duk, behintzat hire adiskidea izatea izan zen bezain erraza. Gasteizko bertsolari eskola sortu ondoren elkarrekin bizi izandakoak nekez ahaztuko dizkiat. Ni hirekin hasi bainintzen Euskal Herria ezagutzen eta bihotzez maitatzen. Hire Dyane Seis urdinean joanda Euskal Herriko zenbat herri, herrixka, zoko eta abar ez ote genian ikusi eta bertan gozatu? Elkarrekin zenbat bertso saio entzun ote genian? Zenbat bertso lorrindu? Batek zekik. Argi dagoena zera duk: orduan elkarrekin une eder eta atsegin asko bizi izan genuela. Euskal Herriko mendi askoren izenak ere hik esanda ikasi nizkian. Ernioko tontorreraino ere elkarrekin igo gintuan. Zer ez genian egin? Azkenerako hire umore sarkor eta kutsakorra utzi diat. Noiz ez hengoen barrezka? Noiz ez inori adarra jotzeko prest? Heure buruaz barre egiteko ere ez heukan arazorik. Hi holakoa hintzen eta nik holaxe ezagutu eta gogoratuko haut.

(Doinua: Aita izena)
Dyane Seisa hartu ta Bizkaia edo
Gipuzkoara bestela
Bertso ugari entzun genuen
Ez zen desio ustela
Bertsoa baita Martin gu biok
Lotu gintuen kordela
Zu joan zara baina nik behintzat
Zauden tokian zaudela
Ez dut ahaztuko hemen elkarren
Anaiak izan ginela.(bi)

Dagoeneko, Karmele, nik asko idatzi dinat eta, beraz, hiri dagokin idazten jarraitzea. Ekion ba!

2. Rikardoren ekarpen hau pixka bat beranduago txertatu genuen besteen artean, ordurako Martin Mimentza, atal honetan bertan bere ekarpena eman ziguna, hila zen.

## Gogorapen batzuk (Karmele)

Behin bazen gazte talde bat, euskaraz edo euskararekin beren hiriaren berpiztearekin amets egin zuena … Bilerak eta bilerak egin zituzten, nola edo nondik abiatzeko: euskal poteoa,kalejira euskaldunak, kantu taldea (?) eta abarreko proposamenak aurkeztu ziren.

Goazen harira.

Xabi, gogoratuko zara nola UEUn saiatzen ginen gure lehendabiziko "pinitoak" egiten Amurizaren zuzendaritzapean, ezta? Ni saltsa hauetan beti sartzen nintzen Amaia Otsoaren bidez. Zu, Amaia eta hirurok elkarrekin ibiliak ginen beste "gerra" batzuetan. Benetan, nik bertsoarena juxtu entzuna neukan, eta bertsolarien bat-batekotasuna gauza miresgarri bezala nuen. Behin, Iparraldean, ez dut gogoratzen zein herritan, Mattin eta hango beste batzuk entzun nituen, esaten zutena ezer harrapatu gabe!

Batez ere bertsolaritza interesatu zitzaidan euskara hobetzeko paregabeko bidea iruditu zitzaidalako. Orain ere horrela pentsatzen dut: bertso saio bat gozatzeko gai bazara, euskara ikasteak merezi du.

Ohi bezala, gure garaietan, neska gutxi eta mutil asko gure taldean, nahiz eta, seguru gogoratuko duzula, Txustara neska gehiago hurbiltzen zela… batzuetan, baina azkenean Amaia Otsoa eta biok.

Oroimen politak ditut garai hartakoak: gure Lantzaleko eta gero Txustako saioak (merienda barne), gehienetan gorriak pasatzen nituela kantatzeko orduan, Zapa kaleko eskola, ohizko eta ezohizko parrandak… eta batez ere Arabako 1. Txapelketa 1984an; zer nolako ausardia zuena! Horren ausartak ez ginenok antolatzaile lanean aritu ginen, Abel buru. Zerbait aipatzekotan, Aramaioko saioa eta geroko afari-jai-akelarrea esango nuke. Zer dakarkizu burura Xabi?

## Bertso eskolako oroitzapenak eta beste batzuk (Xabi Riko)

Bai Karmele, oroitzen dut beste gerra batzuetan ere ibili ginela hirurok, EHEn adibidez., eta beste batzuetan ere bai. Horretaz ere luze idatz zitekeen. Baina ez dakit Alzheimer goiztiarra dudan edo garai hartako parrandetan nire egoera (etilikoa) onena ote zen gauza handirik gogoratzeko. Aramaioko jai akelarre hura lainopean ikusten dut. Ze laino klase edan (ge)nuen ere ez dut gogoan.

Karmele, zuk pasa didazu txanda eta nik Amaiari pasatu behar diot. Ondo datorkit, gainera, zuek izatea bata neure aurrekoa eta bestea nire atzekoa, susmatzen dudalako bertsoekiko neure lehenengo harremanak, zuenekin batera gertatu zirela.

Ez zinen egon nirekin, Karmele, Arte eta Lanbide eskolako Peli Presaren euskara klasean, baina badakit egon zinela. Ni baino pixka bat lehenago, agian? Edo beranduago?

Kontua da Olentzerorekin kantuan atera ez ginen Burgosko Prozesuaren urte hartan, “Ikusten duzu goizean” kantatzen ibili nintzela Xabiertxo liburutik Presaren gelan, zeu baino pixka bat lehenago edo beranduago, baina antzera denboran.

Oroitzen dituzu, Amaia, gure Leitzako barnetegia, parranda, txumatxutxeak,* nola joaten ginen erdi lotan goizeko eskoletara, Jokin irakaslea ...? Hori gogoratuko duzu. Ez dakit horren gogoan izango dituzun bi bertso sorta, edo lo faltak eta txumatxutxearen arrasto gupidagabeek lokartzen zintuzten bazkalondo sargoritsu haietan. Hauek ziren sortak: “Afrikan sufritzen” eta “Orain berrogei urte gure Errenteri”, Lete edo Valverderen ahotsetan. Tematu zen Jokin eta tematu ginen batzuk buruz ikasi behar genituela. Inkontzienteki bada ere, bertsoek, eta ez bakarrik alkoholak liluratu gintuzten.

Hurrengo urtean, 81ean, Amurizaren bertso iraultzaren lekuko paregabeak izan ginen UEUn Gasteiztik Iruñera abiatu ginen gu hirurok (Karmele, Amaia eta hirurok), Kike Fdez. de Pinedo eta Txipi, oker ez banago. Hura zen kopla jardun etengabea! Gosaritik eguneroko gaupasa amaitzen zen arte. Horrela zebiltzan Amurizaren ikasleak, eta ez dut inola ere exajeratzen. Batez ere, Trino Azkoitia eta Zaldubirekin gogoratzen naiz. Han Larraonan bertsoak liluratu baino gehiago, mozkortu egin gintuen.

Mozkorraldi horren graduek gora egin zutenean, Abelen etxera agertu ginen batzuk eta horrela hasi zen Gasteizko Eskolaren historia ezaguna.

Badut pasadizo bitxi bat Bertso Eskola hasi baino pixka bat lehenagokoa. Peli Presari bazkari omenaldi bat egin zitzaion. Nik (ustezko) bertso sorta bat idatzi eta kantatu nuen. Jendeak gogotik txalotu zuen. Handik urte batzuetara bertso sorta aurkitu nuen paper zaharren artean. Ederki neurtuta, baina han errima arrastorik ez zegoen. Hori zen Gasteizen bertso kontuetan aitzindari izateak ematen zuen ausarkeria; eta ezjakintasuna, nirea eta publikoarena.

Horrelako zerbait ere egongo zen gure eskola hasi eta urtebetera Arabako Txapelketara hamasei “bertsolari” azaldu ginenean. Baina ni ez naiz egindakoaz damutzen. Gainera, osatu genuen lagunarte euskaldun ezin hobea eta bertso-kopla jolasetan egindako barreak ez dira erraz ahazteko modukoak. Basamortu erdaldunean oasi ederra.

Ahaztu ezin dudan bezala, gure jendaurreko lehenengo saioetako bertigoa. Hutsaren aurrean bakarrik trapezioan. Zerbait egin behar, eta triple salto mortala. Eskerrak txaloen sareak babesten gintuen. Tomaterik, gainera, ez zigun inork bota. Hala ere, zauriren bat gelditzen bazitzaigun, lehen aipatu dudan sendabidea bagenuen, ondorengo lagunartea eta parranda.

Lantzaletik Txustara aldatu ginen. Saiatuko naiz beste batzuek kontatutakoa ez errepikatzen. Dexente ugaldu zitzaigun bezeria egoitza berrian. Eta ni hasi nintzen hasiera mai-

*. Ikus. *Euskal Herriko edabe magikoak*. Leitza,1980.

lakoen irakasle, hamar urtez edo. Urteroko hasierako deialdietara jende mordoa agertzen zitzaigun, erdia euskaldun berri-berriak eta beste erdia unibertsitateko ikasleak. Normalean mordo hori flakatzen zen ikasturtean zehar, batez ere azterketa garaian. Baina ni gustura ibili nintzen, eta uste dut ikasleak ere hala ibili zirela. Eurekin ere parranda ederrak egindakoa naiz, ez bakarrik "guardia zaharrarekin".

Ez dakit oso irakasle ona izan nintzen. Antza denez, nahiko zurruna. Patxik gogorarazi didanez, oso tematuta nengoen Amurizaren "Zu ere bertsolari" estu jarraitzearekin, Maoren Liburu Gorria bailitzan. Baina ez naiz horregatik gorrituko. Ahal nuena egin nuen, ahal nuen ongien. Gainera, sari bat irabazi genuen hasiera mailakook Getxoko bertso idatzien txapelketan. Izenburu zehatza ez dut gogoratzen. Gaia, orain dela hamar (edo hamabost?) urte baino lehenagoko lehorte ikaragarri hura, tabernetako komunak itxita Gasteizko Alde Zaharra erabateko pixatoki bihurtu zen garaikoa.

Zenbat jende pasatu zen gure eskolatik urte haietan? Hasiera maila eta sortu ziren beste batzuk kontuan harturik, hirurehunen bat gutxienez, bai. Oroimenaren tunelean galdu zaizkit asko, baina dexente baditut gogoan. Baten batzuk lagunak ditut gaur egun. Besteren bat bada nor oraingo euskal kulturgintzan. Beste hark Espainiako kartzeletan eman zituen urte mordoa; zorionez kalean dago gaur egun. Beste askoren begiradak, begiak, keinuak eta kantaera bereziak gorde ditut. Edo agurrak kalean eta noizbehinkako hitz-aspertuak.

Zer gelditu zaie han ikasitakoaz? Horri zailagoa da erantzutea, baina urte horiek gogoan badituzte eta nolabait bertsozaletu baziren, pozik egon gintezke. Haietako batzuek bertsoaren jiran jarraitzen dute eta baten bat gainera gorago ere iritsi da, Arabako gure enegarren txapelduna, adibidez. Edo, Serapiok bertsozaletuta etorri zitzaigun neskato hura, azken urte askotako arabar poulidorra .

Ez dut utzi nahi aipatu gabe gure bertso azpiegitura xumean ezinbesteko zutabe izan ziren Bego, Txusta eta bere ama. Beraiei ere zor die zerbait baino gehiago Gasteizko bertsogintzak.

Olatuaren gandorrean geundeneko garai haiek joan dira . Beste belaunaldi bat (edo bi?) sortu d(ir)a Arabako bertsoaren mugidan. Bertsoa ere aurrera doa. Atzera ez da joango, baten batek atzera martxako bertsogintza asmatzen ez duen bitartean, behintzat.

Amaia, memoria zeozertan freskatu dizut? Zer duzu gogoan gure bertso eskola (parranda) giro hartatik? Nolakoak izan ziren zure abenturak eta desbenturak?

## Gu bai ausartak!!! (Amaia Otsoa)

Bai, Xabi, ez dakizu zenbateraino freskatu didazun memoria! Zure epistola irakurri nuenetik murgilduta nago garai hartako giroan eta garunetako ez dakit zein txokotan lozorroan nituen oroimenak, usainak eta sentimenduak jo ta ke dabiltza nire inguruan.

Orain dela gutxi 80ko hamarkadari buruzko telebistako programa bat ikusteko parada izan nuen eta Tejerorena (bertso gaia askotan izan genuena) eta beste bitxikeriaren bat kenduta, hor ematen zutena beste planeta batekoa iruditu zitzaidan. Nire buruari galdetu nion non ote nengoen bolada horretan pertsonaia eta istorio horiek hain arrotz izateko, eta konturatu nintzen gure ghettoan egon ginela, gure Parnason, Gasteiz euskaldun eta ezberdin batean eta Historia egiten ari ginela jakin gabe!

Bai, Historia egiten diot zeren ni ere egon bainintzen Arabako Txapelketako hamasei bertsolari “ausart” horien artean. Kontziente naiz eta orduan banintzen ere ez nintzela gai horrelako dematik ezer onik ateratzeko, baina egin behar zen eta antolatzaileek hala aginduta («emakumeren batek parte hartu behar du eta zuri egokitu zaizu»), nora eta Aramaiora! Zuk akelarre horretaz ezer gutxi gogoratuko duzu, nik berriz badakit kantatu ondoren nuen adrenalina gaindosia zela eta, kotxe baten barruan erdi lotan egon nintzela zuek Akerra gurtzen zenuten bitartean.

Dena dela, ez naiz damutzen, gauzak horrelakoak ziren eta kito eta gainera deklinabideko kasu berri bat asmatu nuen trabatu zitzaidan errima bati esker («denontzoi» polita, ezta?).

Bestaldetik, egun hauetan Kristina Mardarasen adierazpenak (hau ere Iruñean ezagutu genuen) irakurri ditut Argian, bertsolari batzuek ez zutela berarekin kantatu nahi deseroso sentitzen zirela eta. Zuek ez zineten gehiegi kortatzen, baina gogoratzen naiz askotan Karmele eta biok erdi haserre erdi nekaturik esan behar izaten genizuela «hori matxista da» monogaiaz aritzen ginenean eta baten batek erantzuten zuela «bertsotan dena onartzen da» (freskotasunaren izenean). Hemen ere denok tolerantzia ikasi behar! Hala ere, talde ederra osatzen genuen, maitasun handiz gogoratzen ditut ostegun guzti horiek eta aspaldian bertsogintza ahaztuta izan arren bertsozaletasuna ez dut utzi, hor egoten eta egongo naiz telebistako bertso saio garrantzitsuenetan burmuina bertso onenetan eta desira Maialenen garaipenean.

Gezurra badirudi ere, Gasteiz hain txikia izanda, garai hartako jende gutxi ikusten dut, zu Martin, adibidez hogei urte baino gehiagotan ez zaitut ikusi. Nola tratatu zaitu bizitzak?

## Beti eskamak kentzen (Martin Mimentza)

Hark zioen bezala, *«bizitza itsasoz doana bezalakoa da»,* hau da, batzuetan arrantza eta bestetan aharrausi. Oraingo honetan, garai batean eskutan eduki nituen zenbaiti buruz arituko naiz, ze hartu gabeko *arrainei* buruz idaztea, hurrengo baterako utziko dut.

Abel da lehen arraina. Artzain trebea izan behar zuen gulako ganadua ondo gobernatuko bazuen. Bigarren arraina, Agurain. Ahaztezina afalosteko postre gozoa eta estraperloko Winstona.

Hurrengo arraina, bi eratara esan badaiteke ere, arrain bakarra da: Amúriza edo Amuríza. Zornotzatik gertu dagoen gasolindegi batean, periodikoari sua emanez lortu genuen irekitzea gasolina-depositoko tapoia. Intsolazioa hartzeko eguna ez zen behintzat.

Manu "zaharra" da ondorengo arraina. Bizitzako itsasoan itotako lehena. Manuren buruan, neurria eta esanahiaren arteko apustuan, zeresanak zuen lehentasuna. Bertsoaren neurria aspaldi pasatuta bazegoen ere, Manuk bukatuko zuen esan-beharrekoa, ahotsari gora eta behera eraginez Gregoriano abestien antzera. *«Manu eskola zaharrekoa duk»* esaten genion elkarri, buruari gora eta behera eraginez.

Urkiolan behintzat bero egiten zuen. Hogeita hamar gradutik ez zen oso urrun ibiliko termometroa. Jende ugari zebilen bazterretatik eta ia denok bainu-jantzian. Denok Rikardo arraina izan ezik. Hau lasai-ongi zebilen Bizkarra-bi tabernazuloko toki beroenean ere, dotore-dotore bere artilezko jertse urdinarekin:

*–Rikardo, ez al haiz bero?* Galdetu nion

*–Bai, eta hi ez ala? Gainera ez zekiat non utzi jertsea.*

Bizpahiru lekutan ibili ondoren, Txusta taberna izan zen hurrengo arrain-biltegia. Hemen nahasten ziren tortilla-usaina, bertso-doinuak, iritziak, uste eta asmoak. Honen harira, interesgarria litzateke bertso-giroa bizi izandako leku desberdinen ikerketa bultzatzea, bertso-mundua hobeto ezagutuko badugu. Taberna eta sagardotegiak leku topikotzat har daitezke, Karibeko piraten taberna-zulo haien antzera, baina horrez gain ezer gutxi dagoela iruditzen zait.

Eta hire ustez, Oier, piraten eta bertsolarien artean zerikusirik ba ote da?



## Ume moko baten gogorapenak (Oier Enbeita)

Zerbait badago. Gero bertsolari izango ziren batzuk piraten antzera agertu ziren Abornikanon. Ez nituen inondik ezagutzen, gainera ilundurik zen eguna jada eta gaizki gogoratzen ez badut norbaitek bizar zahar antzerakoa zuen. Etxera sartu eta aitarekin hizketan aritu ziren. Oraindik gogoan dut aitaren ilusioa. Gasteizen bertso eskola sortu behar zen!!!

Zigor eta ni ume moko bi ginen, baina Aitarekin joan ginen Santa Maria kantoiko dantza eskola batera. Bizardun pila bat zegoen. Ez nuen inor ezagutzen eta hasieran izutu xamar nengoen, nahiz eta geroago konfiantza hartu nuen. Lantzale izeneko lokal hartan hasi zen nire bertso karrera laburra. Aita eta amarekin hamaika kilometro egin genituen atzera eta aurrera Gipuzkoako eskolarteko txapelketan, Bizkaiko eskolartekoan, geroago Bizkai-Arabakoan, eta beti kotxean bertsotan. Aita gai jartzaile eta Zigor eta biok bertsotan. Urte haietan familiako tradizio moduan egiten genuen bertsotan eta urteak joan ahala aspertzen hasi nintzen. Gainera, neukan ilusio apurra Bizkaian bertso munduan "jefe" zen "kazike Baltzak" guztiz kendu zidan bere trapitxeoekin. Bere "komidilla"koa ez zena berehala baztertzen baitzuen. Suerte txarrez ni ez naiz bere erruz bertsolaritza alde batera baztertu duen bakarra izan. Baina pasadizo honek ez dizkit belztuko Gasteizko bertso eskolak

utzitako oroimen ederrak. Gogoan dauzkat Amaia, Txipi, Txerren, Txinotxu, Manu Zaharra, Rikardo, Xabi, Karmele, Serapio, Patxi eta beste guztiak.

Zorionez orduan hasi ziren batzuk oraindik frentean ikusten ditut iragana eta geroa lotuz. Gogoeta bikainen artean badaude protagonista isil baina era berean handi batzuk ere. Ez nituzke agurtu eta eskertu gabe utzi nahi. Eskerrik asko bihotzez Txusta eta familia. Bukatzeko, bertsolaritza nola odolean daramadan jarraitu egiten dut eta ea noiz demontre ikusten dudan Enbeitatar bat B.E.C.-en txapela jantzita. Nola ni azkena naizen ez diot pertsona konkretu bati "bola" pasatuko. Nik denoi bota nahi dizuet erreflexio txiki bat.

Hogeita bost urte, eta gero…?

## TABERNA BERTSOLARI BATEN HISTORIA

### Patxi Aizpurua (Arabako Bertsozale Elkarteko Kidea)

Arabako bertsolaritza modernoaren inguruko edozein ezagutza izanik ere, litekeena da jakintza maila guztietan Txusta agertzea ezinbesteko erreferente bezala. Jose Maria Iriondok urtetan buru izan duen Gasteizko taberna ezagunak egun plazaz plaza aritzen diren bertsolari arabar gehienen jaiotzak erditu ditu. Egun itxita dagoen Mateo de Moraza kaleko tabernak Gasteizko euskaltzaletasunaren topaleku bihurturik, egungo bertsolaritzaren bilakaeraren lekuko zuzena izan da eta era berean, bertso batetik bestera errimak, azken puntuak eta bestelakoak pentsatzeak dakarren denborak profitatuz, pintxo eta ardo zein sagardo artean bildutakoek tabernaren izaeraz hausnartzeko parada izan dute urtetan. Taberna barruko egurrezko mahai txikiaren inguruan bizi izan dira lagunarteko zein lehiakideen arteko saio eta entrenamendu gehienak. Goiko pisuko gela handiek, berriz, hasiera mailakoen lehen klaseak, erdi mailakoen aurrerapausoak eta denen arteko afariak gordeko dituzte betiko, txorizoz lagundutako patatek eta piperrez apainduriko solomoarekin batera hazitako arabar bertsolarien gordeleku.

Egun, Gasteizko Aranbizkarra auzoan kokaturik dagoen Amaia Kultur Zentroa da Arabako bertsolari eta bertsozaleen topaleku. 2000. urtean zabaldu zituen Arabako Bertsozale Elkarteak Amaiako ateak eta begi bistakoa da, egoitza aldaketa honek arabar bertsolaritzaren garapena islatzen duela. Zalantzarik gabe, Amaia Kultur Zentroak ekarri duen azpiegitura taberna batek eman dezakeena baino askoz aproposagoa da bertan lanean jarduten direnentzat, baita eskolen emateko ere. Hala eta guztiz ere, ez dago Txusta tabernak ekarri duena ordezkatuko duen egoitzarik, Arabako bertsolaritzaren protagonisten omenezko hitzek agerian uzten dutenez.

## Txusta Tabernaren Alfabeto Txikia

**Abel Enbeita.** 1982az geroztik, eskola sortu zenetik, gidari izan genuen bertsolaria eta bertsozaleon maisu. Tabernako etxekoandre eta nagusiarekin zuen adiskidetasuna medio, bertan hartu genuen ostatu eta hori izan zen, urte askotan, Lantzale elkartearen ondoren, gure bigarren kanpamendua.

Aita eta bi semeak –Zigor eta Oier– etortzen ziren gure ostegunetako eskolara. Artean umeak, aitaren azalpenak desbideratzen zituzten alukeriak eginez jarduten zuten askotan. Maisu eta aitaren begirada –kiskalgarria gehienetan– aski izaten zen lehengora bueltatzeko. Horretaz aparte, bertsozale munduarekin genuen kontaktu bakarra zen askorentzat, bertso saioen antolatzaile, instituzioetara diru eske joaten zena, eta abar eta abar.

**Afaria**. Dena ez da lana mundu honetan; parrandari ere bere tokia eman behar zaio. Hala, era askotako afariak antolatzen genituen: urriko bertso eskolaren hasierakoa, saioren baten ondorengoa, kanporaketa afariak..., edozein aitzakiari egiten genion men. Janariari dagokionez, bi edo hiru plater izaten ziren ohikoak: marmitako arrunta edo nordikoa (izokinarekin, garaiz kanpokoa), eskalopea piperrekin, bakailaoa. Postre modura, berriz, goxua, tarta izoztua (Contesa), kafea eta patxarana. Handik urte batzuetara, ikasle jendea zela eta, merkeago izateko, PG afariak egiten ziren, postrerik gabekoak, alegia.

**Arabako Bertsozale Elkartea**. Aurretik Gasteizko Bertsolari Eskola deiturikoa, baina Euskal Herrikoa Bertsozale bihurtu zenean, hiriko elkartea probintziakoa bihurtu zen beste herrialdekoekin gertatzen zen legez. Gaur egun jendearen partehartze askoz ere handiagoa da eta antolakera ere bai.

**Bego eta amama**. Afari eta bazkarietako sukaldariak. Bata Txustaren emaztea eta bestea ama, duela ez asko zendua. Errainaren laguntzaile fina eta nekaezina. Afaria beheko aldean egiten zenean, komunen ondoan, beti agertzen zen kafearen garaian eta bertsolarien kantagai izaten zen.

**Bertsolariak**. Bertako bertsolariez gainera, saioren bat zela eta, zenbait bertsolari heldu zen gure tabernara. Hauen artean aipatzekoak ditugu: Balentin Enbeita, Lazkao Txiki, Lizaso zaharra, Joxe Agirre, Imanol Lazkano, Jon Enbeita, Mañukorta, Peña, Amuriza, Mendizabal, Murua. Bestetik, Gasteizen bizi ziren Andoni Egaña, Igor Elortza eta Jon Maia.

**Guardia zaharra**. Hasierako eskolako atso-agure taldeari gazteek ipìnitako izena eta *Mahai Nazionala*rekin batera tartekatzen zutena.

**Jose Agustin Iriondo**. Hori da bere grazia, baina Gasteizen denek Txusta deitzen diote. Euskaltzale eta Athletic-zale amorratua. Barratik kanpo edo barruan, beti purua eskuan. Lagun arteko gizona eta tabernan sartzen zen fauna txikia ondo gobernatzen zekiena. Gure afarietan, barrako lanak uzten bazion behintzat, ez zuen hutsik egiten kafe garaian eta bertsolarien *musa* izan ohi zen ia beti puska batean.

Tabernatik kanpo bertsolari xelebrearen saria ere eman zuen zenbait urtetan Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama bertso sarian.

**Kirolak**. Izen hori agertzen zen tabernaren sarrerako ezkerraldeko paretan, egur puska batean. Guztiok dakigu garai haietan, eta orain ere bai, nagusia oso kirolzalea zela, bestela ikusi besterik ez zegoen barraren atzealdean zegoen koadroan sartutako argazkia, gure Txusta San Mameseko palkoan eserita puruaren keaz inguratua. Kontua da ostatu honetan era guztietako jendea pasatzen zela. Horrela, goizetan, udaletxeko langileak pasatzen ziren; komun bazterrean koadrila bat egon ohi zen gosari txikia egiten. Eguerdi eta arratsaldeetan, aldiz, txikiteoko jendea izaten zen batik bat, *Las Nieveseko maizterren bat edo beste. Taberna gaineko areto handian hainbat elkartek eta fabrikako langilek egiten zituzten bilerak, elkartasunerako taberna bihurtuz.

**Komunak**. Ezinbestekoa tarteka bisitatzea. Dena dela, gure kasuan, guk bisitatu baino gehiago, bertara heltzen ziren bisitariak ikusten genituen, tabernatik eta komunetarako bidantean (???) zegoen txokoan elkartzen baikinen. Leku gehiago ere bazegoen inguruan, aproposagoak ziur asko, baina han elkartzen ginen askotan perfumatuak ziren ostegunetan. Humus berezi hartan ernatu ziren hainbat bertso saio, Prudentzio Deuna sariak eta Aldundirako aurrekontuak.

**Liburu Gorria**. Guk jarritako izena baino ez da, baten batentzat Maorena baino garrantzitsuagoa baitzen eskolako jardunetan. (Ikus **"Zu ere bertsolari"**).

**Manu Zaharra**. Gasteizen bizi zen bidaniar jubilatua. Arabako lehenengo txapelketa aurretik etorri zen eskolara, 1983.urte inguruan. Bertsozale amorratua, han aritzen zen ostegunero gurekin batera tabernako goiko aldean. Saio bat ere egin zuen jendaurrean txapelketan kantatu aurretik. Gorbeialdeko Sarrian izan zen. Kontua da herrira heldu ginenean oso eguraldi txarra zegoela eta saiorik ezin egin kanpoan. Garai hartan *Rumasa* auzia zegoen pilpilean eta honen inguruko bertsoak prestatu genituen bertan kantatzeko;

*. Las Nieves: Egun Gasteizko Enpresaritza fakultatea, urte askoan berriz Gasteizko Zoroetxea.

baina, eguraldiak huts egin eta gure Manu urduri zegoen bertsoak noiz kantatu behar genituen galdetuz. Azkenean elkarte batera sartu ginen eta han, mahaian, kantatu genituen prestatutakoak.

Txapelketa aurretik gaixotu egin zen eta Aramaioko saioan ospitaleko medikuak baimena emanda kantatu zuen, oso gaixo jadanik. Handik gutxira hil zen.

**Mokadua**. Eskola sortu zenetik, saioaren bukaera aldera, etentxo bat egiten zen mokadutxoa jateko. Lantzale elkartean txandaka arduratzen ginen ogia, txorizoa, urdaiazpikoa, gazta, eta abar eramateaz. Lehorretik jaten genuen eta ardoarekin busti. Txustara pasatakoan, ohitura honek jarraitu zuen, asko ez, hala ere, zoritxarrez. Begok bospasei plateretan jartzen zigun jatekoa, haien artean patata tortilla pintxoak. Urduritasun handia izaten zen platerok guregana heltzen zirenean. Ikustekoa zen kantuarekin batera mokadua ez galtzeko batzuek zuten abilezia.

**Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama**. Araba-Bizkaiko txapelketaren teloneroa. 90ean hasi zenean, eskolarentzat erronka handia izan zen eta ondotik zetozen gazteentzat, besterik ezean, plazaratzeko modua.

**Txapelketa**. 84an, artean gazte eta berde, Gasteiz irratiaren babesarekin, lehenengo bertsolari txapelketa antolatu zen Araban. Irabazlea, jakina den bezala, Juan Isasi "Txinotxu" izan zen.

Gogoratzen zait Aramaion egokitu zitzaidala kantatzea beste batzuekin batera. Orain areto ederra daukate eta orduan ere, zaharra izanagatik, bazen guretzat adinekoa. Tranpaldoak aldats behera moduan egiten zuen jendearen aldera, sentsazio bitxia zen han kantatzea, maldan behera, iragarritako saioaren irudia bailitzan. Kantatzen genuenon lagun eta tartekoek osatzen zuten publiko urria. Saioa hasi eta berehala hiru agure sartu ziren, jubilatuek izan ohi duten ikusminak bultzaturik akaso. Ez zuten lehenengo ofizioko bertsoak entzuteko adina denbora iraun, eta sartu ziren moduan, zarata handirik gabe, joan ziren.

Egun, hogei urte geroago, nago irudi hark eragin zidala besteen bertsoak epaitzeko grina.

**"Zu ere bertsolari"**. Laurogeigarren hamarkadan Amurizak argitaratutako liburua, garai hartako bertso eskoletan eta ondorengoetan eragin handia izan zuena. Gurean ere izan zuen bere eragintxoa; izan ere, gehienok eskola libreago egin nahi bagenuen ere, bazegoen tartean baten bat liburua orpoz orpo jarraitu nahi zuena.

## Araba bertsotan, hogei urte eta gehiago!

*Bi mila ta bigarren*
*urtean gaudenez*
*orain hogei beteta*
*denon zorionez,*
*galaz ospa dezagun*
*txanpaina edanez*
*han sortu ta hazi ginen*
*habi izan denez*
*bertsoak jarri ditut*
*Txustaren omenez.*

*Bi lagun barra ondoan*
*Txusta zerbitzari*
*inor azaldu al da?*
*galdetu berari,*
*purua ezpainetan*
*keinua goiari,*
*hogei urtez gabiltza*
*tabernan kantari*
*bertso onenak boteaz*
*erratz-kirtenari.*

*Eguneko ajeak*
*oraindik buruan*
*hortxe bilduko ginen*
*seiak inguruan,*
*basoerdia mahaian*
*pizgarri moduan*
*puntua boteaz nork*
*erantzungo duan,*
*nahigabe denak ahazten*
*genitun orduan.*

*Afaritan menua*
*betiko sorpresa*
*patata ta txorizoz*
*betetako pertza,*

*solomoa, piperrak*
*asmatzen erraza,*
*postre aukera zabala*
*gazta edo "kontesa"*
*errematatuz bertso*
*saio aldrebesa.*

*Trabatu ondorengo*
*mekabuen erreak,*
*potoa entzun isilik*
*ikatza urreak,*
*parez pare jo eta*
*geroko barreak*
*denak ditu gogoan*
*betiko gordeak*
*goiko komedoreko*
*pareta arreak.*

*Ezin da laburbildu*
*bertako ibilera*
*hamaika desafio*
*saio ta bilera,*
*orain ta ustekabean,*
*hartu ta kalera*
*horrela joan ginen*
*Amaia aldera,*
*ez dago gaizki baina*
*ez da gauza bera.*

*Hegan hasi aurreko*
*guztion habia*
*zalea zena soilik,*
*han bertsolaria,*
*Txustan astindu gendun*
*beldurren nagia*
*zurekin dugun zorra*
*ez al da handia?*
*inork ez baitu ahazten*
*bere "lehen aldia".*

*Txustak goibel eman zun*
*ixteko ordena*
*izan ere izan duzu*
*jaberik onena,*
*biak hartu bihotzez*
*guztion omena*
*biak zarete eta*
*lehena ta ondorena,*
*zuei eskerrak gara*
*gaur egun garena.*

*Juan Mari Juaristi*
2002ko abenduan

## TXUSTA JAUNA

Txusta taberna aipatu dizugu nahikotxo honezkero, irakurle, eta gehiagotan ere izango dituzu bere aipamenak liburuan zehar. Baina taberna guztietako barren atzean tabernariak egoten dira, askotan tabernari bere nortasuna ematen dioten tabernariak izaten dira. Halakoxea da Txustaren izaera. Tabernak ez du alferrik jarria nagusiaren (goit)izena. Kakotxak kasu honetan erabat justifikatuta daude, izan ere, Txusta ezagutzen duzuenon artean zenbatek dakizue bere ponteko izena?

Txusta eta bere taberna, Gasteizko pertsonaje eta toki ezagun eta bereziak izan dira. Hamaika istorio, kontu, pasadizo, gertakizun, eztabaida, batzar, ateraldi eta bertso ezkutatzen dira, orain erabili gabe dauden barra eta horma horien artean. Maitasun kontu gutxi entzun dut nik handik, baina irakurtzen dagoen baten batek jakingo du berea edo besteren batena, seguru. Kontaezinezko trago zerrendak, mokadu ederrak, afari goxo, kafe lurrintsu… Halako taberna bat itzaltzen denean, bertatik pasatutako guztioi kandela txiki bat itzaltzen zaigu barrenean.

Penak uxatzeko modurik onenetakoa pozak eta kontuak zaharberritzea izaten da, eta taberna honen kasuan nor aproposagoa Txusta bera baino, tira, Txustara ezingo gara sartu, baina Txustarekin geratu bai. Hitzordu bat jarri genuen, nik eguna eman nion, berak niri lekua. Bere etxepeko taberna “Los Amigos”. Mila aldiz pasako nintzen ni taberna horren aurretik, sartu hirutan edo, eta ez nuen sekula asmatuko taberna horren jabea, izatez Txusta bezala, beste mendaroar bat zela, eta abizena ere bera dutela: Iriondo. Izan ere, Txustaren ponteko izena Jose Agustin Iriondo da.

**–Txusta jauna, zer moduz?**

–Ondo! Zeozer hartu nahi duzu?

**–Beno, nik ere beltza hartuko dut!**

–Hau ere Mendarokoa da eta Iriondo ni bezala, baina ez gara lehengusuak eee!

**–A! bai! Eta zer, Mendarotik etorritako guztiek taberna zabaldu duzue ala?**

–Beno, non jarriko gara?

**–Ba hantxe igual, ez? mahaitxo horretan?**

**Beno tira ba… zu noiz etorri zinen Gasteiza? Mendarokoa izatez, ezta?**

–Bai, Mendarokoa, bai! Ba 5 urterekin etorri nintzen!

**–5 urterekin, orduan oso goiz! Ta aita-amarekin etxean euskaraz?**

–Bai etxean beti! ta gero nire seme-alabekin ere bai.

**–Jaio noiz jaio zinen?**

–43an!

**–Ba garai horretan Gasteizen jende gutxik egingo zuen euskaraz, ezta?**

–Bai, bai, oso gutxik.

**–Eta bertsozaletasuna nondik datorkizu?**

–Ba Abel, Xabi Riko ta Rikardo etorri zirenean…

**–Lehenagotik ez zinen bertsozalea?**

–Bertsolariak zer ziren banekien, baina zale egin nintzen horiek tabernara etorri zirenean.

**–Eta taberna noiz zabaldu zenuen?**

–Aber, orain dela 2 urte edo itxi… Ba 67an!

**–Eta lehenago beste lan batzuetan aritu zinen?**

–Bai, gurasoekin, lantoki bat zeukaten "Donosti" izenekoa eta hor saltzen ziren ba abarkak, botak-eta, eta ni laguntzen. Eta gero "Imat" izenekoan beste sozio batzuekin, hor umeen gauzak saltzen genituen: sehaskak, kotxeak, bainu-ontziak umeentzat, motxilak… Orduan zaila zen gauza horiek saltzea, ez zegoen ohiturarik. Guk saltzen genuen "Chico", hori da Italiako multinazional bat, ba horren produktuak.

Gero lantokia utzi eta bi urtez egon nintzen langabezian, eta lagun bati seguruak saltzen laguntzen.

**–Eta gero taberna zabaldu?**

–Bai, hasieran Gestoraseko taberna izan zen eta gero taberna bakarrik.

**–Eta bertsolariak nola ezagutu zenituen, nola hurbildu ziren edo?**

–Bueno, nik lehenagotik Abel ezagutzen nuen, giltzapean elkarrekin egon ginen. Gero Rikardo udaletik bertara joaten zen gosaltzera eta Txipi, Txerren, Xabi eta gero Oihane eta ere bai.

**–Eta behin hasi zirela joaten, gero zer ez da egin Txustan bertso kontuetatik: bertso eskolak, bertso afariak, saioak, San Prudentzioko kanporaketak…**

–Ba, ez dakit zer ez dan egin! Akordatzen naiz afari batzuk egin zirela bertsolari ospetsuekin: Peña, Lopategi… eta izaten ziren gipuzkoarrak eta bizkaitarrak, eta batzuk Julian Gorosperen alde eta besteak Balentin Urionaren alde!

**–Beno, zuk bezeroen artean fauna handi samarra ezagutu duzu (euskaldunak, erdaldunak, langileak, politikoak, barra gainean "pipak" uzten zituztenak...), eta bertsolariak zuretzako bereziak izan dira? Nolakoak izan dira? Ezberdinak?**

–Ezberdinak bai! Ez dakit hobeagoak edo txarragoak. Denetik pasatu da handik sindikalistak ESK, LAB, ELAkoak, greban zeudenean Areitiokoak eta Ofesakoak eta... auzo elkarteak, ikasle abertzaleak, Egunkariakoak, ez dakit zenbat! Baina niretzat bertsolariak ziren kuttunenak.

**–Eta jan eta edanerako?**

–Ba jana: patatak txorizoarekin eta solomoa edo txipiroiak eta ardaua! Beno, Rikardok ura!

**–Eta zuk kantuan egin al duzu inoiz?**

–Batzuetan bai, baina txarto, nirekin sartzen ziren eta orduan noiz edo noiz botatzen nuen, baina ondo ez, ardoz beteta... Zuk baino txartoago! Kar, kar, kar!

**–Beno, beno... Patxi Aizpuruak libururako idatzi du hiztegi txiki bat, Txusta tabernako hiztegi txikia, eta han "J" letran agertzen zara zu, ea ados zauden idatzi duenarekin?**

**«Jose Agustin Iriondo. Hori da bere grazia, baina Gasteizen denek Txusta deitzen diote. Euskaltzale eta Athletic-zale amorratua». E! E! E! Athletic bai, baina gero, lehenengoa Erreala!!! A! bai! Beno segiko dut!**

**«Barratik kanpo edo barruan, beti purua eskuan. Lagun arteko gizona eta tabernan sartzen zen fauna txikia ondo gobernatzen zekiena. Gure afarietan, barrako lanak uzten bazion behintzat, ez zuen hutsik egiten kafe garaian eta bertsolarien musa izan ohi zen ia beti puska batean.**

**Tabernatik kanpo bertsolari xelebrearen saria ere eman zuen zenbait urtetan Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama bertso sarian».**

–Beste guztiarekin ados! Galdera asko geratzen da?

**–Ez, ez lasai! Ze, nekatuta ja ala? Bizpahiru eta kitto!**

**Orain kendu dugu "xelebre saria" (Txusta saria), Arabako txapelketa serioagoa dela...**

–Ni prest nago eee! Laguntzeko prest, saria ematen eta nahi duzuena.

**–Txusta, guk beti ezagutu zaitugu purua ahoan, igual Egañak zuri kopiatuko zizun hori?**

–Bai! Ni zaharragoa naiz!

**–Eta zuri kopiatu dizu? Nik katxondeoan galdetu dizut!**

–Bai, bai!

**–Orduan idatziko dut? Noiz hasi zinen?**

–18 urterekin hasi nintzen puruak erretzen, eskolatik irten eta Alavesek fitxatu ninduen eta orduan hasi nintzen ardaua edaten eta txokorrak erretzen.

**–Alavesek fitxatu? Eta zein postutan jokatzen zenuen?**

–Defensa zentral!

**–Ze, egurra ematen?**

–Bai! Denak zigortzen eta egurra ematen, 5 urtez egon nintzen, "juveniles"-en hasi eta gero "regional B" eta "Segunda"-n!

**–"Segunda A" edo "B"?**

–"A"! Ni ospetsua nintzen! Barre ez egin, zu beti barrez zaude! Jende askok ez daki! Ni "Iriondo" nintzen alineazioetan, eta jendeak ez daki hori "Txusta" zenik, jendea ez da gogoratzen, ez nintzen izango oso ona!

**–Beno, eta zu aspaldi etorri zinen Gasteiza eta asko aldatu al da egoera, euskara eta bertsoak eta?**

–Bai, bai! Asko! Lehen entzun bez! Eta politika kontuak be… Lehen ezin zan ezta agur ere esan, orain jende gaztea eta seme-alabekin euskaraz eta nire garaian ezebez.

**–Beno, zurekin tabernan Bego emaztea eta zure ama ibili ziren urte askoan, ze hitz batzuk edo haiei buruz… nolako emakumeak izan dira? Amari bertsolariekin egotea gustatzen zitzaion, ezta?, hor entzuten eta…**

–Bai! Ama beti igotzen zen gora, pozik gainera, bertsolariekin!

Ba ez dakit zer esan... oso emakume onak biak... Ama hobea!!!

**–Kar, kar, kar! Baina Bego haserretuko da!**

–Alla Kuidaos! Jarri hori e, erderaz!: Alla Kuidaos!

**–Bueno eta zer moduz orain jubilatuta?**

–Jubilatuta nago baina ez, 65 urte egin arte, 3 falta zaizkit, "por la patilla" bizi behar! ez didate ordainduko!

Gero esan diot argazkia egin behar niola, eta berak ea non, eta nik bera erosoen zegoen tokian eta azkenean atzera, aurrera eta atera gara tabernatik, motorra ikusi eta horra joan da motor baten gainera! Ni beldurrez, ez bainuen motorra ikusten oso ondo finkatuta... Baina istripurik ez! (pena argazki hori ezin errebelatu izana)



Tabernara sartu gara beste txikito bat hartzeko eta han bere lagun batek kontatu du barruan egon zen bigarren aldian, nola antolatu zituzten txandak lagunen artean taberna ez ixteko. Txustak esan du bezero guztiak oso ondo portatu zirela, bi izan ezik.

Tabernatik ateratzean motorra ez zegoen, eskerrak jabea ez den pixka bat lehenago etorri! Driss koadrilako marokoar-euskaldunarekin elkartu gara eta Txusta harrituta geratu da «asko daki euskaraz!», «nik kanpotarrekin ez daukat beldurrik, batzuek esan didate horra zoaz bizitzera beltzekin eta?» (alde zaharrera joan da bizitzera orain 5-6 hilabete), «nik esaten diet nik kanpokoekin arazo gutxi, hemengo batzuk bai direla peligrosoak!».

Bere etxea erakutsi digu, oso etxe ederra da, tabernako eskultura bat eta beste gauzaren bat badauka, familiako argazkiak, seme-alabenak (Ainhoaren ezbeharra aipatu digu) eta hantxe utzi dugu Drissek eta nik, txokorra eta irribarrea ezpainetan!

## EUSKALDUNBERRIOK BERTSOTAN

Dudarik gabe, Arabako bertsolaritzan badaude bereizgarri bat baino gehiago, baina bat nabarmenik bada euskaldun berriek hartutako pisua izan da hori. 82an Arabako bi bertso eskolak osatu zirenean, batean eta bestean euskaldun berriak ziren nagusi, kopuruan behintzat. Euskaldun berri asko izan dira bertso eskolan sartu eta kantatzera heldu direnak, askok jarraitzen dute kantuan, beste batzuek gaur egun elkartea osatzen dute, epaile dira edo gai-jartzaile, antolatzaile, diruzain… eta batez ere beti izan garena: bertsozale.

Bitxia da bertsolaritzak euskaldun berri askorengan duen efektua. Jakina da hizkuntza ezin dela bere kulturatik bereizi, eta euskara ikasten dabilenarentzat bertsoa askotan da ikasketa-pastelaren ginda. Topaketa ederra eta erakargarria, “azken desafioa”! Bertso munduan murgildu eta ur horietan igeri egin ahal izatea… «Inoiz izango al naiz gauza bertso bat botatzeko afaritxo batean?»… Batzuek ezin izango duzue imajinatu zer utopia ederra den bat-bateko bertsoa euskaldun berri batentzat.

Xabi Rikok testu labur honetan bere baitatik ateratzen ditu oso modu ederrean beste askok izandako sentipenak. Zu ere euskaldun berria bazara, ez zaizu oso arraroa egingo, eta euskaldun “zaharragoak” zaretenontzako aukera polita duzue Euskal(dun) Herri-ra heldu berri baten begiez ikusteko.



## Ia ezerezetik mintzora, mintzotik bertsora

*Peli Presari,*
*Amurizari,*
*Abeli.*

Noizbait jaio ginen mundura poeta galiziar batek harrizko gau luze izendatu zuen hartan. Ume bizitza, poz, jolas eta negar artean pasa genuen.

Noiz ohartu ginen Muinohiriko kale-kantoietan, paisaietan, jendeetan, bazela ukatutako mintzo baten aztarna?

Agian institutu zaharreko hormetan euskal aditzen eskemak ikusita:

*"Verbo labortano: Derau-ku"*

Edo mendigoizaleen kaikuetan:

*"Zazpiak bat"*

Beharbada Santa Agedako kanta –guretzat kopla arrastorik ez zuena– entzunez:

*Aintzaldu daigun Agate Deuna*

*"Bier da ba Deun Agate"...*

Edo bi euskaldun berri zahar, Peli Presa eta Arroniz kalean hizketan entzunda.

Erakarri egin gintuen mintzoak. Ez dakigu oso ondo noiz eta nola, lanbroa ari zuen.

Zergatik hartu gintuen bere magalean? Nahi genuelako.

Eta astiro, totelka, gure mingainak dantzan hasi ziren. Tartean abiatzen ginen aborigenen lurretara, guretzat swahilia zena deszifratu eta gureganatu nahian. Nolabaiteko arrakastaz. Dabilen mingainari goroldiorik ez!

Ateoak ginen jadanik eta Erreparadoretako mezetara joaten ginen. Oharkabean zortziko txikian:

*«Hiltzaile bat bezala*
*preso naramate…»*

Noiz ohartu ginen mintzaira harekin jolas egin zitekeela? Kantu askoren atzean zegoenaz erabat ezjakinak ginen. Behin irakasle batek esan zigun bazeudela gure aborigenen artean analfabeto eta aldi berean izugarrizko ahozko kultura baten jabe ziren pertsonak. Noizbait harrizko gau luze hartako zirrikituetatik –Radio Nacionaleko euskarazko irratsaio batean– izan genuen bertsolarien berri, Muinohiriko etxeetako balkoietako gako hotzetan izarek gatzatutako bakailaoaren antza hartzen zuten garaian.

Bitartean aborigen hauetako batzuk iritsiak ziren Muinohirira. Edo Muinohiritzar deituko diogu? Izugarri zabaldua baitzen aurreko urteetan. Aborigen horien eta gure arteko hartu-emana sendotuz joan zen. Hartu eta eman. Euren mintzo ederra eta aberatsa hartu genuen, ahal bezainbeste. Guk izateko gogoa gogoratu genien, izan nahi genuelako, aborigenetako batzuei erakargarria baitzitzaien oso harrizko zapalgailuaren atzetik zetorren (ustezko) kultura bakarra.

Eta horretan ari ginela, bertsoen oihartzuna lanbro artean erdi galdurik, hara non hitzaren jolasaren erauntsi eder gozoak goitik behera busti gintuen:

*«Aita izenak kanta beharrak*
*jarri dit bihotza bero…»*

*«Gai honek badu mamia*
*baldin ez banago gor»*

*«Esan dudana gezurra bada*
*urka nazazue bertan»*

Areago urtebetera, gure hiriburu zaharreko Larraonako udako pasabide sargoritsuetan. Hura zen bertso eta kopla dantza goizetik gauera, eta goizaldera arte ere bai.

Erauntsia baino gehiago uholdea. Uholde gozoa. Eta bertan ere, guk gustura igeri egin nahi.

Horretan hasi ginen Muinohiritzarren, aspaldi arabartutako aborigen baten aginduetara. Denbora gutxian moldatu ginen bertso igeriketan. Eta ez bakarrik horretan. Laster

igoko ginen tranpolinera eta handik jauzi egin. Suizidak ote ginen? Bagenuen euskaltzale-bertsozaleen txalo gozoa jauziaren gogorra arintzeko prest.

Eta horrela, hitzaren, jolasaren eta Txustaren abaroan areagotu egin zen bertako eta bertakotuen arteko harremana. Zenbat hurbildu ziren gure ingurura? Ehunka batzuk bai, urteen poderioz. Erdia unibertsitate ikasle eta beste erdia euskara ikasle izatetik euskaldun normal izatera pasatu nahi zuena. Hartu-eman ederra, elkarren aberasgarri. Beraz, indigenek ere, gugana etorrita, deskubritu zuten beren bertso igeriketarako trebetasuna, eta baten batzuk hor dabiltza geroztik, askotan ala gutxiagotan, tranpolinez tranpolin.

Harreman horren ondorioz, ostegunetan igeriketatik errugbira aldatu ginen. Bertso-mele ederrak antolatzen genituen Zapatari kaleko tabernazuloetatik barrena rock gogorraren obusetatik babestu nahian. Sarritan bertsoeskolatu gabeko aborigenekin ere erronkan.

Gaur egun Muinohirian lehen ukatutako mintzaira zena, hitzaren jolasa ere bada hainbatentzat. Muinotik begipean dugun lautadara eta haratago zabaldu zaigu jolasa. Bertan igerian, lehengo unibertsitario eta euskaldungaiez gain, ume, gazte eta euskaldun arruntak daude. Uretatik tranpolinetara etengabeko zurrunbiloan.

Gure artean bertso gozamena ez da lehen bezain ustekabekoa. Hasierako erauntsia orain langarra da, eta horregatik ere, jende gehiago –kantari edo entzule– blaitzen duen jolasa.

Horregatik, gaur zorionez, ez gara jada ur tanta bakar erdararen itsasoan, aspaldi ari baitu bertso-euria, goxo-goxo gure muino-lautadetan. Gustura gabiltza igerian eta elkartasunezko meleetan, gure artean eta gure mintzairakideekin batera, hitzaren jolasaren erretenean etorkizuneko bertso-lurrak ureztatuz.

## zein gogorra den gasteizko euskaldun berria izatea...

Gogoz eta ilusioz egiten denean, euskalduntzea gauza ederra da, Xabi Rikok ederki transmititu duen bezala. Deskubrimendua, harridura, ikasketa, ezagutza eta azkenik euskalduna izatea. Egun batean konturatzen zara euskalduna izan nahi duzula, euskaraz egin eta bizi nahi duzula, bilatuko duzula hori eta izan izango zarela Gasteizen, edo Amurrion, edo Barakaldon, Tafallan, Baionan… Hamaika “euskal” lekutan ibili eta gero, zurea ere izan behar dela “euskal”.

Zorionez zure aurretik, batera eta zure ondoren ere beste batzuek erabaki bera hartu, hartzen eta hartuko dute eta honela “erdal guneetan” gaur egun euskal komunitate txikiak daude. Akaso ezezagun gauzkana harrituko da esaten badiogu gure eguneroko bizitza gehiena euskaraz egiten dugula. Periferian bizi gara, eta euskal munduaren hiriburuak urrun daude: erakunde, egunkari, euskara-elkarte, herri mugimendu eta abarren egoitza, kudeatze-zentro eta erabaki-guneak.

Hala ere, periferiak izaten du periferiaren xarma erdian dauden askorentzat. Periferia frontearen lehen lerroa delako, euskaraz hitz egite hutsa borroka egitea delako. Baina ezta periferia guztiak ere, ez dira berdin. Badaude exotikoagoak direnak, erakargarriagoak direnak, maitatuagoak… Esango nuke Gasteiz askorentzat ez dela izugarri erakargarria, zazpigarren alabaren kontuak izango dira… eta Araba? Zazpigarren alabaren alaba, lehenik eta behin gasteiztarrontzat ere ezezagun askotan, eta hortik atera kontuak…

Bakarrizketa hau egin nuen Gasteizko bertso eskolaren 20. urteurreneko festan eta liburuan sartzeko eskatu zidaten, beraz… Gasteizen, Araban eta EH osoan euskalduntzen ari direnentzako: Animo! Eta nahi baduzue bertso-eskolan elkartuko gara!

zein gogorra den gasteizko euskaldun berria izatea…

gabon denori! bueno monologo edo bakarrizketa hau euskara ikasten ari direnak animatzeko egin nuen. ironia pixka batekin, nire esperientzia eta eskarmentua kontatzen dizuet, ikasten jarraitzeko animatzeko, merezi duelako eta ederra delako. gasteizen eta araba osoan asko gara euskaldun berritu garenok, eta haietako batzuk bertsolari egiteraino! ni baino askoz lehenago hasi zineten: iosu, ion, emiliano, serapio, xabi, rikardo, beitto, karmele, amaia, dani… justu-justu euskara ikasi, bueno sekula ez da bukatzen hori, eta bertso eskolarako jauzia eman zenutenok. orain ikasten ari zaretenontzat eta lehen ikasi duzuen guztiontzat, gure eredua zaretelako eta erakutsi zenigutelako posible dela hori, doa nire monologo hau: zein gogorra den gasteizko euskaldun berria izatea! a! hasi baino lehen esan nahi dizuet, hemengo kontu guztiak ez zaizkidala neri pasatu, gertatu gertatu dira baina ez guztiak neri! badaezpada…

beno ni ruben rolando naiz, eta hau egia da, hau behintzat bai. zaragozan jaiotako gasteizko euskaldun berria, hau da, orain euskalduna naiz, baina lehen ez nintzen. orain oso pozik nago, gero eta euskaldun berri zaharragoa naizelako, baina bidea ez da hain erreza izan, ez pentsa! batzutan pozik egon naiz, baina beste batzutan, triste eta etsita egon naiz. orain ere dena ez da poza eta zoriona, zeren eta euskal hiztun moduan euskal munduak bizi dituen arazoak eta erasoak nireak ere badirelako zuzen-zuzenean, eta gainera oraindik ere euskal herrian gasteizko edo arabako euskaldun berria izateak batzutan bitxi, beste batzutan arraro eta beste batzutan ia-ia laborategiko sagu sentiarazten nauelako. oraindik ere, nire hizkera etengabe berranalizatzen dut ea akatsen bat egin dudan, nire euskaldunberritasuna dela eta, ze klaro bat ez da euskaldun berri jaiotzen mundura, bestela euskaldun zaharra izango litzateke-ta, baina behin euskaldun berri eginezkero, betiko izango zara euskaldun berria, ta zure akatsak horren lekuko izango dira… euskaldun zaharrek, ordea, euskaldun berrion belarrietan, ez dute akatsik egiten, euskaldun berriak ez direlako, eta nahiz eta erdaldun zaharrek noizean behin akatsen bat egin, (nik esaterako akats pila bat eiten dut gaztelaniaz), ba… euskaldun zaharrak arraza aparta dira eta horregatik ez dute akatsik egiten, akaso rh-ren kontuak izango dira, ez dakit ba!

baina bueno, utzi ditzagun kontu txatxu horiek alde batera eta goazen harira, gaur azalduko dizuet zein izan den nire euskalduntze ta alfabetatze prozesua: Euskalduntze Ta Alfabetatze, beraz… nire ETA prozesua… ui!… baia, berriro ere entornoan sartzen! ba ez pentsa baina askorentzat euskalduntze ta alfabetatze prozesua burutzea eta euskaldun oso moduan bizitzea ETA prozesua burutzea da, beraz, ilegalizatua izateko boleto asko, beraz, badaezpadan, ordena aldatuko diegu faktoreei, emaitza ez omen da aldatzen halakoetan, eta euskalduntze ta alfabetatze prozesuari alfabetatze ta euskalduntze prozesua deituko diogu, Alfabetatze Ta Euskalduntze, ATE prozesua! ATE, atea irekitzen diolako, euskaltasunetik, beste kosmobisio bati, zein polita… eta arazo gutxiago!

eta nola hasi nintzen ni ATE hori irekitzen? bada, ni orain pixkat txoriburua banaiz, hori hemengo askok badakite, ba lehen orain naizena baino askozaz ere txoriburuagoa nintzen, bai, bai, nire iparra oso gauza mugikorra zen, nolabait esateko, baina tira ipar horien artean euskal munduak ere erakartzen ninduen, eta halako baten eman nuen euskaltegirako urratsa, lehenengo urratsera! beraz, nolabait, aitor dezadan, euskaltegira jakinmin pixkatekin eta batez ere ondo pasatzeko asmoarekin hurbildu nintzen…

lehenengo urratsa! lehenengo urratsera joan eta mingaina euskaraz askatu baino lehenago gorputza askatu behar omen genuen, ni hasieran pixka bat lotsati, baina gero pozik, je, je, baloia elkarri pasatu izenak ikasteko, gero korapiloen jolasa, poteoak, afariak, aiiii… ni segituan maitemindu nintzen nire irakaslearekin, erreflexu erantzun baten moduan, eta oso ondo pasatzen nuen klasera joate hutsarekin, burua eskuan jarri eta ala! euskal paisaia ikustera! ze politta den euskal herria! eta jakina nire irakaslea konkistatzeko asko ikasten saiatzen nintzen, je, je… bera nigan fijatzeko! metodologia komunikatiboak ere asko lagundu ninduen, ez dakizue zer den metodologia komunikatiboa, bueno hori da Aek-ko bonbazo pedagogikoa, ba lehenengo egunetik eta ia bate jakin gabe, ja hitz egin behar da euskaraz, nola? hori gero esaten dizute pixkanaka, pixkanaka, baina hitz egin… euskaraz! ba, behin gogoratzen naiz, bueno ni leku guztietara berandu joaten naiz, baina euskaltegira batzutan garaiz, eta beste batzutan orduan izan baino leno ere iristen nintzen nire bihotzeko irakasle koxkorrarekin ia topatzen nintzen bakarrik egoteko ta hori… ta behin ba holaxe pasiloan topau ta galdetu zidan (metodologia komunikatiboa bakizue…) «ze, ze moduz zaude, ruben?» ta ni: «oso ondooooo… zaude?», eta berak esan zidan «ez, ez, oso ondo na-nago» (bere paparrean kolpeka) ta nik «bai, bai oso ondo za-zaude» (berari seinalatzen)… berak konplizitatezko begirada bat bota zidan, eta ni irriparra ezpainetan, komunikazioa! argi zegoen euskara ikasi behar nuen, azkar gainera, baina ezta hain erraza, aizue!

aditzekin arazo pila bat izan nuen ea nor edo nork, edo nor-nork, edo nor-nori, nor-nori-nork, edo zer den, gero ergatibo hori, auskalo nondik atera dutena zuek ezagutzen al duzue beste hizkuntzarik inguruan ergatibo hori duenik? Ni naiz, ondo eta ni dut, gaizki, kaguen… ta komunztadura, plurala edo singularra, lehenaldia, orainaldia, geroaldia, aisialdia, oporraldia, txortaldia, erderakadak, konpletiboak, baldintzak, menpeko perpausak, erlatibozkoak, zehar galderak, akats fosilizatuak… buruko mina, etsipena, depresioa,

mozkorra, afaria… eznaiz, banaiz, baina zergatik ez ninduten sartu ikastola batera…. nik ez daukat errurik! buahhh! snif! snif!

baina erabakia hartua nuen eta ni oso pertsona burugogorra naiz, akaso nire napar arbasoengaittik izango da… orduan urrats erbakiorra hartu nuen, barnetegira joan behar nuen, euskaldun horiek ezagutu nahi nituen beren jatorrizko ekosisteman, ea nolakoa zen euskal mundu hori… orduan ezagutuko zuten bai ruben rolando! ja!; lehendabizikoan gipuzkoa aldera joan nintzen, portziero ikusi duzue kutxidazu bidea ixabel? Ba antzerako parezido! bertara heldu eta topau nuen lehenengo txapeldun indigenari galdetu nion, aizu barkatu non dago barnetegia? «bai moteill hartzak zurutegirako bidie ta ezkerreta batziok albergie, bai, junai zuzen-zuzen ta bertantziok, ze euskea ikastea ala?» ba-ba-bai, oraindik ere gogoratzen naiz, nola euskara eta txinera mandarinaren arteko ahaidetasun genetikoa frogatutzat eman nuen. hola bapatean topatu nintzen "hitano" demonio horrekin, beno lehenago aditz tauletan ta hola agertua zen "hi haiz", "hik dun… edo duk!", ta halako baten "junai, banitxik, banatxatorrek, zizkinat" baina «de ke van» pentsatu nuen, alperrik egon naiz aditz taula ikasten? kaben zotz! ez al dakite "dut" eta "naiz" esaten jende zibilizatuaren moduan?

bueno! bestalde barnetegian oso ondo, batez ere, ainhoa zegoelako, zein polita den udan barnetegia bi ikasle musukatzen… euskara eta maitasuna erlazionatu nituen behin betiko, osea, ez pentsa bakarrik horregatik ikasten nuenik, baina argi dago sentipen goxo horrek laguntzen zuena. parrandaren batean lehenengo gerturatze saioak, lehenengo musua… mmm. onena musukatzea zen, baiiiiihhh, ez bakarrik musu bat berez polita delako, baina pentsa 3. urratsean ainhoari eta biori euskaraz egitea oraindik ere nahiko kostatzen zitzaigun, eta musukatzen ginen bitartean ez genuen hitz egiten, gainera ze arraio! musu batek mila hitzek baino gehiago balio du, nahiz eta hitzak euskaraz bota!

hala ere esan behar dut den-dena etzela poza eta zoriona izan barnetegi hartan, aborigenekin harreman guztiak etziren horren errezak izan, laster konturatu ginen aborigen guztiak etzirela gure irakasleak bezalakoak, batzuek tontotzat hartzen gintuzten, batzuek gu ikusi eta ia-ia ihesean ateratzen ziren, beste batzuek azkar-azkar hitz egiten zuten ta guk ez genien ulertzen, eta esaten bazenuen «zer?» edo «ez dut ulertu!», ba altuago errepikatu bai, baina berdin-berdin azkar ta hitzak jaten! ta gero paso egiten zuten ulertzen ez genielako… baina bueno konplexu eta lotsa horiek hurrengo barnetegian pasatu zitzaizkidan.

eta pasatu zitzaizkidan baaa… aborigen batekin ligatu nuelako! bizkaiko aborigen batekin, leirerekin, ze hurrengo barnetegira bizkaiko herri batera joan ginen, bueno hori euskaldun berri batentzat la hostia da, euskaldunzahar batekin ligatzea! buahh! portzierto, nik pentsatzen nuen gipuzkoa aldeko txinera mandarinari gailentzea zaila izango zela, baina hangoa arabiera klasikotik oso gertu zegoen, hitanorik ez, beno zaharrek bai, baina horiena ja katxondeo hutsa zen, ni aurrekoan bezala iritsi nintzen herrira, baina euskaraz urte oso bateko ustezko aurrerapenaz, ta nire esaldi faboritoa bota nion hango kaiku atsegin bati, «aizu, barkatu, non dago barnetegia?» erantzuna holako zerbait «barnetegixe, hortixe yun biosu maestruk bart etorri zitzen, dena preparau biebela-ta, ze gustetan yatzu

euskeri? ba hamen berbaingotzu asko, trankil» trankil! bai, bai oso lasai, ala majo gero arte, kaguen la ostribiri! eskerrak leku guztietan eskuak berdin erabiltzen diren ezkerretara zuzen eta eskuin adierazteko, bestela galduta nengoen berriro... kaben dio! pentsatu nuen, baina de keban? hurrengoan etorriko naiz eta hurbiltzen zaidan lehenengo morroiari zera esan behar diot «buenos días simpático paleto, me podría indicar dónde está el barnetegi, por favor?» ala ke se jodan! ze ondo eee!!! eske ematen du zure zain daudela hor herriko sarreran, lehenengo parreak botatzen hasteko!

en fin, beno baina lehen esan dut, ba aborigen batekin ligatu nuela, ezta? ba parranda baten izan zen hori, txosnetan, a portzierto! zuek ez dakizue baina bi baldintza daude Aekko barnetegia egiteko, lehena ofiziala da barnetegia dagoen herrian %80 edo euskalduna izatea ta 2.a, lehenengoa bezain garrantzitsua edo gehiago! ba herrian bertan edo oso gertuko herriren batean jaiak izatea, hau benetan da, barnetegi guztiek bete behar dituzte baldintza horiek, bestela ea nola esplikatzen diezun ikasleei ez dagola parranda botatzeko modurik inguruan... bueno ba leirerekin txosnetan eskatzen topatu nintzen, ni barrara hurbildu nintzen botea neraman eta euskaldunberri guztiok egiten dugun bezala barrarako bidean esaldia ondo pentsatuz, behintzat lehenengoan hanka ez sartzeko ta holaxe eskatu nion txosnakoari «aizu, barkatu, katxi bat gargardo eta bi kalimotxo jar diezaizk-diezakik-ahal dizkidazu mesedez?» zuzen ezta? ondo ez? ba nik eztakit zertan baina igerri egin zidan euskaldun berria nintzela, eta hor hasi ginen hitz egiten, ta asko pozten zela gasteizen eta halako lekuetan euskara ikasten genuelako, eta meritu handia geneukala euskaldun berriok, eta holakoak esaten zizkidan eta ni barruan ezin kabitu nengoen bai horixe! guk arrazoi, gora euskaldun berriok, gora euskara mordoiloa, euskañola ala hil!... asko hitz egin genuen gau horretan eta berak esan zidan hurrengo baten geratzeko, niretzat hori guztia berria zen ta txundituta nengoen, halako harrotasun bat eman zidan, lehen guztia zen lotsa, beldurra, koldarkeria eta joño konturatu nintzen oso erreza zela euskaldun zaharra izatea eta oso zaila euskaldunberria izatea. bestalde leirerekin erabat txoratu nintzen, berak gidatzen ninduen haseratik, berak hartu zuen iniziatiba hurrengoan geratzeko, lehenengo musua emateko, eskua leku izkutuetatik sartzeko, eta naturaltasunez egiten zuen, ta hori ere ikaragarri gustatzen zitzaidan, azken egunean biok egon ginen eztakit zenbat orduz itsasoari begira, kresala azalean, eta nigaitik holaxe joan balira egun bat, eta beste bat, eta beste bat... ba ni pozik... baina bizitza ezta hain erreza, aizue. denak omen du hasiera eta bukaera ta...

baina beno nik jarraitu egin nuen nire bidean, euskalduntze ta alfabetatzen eta nafarroan eta lapurdin ere egon nintzen eta pixkana pixkana konturatu nintzen eh-a oro har, hola modu abstraktuan hartuta, oso injustua zela arabarrokin eta gasteiztarrokin, zazpigarren alaba izateaz gain, beraz azkena, ba gainera beti zatarrena ere geu, klaro gipuzkoa, gipuzkoa da aizu, erdian daude gainera! eta bizkaia ere bizkaia maite, iparraldea oro har eta xiberua bereziki oso bukolikoak eta beste aldea direnez eta hori guztia ba beti jakinmin bat errespetu bat pizten digute, eta nafarroa... nafarroa ama da aizu! erreinu zaharra, baldorbak, erribehera... benito lertxundik esaterako guzti hoiei kantatzen die, eta araba zer, arabarroi nork kantatzen digu?... Gorka Knör-k! ala izorrai, eztakit zenbat kantari euskal

herrian zehar, eztakit zenbat afalosteko kanta, eta guri nor tokatuko eta Gorka Knor? nork kantatzen du afari batean horrelako abestirik «o trebiño! eta zu ote zaren aitaren zazpigarren alaba?»… gainera, bere erruz “zazpigarren alaba” konplexuak izen hori ere hartu zuen, gu azkenak, beti azkenak. araba eta gasteiz euskaldun askorentzat nazkagarriak dira, gaztela, etorkinez beteak, eta españari utzita ez luke asko inportako, ez dago ia euskaldunik, militante gutxi… olentzero zer den ere ez dakigu, kaka! zorte txarra izan dugu lagunok, zorte txarra! zergatik ez ginen jaioko azpeitin, edo bermion, edo saran, garazin, donapaleun, tuteran sikira! ez, ala gasteizen! bo eta arabako herri baten jaio bazara, ezin duzu ezta izena esan, ze inork ez du ezta entzunda ere izango!

beno, dena den, esan behar dut konplexu guztiak gaindituta eta nire izaera zein den ondo barneratuta, polita ala itsusia, onerako edo txarrerako, gasteiztarra, arabarra eta euskalduna, azkenean ATE prozesua, hau da, alfabetatze eta euskalduntzea bukatu-edo egin nuen, hau da, EGA demonio hori euskaltzaindiaren arau, gomendio eta kaguendio guztien gainetik atera egin nuen! etxera joan nintzen eta amari esan nion: «mira ama, el ega!» a ze ilusioa! semeaz horren harro gutxitan ikusi dut! baina, gero, beldur ikaragarri bat sartu zitzaidan, eta orain zer? ezin naiz euskaltegira joan, barnetegietara joan, zer egingo dut? non hitz egingo dut euskaraz, eta afariak, mozkorrak, gaupasak, ligeak…? nire bizitza sozial guztia pikutara! depresio ilun batean sartu nintzen, ia ez nintzen etxetik ateratzen, ez nuen apenas jaten, nik jaten dudanarekin! euskara ahaztu nahi nuen berriz ikasi ahal izateko pufff… baina bapatean, halako batean, argia ikusi nuen, tunel luzean irtenbidea, bururatu zitzaidan… «irakasle sartuko naiz!»,

tira azkenerako guzti horrekin erabat engantxatuta nengoenez, ze erremedio! ez pentsa eee! ez da gauza berdina ikaslea eta irakaslea izatea, ikasleek ordaindu egiten dute eta irakasleek kobratu! baina beno, gaitzerdi! eta ba orain halaxe naiz Aek-ko irakasle! eta gaur egun ba beste euskaldun berri batzuei alfabetatze ta euskalduntze horren ATEa irekitzen laguntzen diet!

eta zertan ukatu, irakasle moduan ere mozkortu eta… batzuetan, gutxitan bada ere… ligatu leike!

beraz badakizue, ez dakizuenok apuntau ikastera eta dakizuenok erabili! animo!

## 1984-KO TXAPELKETA

Pixka bat ikasi dugu noiz eta nola sortu ziren lehenengo bi bertso eskolak Araban... Dena gogo, ilusio eta nahia. Abel ere ez zen giro baikor horretatik kanpo geratu. 84ko txapelketa gogoratzean oroitzapen gazi-gozoak ditu, bera izan baitzen bere ikasleak animatu eta bultzatu zituena kantatzera, eta akaso berdeegi zeuden bere fruituak...

Bi urte ere ez ziren paseak bertso-eskolan hasi zirela, eta bat-batean: Arabako Txapelketa! Gasteiz irratiko 50. urteurrena zela eta hura ere aitzakia ona izan zen. Baina gogorra da oholtza gainera igotzea, txapelketa horrek markatu zuen ondorengo urteetako ildoa. 6 urte pasa ziren Arabako hurrengo txapelketa jokatzeko, izenez eta izanez apalxeagoa: "San Prudentzio-Estibalizko Ama" bertso sariketa.

Baina zer sentipen izan ziren 84an, zer giro, zer beldur... bi partaiderekin mintzatu gara honetaz guztiaz: Rikardo Gonzalez de Durana garai horretatik, Serapiorekin batera, jendaurrean kantuan jarraitzen duen bertsolari bakarra eta txapelketako txapelduna: Juan Isasi "Txinotxu".



## 1984ko hamasei aitzindari ausartak

Gogoan izango duzu, irakurle, Abelen atalean 84ko txapelketa gogoratzean "halako gazi-gozoak" berpizten dizkiola, «hartutako erabakiaren arantza oso latza» gertatu zitzaiola, damutzen zaiola. Tira! Eginak egin, parte hartzailetako askorekin mintzatu eta gero, gehienek irribarretxo batekin gogoratzen dute. Azkenean haiek ere izan baitziren konplize. Baina nola bururatu zitzaien?

Abel Enbeita izan zen urte eta erdi lehenago, 1982an, sortu berria zen bertso eskolan hasitako bi kideri txapelketa antolatzea proposatu ziena. Garai hartako giroa «aparta» zen eta «ongi pasatu nahia askoz errotuagoa» zela onartzen du. Giro on horrek bultzatuta piztu zitzaion Abeli «zerbait garrantzitsua egitearen kirkirra» eta une haiek bizi zituztenek gogoratzen duten moduan, ezustean harrapatu zituen ideia hark eta zalantzak eta beldurrak nagusituz joan ziren.

Abelek, gerora, beldur horiek "normaltzat" jo zituen, plazaratu gabeak baitziren lehen txapelketaren erronkari eutsi behar ziotenak, eta txapelketa hitza ez da txantxetakoa. Beldur guztien gainetik, baina, hamasei lagunek eman zuten lehen aurrerapausoa eta Abelek berak badu uste sendo bat: beragatik egin zutenaren ustea. Beragatik, beldurrak eragiten duen erakargarritasunagatik eta ziurrenik euren buruei "proba handi bat" jartzeagatik; kontuak kontu, aniztasun handiko taldea osatu zuten hamasei lagunek. Adin guztietakoak, euskaldun zahar eta berriak eta, denen artean, Abel Enbeitak kariño handiz gogoratzen duen bezala, «Txapelketa ofizial batean inoiz plazaratuko zen lehen emakumezkoa, Amaia Otsoa».

Hamasei lagunek erakutsitako ausardia ezinbestekoa izan baldin bazen, Abelen ustez erronkari eusteko funtsezkoak ziren bestelako osagaiak ere eskura izan zituzten. Era berezian gogoratzen duten lehen txapelketa horren inguruan bildutakoek urte horretan Gasteiz Irratiak 50 urte bete zituela eta hedabide horren erabateko laguntza eduki zutela. Horrekin batera, garai hartan Martin Ugaldek zuzentzen zuen Eusko Jaurlaritzako kultura sailak dirua jarri zuen mahai gainean. «Beharrezko osagai denak prest ziren: bertsolariak, babesa eta laguntza».

Amurrio eta Aramaio izan ziren estreinako txapelketaren finalaurrekoak jokatzeko aukeratutako herriak, eta ekainaren 10ean izan beharreko finalerako, berriz, egun zinema aretoak hartzen dituen Gasteizko Florida Antzokia.

Saioen mailari dagokionez, «denetarik» egon zela oroitzen du Abelek, «plazarako ohitura falta eta bertso mailaren mugak agerian utziz». Floridako finalari dagokionez, berriz, esker ona agertzen du, hurbildutako publikoa gogoratzean. «Bai kopuruz eta batez ere bertsolarien zailtasunak ulertuz, publikoak izan zuen adeitasuna benetan paregabea izan zen».

Finalaren saioa "luze samarra" suertatu zela aitortzen du Abelek. Juan Isasi "Txinotxuk" jantzi zuen lehenaren txapela eta Xabier Ormaetxea, "Txerren" geratu zen bigarren. Hala eta guztiz ere, «den-denek gainditu zuten merezi gabe jarritako azterketa hura».

"Hamasei aitzindari ausartak" izan ziren oparoa izaten ari den historia baten lehen urratsak eman zituztenak, baina gerora, asko dira bertsolaritzara hurbildu diren arabarrak, ikasteko asmoz, plazaratzeko asmoz eta lehiatzeko asmoz. Abelek gogoratzen duenez, finalaren ostean ehun lagun inguru bildu ziren bazkari baten karian eta han bai kirioak askatu eta «lasaitasunaren eraginez bertso ederrik entzuteko parada izan zen».

«Esperientzia gogorra». Baieztapen hori behin eta berriz entzuten da 1984ko txapelketa hura gogoratzean, baina hark jarri zituen gerorako sustraiak. 1990ean ekin zioten Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama Sariketa antolatzeari, 2002an Arabako Txapelketa ofiziala berriz ere ate joka etorri arte.

## Rikardo Gonzalez de Durana Alzola (Arabako lehenengo bertsolari txapelketako partaidea)

### Zergatik erabaki zen lehenengo txapelketa egitea?

Oraindik ere ez daukat oso argi zergatik hartu genuen horrelako erabakia, baina 1982an bertsolari eskola sortu genuenetik urtebete edo urte eta erdi igaroa zenean bertso idatzietatik bat-batekotasunerako jauzia emana genuen, eta giro horretan gure irakaslea zen Abel Enbeitak Arabako bertsolari txapelketa egiteko proposamena, edo zehatzago esateko, erronka mahai gainean jarri zigun. Gu, hasieran, zur eta lur gelditu ginen. Hasteko, guretzat "bertsolari" hitza bera oso potoloa bazen, Abelek erantsi nahi zion "txapelketa" hitzak are astunagoa egiten zuen. Beraz, ez zen ez txantxetakoa ezta harritzekoa ere izan bi hitz horiek esaldi berean eta elkarren osagarri entzunda, gu, zerbait izatekotan, gehienez ere, sasi-bertsolariak ginenok, hasieran, beldurrez, uzkur eta zalantzakor agertu izana. Azkenean, ordea, esaera zaharrak dioen bezala, ezjakina ausartegia da, eta Abelen erronkari eutsiz txapelketa gauzatzea erabaki genuen.

### Zergatik?

Batek daki! Beharbada gure ausarkeriak eraginda, agian, geure buruak probatzeagatik. Dena dela, argi dago egin genuena behar zen bezala hausnartu gabe egin genuela.

### Zer giro sortu zen txapelketaren inguruan?

Ez zen giro berezirik sortu, Gasteizko Herri Irratian elkarrizketaren bat egin ziguten eta guk, maiztasun handiagoz, baina betikoa egiten jarraitu genuen, hau da, "Txusta" ta-

bernan bildu eta “bertsotan jardun”, txapelketa gauzatuko bazen, prestatu beharra baitzegoen.

**Zein helburu irudikatu zenuten txapelketarekin?**

Behin txapelketa egiteko erabakia hartuta, geure helbururik behinena ez zen orduko bertsolari handien maila ematea izan, lehen aipatu dudan bezalaxe, orduan gu, bertsolariak izatetik oso urrun baikeunden, eta bagenekien zerbait eginda ere, haien maila ematetik oso urrun geldituko ginela. Beraz, orduko gure xedeak, Araban ezerezetik piztu berria genuen bertsolaritza, eta berarekin batera euskara eta euskal kultura indartu eta zabaltzea izan ziren. Hau esanda, ez dut esan nahi ahalik ondoen egitera joan ez ginenik, ahal genuena egitera joan ginen, noski, baina orduan gure ahalak txikiegiak ziren.

**Zer nolako erantzuna eta oihartzuna izan zuen txapelketak?**

1984ko txapelketan bi finalaurreko egin genituen. Lehena, Amurrion eta Aramaion bigarrena. Finala, berriz, Gasteizen. Aipatutako finalaurrekoetan epaimahaia osatzen zutenez gain, inor gutxi eduki genuen entzule. Azken saioan, ordea, entzule kopuruak gora egin zuen. Batez ere, Bizkaia eta Gipuzkoatik etorritakoak ziren. Haien arteko batzuk bertsotan adituak ziren, beste batzuk arituak eta ari zirenak, bertsolariak, noski, eta besteak bertsozale arruntak. Guztira ez dakit zenbat entzule eduki genuen, baina oso giro atsegina zegoen: euskalduna, beroa, lagunartekoa eta bihotzez eskertu beharrekoa. Beraz, lerro hauen bidez ere orduan entzule eduki genituen guztiei eskerrik anaikorrenak eman nahi dizkiet.

**Nola oroitzen duzue?**

Nik daukadan oroitzapenak bi alderdi dauka. Bata oso mikatza bada ere, bestea guztiz pozgarria da:

Mikatza, guztiontzat jende aurrean kantatzea oso gogorra izan bazen ere, bereziki Arabako bertsolaritzari ekarpen handia egin ziezaioketen lagun batzuek jasan zuten tratu txarraren ondorioz jende aurrean kantatzeari utzi ziotelako. Bakarrak izan ez baziren ere, horien artean Jon Isasi “Txinotxu” eta Francisco Javier Ormaetxea Lasaga “Txerren” txapelketa hartako txapelduna eta txapeldunordea zeuden. Eta oraindik ere argi daukat hori galera handia izan zela.

Pozgarria, Araban ere bertsolaritzaren gurdia martxan jarri genuelako. Egia da gure bertsoen gurdiak abiadura motela zeramala, eta gainera solorik solo zebilela, baina ttirriki-ttarraka aurrera zihoan. Ez zen asko, baina ez zen gutxi. Zorionez behinola ekinaren ekinez Arabako bertsolaritzaren gurdia gurdibidera sartzea lortu genuen. Geroztik ez da

bere bidetik atera eta ateratzen denean errepidera sartzeko izango da. Agian noizbait autopistan ere ikusiko dugu. Hala bedi!

**Lagunartea ala lehia izan zen 1984ko hura?**

Gurea lagunartea zenez gero, ordukoa lagunarteko txapelketa izan zela esan beharra dago. Bide batez, txapelketa hartako bi lagun, bi adiskide gogoratu nahi ditut. Bat, txapelketa bukatu eta handik gutxira zendu zena da. Bestea, joan den urteko gabon gauean zendua. Biak bertsozale jatorrak: Manu "Zaharra" eta Martin Mimentza zirenak dira beti gogoan izango ditudan adiskide eta lagunak. Goian beude.

## Arabako lehen bertsolari txapelketa

*Arabako txapelketa*
*historiari erpeka*
*hamasei lagun aurkeztu dira*
*nerbioz beteta*
*lehen urratsak erreta*
*mikrofonoai topeka*
*Arabak ere badu gerorik*
*hasi dira eta*

*Denak plazagizon berri*
*zutik justu ta elbarri*
*nola pasatu zuen galdetu*
*bestela XABERRI*
*jendeai begira jarri*
*zer esango ote larri*
*bizarra frango baina bertsoak*
*barnetikan irri.*

*JUANJO txuri ta serio*
*belarriaz ezin fio...*
*okotz luzeaz gora begira*
*erne SERAPIO*
*badute nahiko genio*
*ta etorriak dario*
*sufritzen ondo ikasi dute*
*bertsoak medio.*

*Gelditu ezinik JUAN MARI*
*goizetik dator kantari*
*Goiko Ganera jira eginez*
*tragoa urari*
*"uju" batzuek dantzari*
*eztarriz justu da ari*
*ile askorik ez dauka baina*
*meritu ugari.*

*Itxura onaren zori*
*ukatu ezina hori*
*mutil ederra daukagu JOSU*
*zabal eta lodi*
*hainbeste mikrofonori*
*kontatuz zenbait histori*
*hala ikusiz dardar dagola*
*nork esan inori.*

*Nahiz eta errenka, horra,*
*argala baina gogorra*
*albo alboka badabil ere*
*ez da ez mozkorra*
*XABIER dugu altxorra*
*bertsoen lagun jatorra*
*goibel bagara mugitzen gaitun*
*humore motorra.*

*Bertsolaritzakin bero*
*irriparrez egunero*
*lagunkorra da nahiz eta dugun*
*deituraz GERRERO*
*azkar kanta nahia edo*
*badu nahikoa endredo*
*txapela berak afal ostean*
*jokatu ezkero.*

*IÑAKIK gorputza giharra*
*eta bibote edarra*
*gazteena da adinez baina*
*adar jotze zaharra*

*nahizta azaldu indarra*
*ta kantatu barra barra*
*oraindik badu mikrofonoa*
*gainditu beharra.*

*Futbolean fin ta azkar*
*kantura gustua dakar*
*ahots zolian gura lituzke*
*bertso guztiak har*
*zortziko handi zein kaskar*
*beti bere senean jar*
*txapelik gabe nahiko txapeldun*
*azaltzen da BIZKAR.*

*Dena ondo egin nahia*
*ondo mamituaz gaia*
*lehen bi puntuak osatzen dugu*
*azkar ta ernaia*
*hirugarren etsaia*
*iritxiko da garaia*
*hau menderatzen duen orduan*
*nork hautsi AMAIA.*

*Bere itxurak emana*
*ile gorriz "alemana"*
*bi hitz segidan ateratzeko*
*PATXIK badu lana*
*hala ere bere afana*
*adarra jotzeko plana*
*ateraldirik zorrotzenakin*
*ziria darama.*

*Begiek keinu garratza*
*okotz ta bizarrak dantza*
*MIKELEK hartu nahi omen digu*
*Osabaren antza*
*geldu baina esperantza*
*"Harek" duen bertso gatza*
*gure tarteko kantuan ere*
*baduk nahiko saltsa.*

*Bazekin nola behar den*
*zaindu kanpo eta barren*
*baina bezperan gau pasa eginez*
*azaldu da erren*
*nahizta indartsu zetorren*
*txapelaren bila TXERREN*
*biaramonak gainditu eta*
*utzi du bigarren.*

*Serio bere kopeta*
*herri muinetan arreta*
*Oreitiara azaldu digu*
*bertsoaren beta*
*Euskara gosez beteta*
*igaro du txapelketa*
*RIKARDOk badu sekreturen bat*
*barnean gordeta.*

*Lagun arterako poza*
*bertso kantuekin goza*
*giro goxoa sortzen genuen*
*MANU aproposa*
*baina ametsik ezin osa*
*horra hil ezkilen hotsa*
*neguko hotzez bezela zaigu*
*tximurtu larrosa.*

*Doinuz ornituz ganbara*
*bertsoetan mara mara*
*TXINOTXU batek txapela jantzi*
*nolako zartada!*
*Euskaldunak ote gara*
*hau da dudaren ikara*
*gaurtik aurrea Jaunak gaitzala*
*guztiok anpara.*

*Abel Enbeita*

*1984ko ekainaren 10a, Gasteizko Florida Antzokia*

## Juan Isasi "Txinotxu"

Juan Isasi, berriz, askori ezezagun egiten zaigu. Entzun bai, bera izan zela Arabako lehen txapelduna, baina gero entzun, ikusi ez dugu egin. Liburuaren aitzakian ezagutzeko aukera izan dugu, baita harritu eta gozatu ere. Bere IVAP-eko bulegoan elkarrizketa egin eta ingurua serioa bazen ere, laster ohartu nintzen Juanek perla asko zituela.

**Hasieran erreparo pixka batekin, ez bainuen ezagutzen, ea Txinotxu ala Juan esan behar nion...**

Beno, gaur egun Juan, Juan bai, "Txinotxu" bertso eskolan sartu eta hasieran bakarrik entzule joan banintzen ere, lehen klaserako bertsoak idazten hasi ginen eta izenpetzen, niri esan zidaten "Juan Isasi" horrek ez zuela ematen bertsolari-izen, orduan umetan/gaztetan begiengatik "Txinotxu" goitizena banuen, eta pentsatu nuen ba «"Txinotxu" jarriko diat!», ta holaxe...

**Eta non/noiz hasi zinen bertsotan?**

Ba, ni euskaldun berria naiz, eta lagun batek bertso-eskolara joateko esan zidan, nik esan nion mailarik ez neukala bertso-eskolara joateko, baina azkenean konbentzitu ninduen, euskara jatorra hartzeko, euskal giroan murgiltzeko eta ondo pasatzeko oso ondo zegoela... Entzule joango nintzela bai, eta gero jarraitu egin nuen.

**Eta Arabara noiz etorri zinen?**

82an edo izango zen, lanera etorri nintzen, eta berehala ezagutu nituen hemen bertso eskolan zebiltzanak, garai horretan denok ezagutzen genuen elkar, eta hemen jarraitu nuen bertso-eskolan.

**Bi eskolen artean giroa antzerakoa al zen?**

Beno, maila aldetik Gasteizen maila apalxeagoa, Gasteizkoak pixka bat beranduago hasiak ziren. Funtzionamendu aldetik Gasteizkoa informalagoa zen, gehienetan Abelek hartzen zuen lana bere gain, gaiak ekartzen zituen, beste batzuetan etxeko lanak elkarri agindu eta hurrengo bertso eskolan ekarri...

**Eta 84ko Arabako Txapelketa? Nola hartu zenuen/zenuten?**

Beno, nahiko txapelketa xelebrea izan zen hura, izenez "Arabako txapelketa" bazen ere, finean bertso eskolako ikasle talde bat ginen, Abelek bultzatuta ekin genion eta bera hain kementsu, hain motibagarri ikustean animatu ginen. Dena oso bat-batekoa izan zen, otsaila aldean edo ideia bururatu eta 3-4 hilabetera antolatu genuen, Abelen asmoa saio potente bat egitea zen. Nik errezelo handiak banituen, jende aurrean kantatzeagatik, baina Abelen jarrera ikusita...

**Eta azkenean txapela jantzi! Nola bizi izan zenuen txapela janztea?**

Nik uste dut suertea ere izan nuela, bakarkakoan "Araban euskarak bizirik iraungo al du?" gaia tokatu zitzaidan, eta horrek luzitzeko aukera ematen zuen, garai hartan oso gai aproposa zen, aldez aurretik landua geneukan horietakoa. Bertso onak atera zitzaizkidan eta horregatik irabazi nuela uste dut.

Eta txapelarekin poz handia hartu nuen, sorpresa ere bai, ez nuen espero: euskaldun berria, ibilbide laburra…harro sentiarazi ere bai, baina gerora beldurra eta zama…

**Zergatik?**

Beno, txapelaren kontuarekin hedabideak etorri ziren, plazak ere egin behar nituela, ez dakit zer herritara joan, edo ikastola batera... eta ni ez nengoen prest, lagun artean ondo, baina jendaurrekoa...

**Eta geroztik saiorik ez duzu egin?**

Beno, okasio berezietan bai, orain dela 3 urte 60 Isasitar elkartu ginen eta bertso batzuk bota nituen, edo despedidetan… Baina jendaurrean ez…

**Eta bertso eskolara joateari ere utzi zenion?**

Beno, txapelketa bukatu eta berehala izango zen bai, gainera garai horretan gauza asko nituen buruan, pianoa jotzen ikasten hasia nintzen eta solfeoa, horrek ordu asko eskatzen zituen… Begira, oso jende gutxik dakien kontu bat esango dizut, pentsa ezazu, finala Florida antzokian igandez jokatu genuen eta hurrengo igandean, antzoki berean, jazz dantza talde batekin joan ginen dantza saioa egitera malla eta guzti, ez dut uste bi saioetan egon zen pertsona bat ere dagoenik, kar, kar…

Eta talde horretan ere berdin pasatu zitzaidan saio horrekin, ni hasia nintzen modu "amateur"-ean, baina gero saio horrekin irakasleak esan zidan goragoko mailan hasi behar genuela, eta berriz sufrikarioak… Beraz, azken bertso saioa eta azken dantza saioa!

**Egun jarraitzen al duzu bertsolaritza?**

Beno, hitzetik hortzera ikusten dut, saioren batera joan ere bai, baina gero eta gutxiago, ume txikiak dauzkagu eta…

## Araba eta euskara

*Euskararekin batera dugu*
*hainbat ekaitz eta laino*
*gure euskara gaur bezain larri*
*ez da egon gaurdaino.*

*Euskara zaintzen ez dugu jarri*
*behar hainbeste enpeino*
*Araba hontan gu zer gerade*
*euskaldun ala ze koño*
*ez dezagun utz Araban ere*
*bertan behera hiltzeraino.*

*Txinotxu txapeldunaren kartzelako gaia*

*Gaia: Araba eta euskara*

*1984ko Arabako Txapelketaren finala*

# SENDOTZEN

90. hamarkadan Bertsolaritzak bere boom-a bizi izan zuen. Publikoz beteriko saioak nonahi, bertso gosea izugarria, "hitzetik hortzera"-ko lehen saioak, irratian ere saio asko bertsolaritzaren ingurukoak, saioetan esperimentazio garaia: gaiak, saio formatoak, bertsolari tipologia aldaketa, entzule berriak irabazi…

Orduan ere hasi ziren sortzen bertsolari gazte berriak, garai bateko bertsolari eta bertsokerari iraultzatxoa ekarri ziotenak. Dena den, norbaitek merezi badu aipamenik eta omenik garai hartan, bertsotan plazaz plaza hasi ziren neskak dira. Beraiek izan ziren garai horretan benetako iraultza. Ez zuten samur pasako askotan gizon giro hartan, (betiko)-emakume roletik kantatzen (hobeto esanda: gizon giro hartako betiko-emakume roletik kantatzen).



Araban ere, beti ere maila apalxeagoan noski, bertsolaritzak bizi izan zuen aldaketa garaia, eta zergatik ez, gure boom txiki bat (gurean petardo batena izango zena): San Prudentzio saria antolatzen hasi zen 1990ean, Gasteizko jaietan ere “Matxete” enparantzako saioak egunero. Arabako bertsolari gazteen topaketak, Bertsoaldia… Arabako bertsolari berriak kantari: Zigor Enbeita, Oihane Perea, Dani Kastaños, Asier Iriondo, Asier Otamendi (ikastera etorri eta bertso eskolan Gasteizen hasiak), kanpoko figurak Gasteizen: Igor Elortza, Jon Maia (hauek lehenagotik hasiak ziren bertsotan).

Bestalde, pixka bat harrotzeko motiborik ere badaukagu: bertso-tramen sorrera hemen izan zen (Igor, Jon eta Josu Goikoetxeari esker), Egaña bera ere 89ko txapelketarako hemen entrenatzen ibili zen Abel, Rikardo eta gainontzekoekin… Tira, ez da gutxi!

Pixkanaka ere hamarkadaren bukaeran hasi ginen Gasteiztik ateratzen eta Arabara hedatzen, bertso eskolak sortu ziren lautadan, Aiara aldean (“Tunel”-ekoa galdu eta gero, bertso eskola berreskuratuz), Aramaion, Kanpezun, Legutianon… Gasteizko eskola izatetik Arabako bertsozale elkartea izatera pasatu ginen, eta gainontzeko herrialdeekin bat eginez Euskal Herriko Bertsozale Elkartea osatu.

Ez dugu nahi izan atal hau aurrekoa bezain mamitsu egin, hainbeste denbora ez da pasatu, eta denborak ematen du ikuspegi zabalagoa. Geroan egongo da une hoberik talaia egokiagotik gauzak gainbegiratzeko. Baina aurreratuko nuke 80. hamarkada bertsoaren birjaiotza izan bazen gurean, 90.ean oraingo elkartearen zutabeak ezarri zirela, eskola izatetik elkarte izatera igaroz.

## OIHANE, ASIER ETA ZIGOR

Eskertu beharrean nago nire maisuari, Asier Iriondori, (beste batzuk eduki ditut, baina *lehenengoa* ez da sekula ahazten) liburuko laguntza eman izana. Betiko moduan laguntzarekin batera tranpatxoa ere egin dit, izan ere, horrela bera ez da agertzen protagonista gisa, baizik eta kazetari gisa. Baina ezingo da libratu nik aipatzetik.

Izatez legazpiarra da Asier, Euskal Filologia ikastera etorri zen, eta karrera 5 urte baino pixka bat luzeagoa egin zitzaionez, 10 bat urte pasatu zituen gure artean. Gasteizko bertso eskolan hasi zen Asier Otamendirekin batera eta Otamendik askoz txapel gehiago lortu dituen arren, Iriondok irabazi zuen bere bakarra Otamendiren diktadura iritsi baino lehenago. Aek-ko irakaslea izan zen urte askoan (Otamendi ere bai), eta Gasteizko bertso saio koxkorretan azkar zabaldu zen bi Asierren arteko bertso pikea, ziriak, txantxak…

Iriondo bere zaleak izan ginenontzako pixka bat etsigarria zen, izan ere, ematen zuen txapelketa ez zuela irabazi nahi. Kantatzeko ere, askotan aitzakia. Baina eskolan denok maitemindu ginen bertsoarekin bere bitartez. Seguru nago Gasteizen asko izan ginela herrira bueltatzeko erabakia hartu zuenean pena hartu genuenak. En fin, c'est la vie.

Berak bere kantukide, lagun eta belaunaldikide izan diren Zigor, Oihane eta Asierri egin die elkarrizketa. Eta nire aldetik, ba zer esango diot ba? Eskerrik asko, Axier.



## Zigor Enbeita

Abornikanokoa dugu. Errota baserrikoa. Enbeitatarra. Balentinen biloba eta Abelen semea. Gasteizko bertso-eskoletako sortzaileetako bat da Zigor. Denetarik egin du, kirolean esaterako esku-pilotan, txirrindularitzan, areto-futbolean eta futbolean ibilia da. Bertsotan, lehenengo plaza Laudion egin zuen. Araba-Bizkaiko Eskolarteko txapeldun izan zen 1988an. Prudentzio Deuna ere bitan irabazi du eta 2003an Arabako txapeldun izan zen. Olerki, ipuin eta bertso jarrietan sariak ere lortu izan ditu.

## Oihane Perea

Gasteiztarra da. Ikastola garaian Serapio Lopezek animatuta hasi zen Gasteizko bertso-eskolan. Hamalau urte arteko Eskolarteko Txapelketetan parte hartu zuen gero. Araban ez zegoen bat-batean egiten zuen beste gazterik. Prudentzio Deuna sariketan hamabost urte zituela hasi zen parte hartzen. Askotan egon da finalean eta hiru aldiz jaso du bigarren saria. Arabako Bertsozale Elkarteko arduradun izan da eta EHBEko Transmisio taldeko eta zuzendaritzako kide.

## Asier Otamendi

Gaur egun Gasteizen bizi da. Urretxun jaio zen baserri giroan. Gaztetan txurruna zela eta une txarrak igaro zituen. Bertsotarako zaletasun apur bat izan arren, nerabezaroan guztiz baztertu zuen eta beste gauza batzuetan hasi zen, hala nola, txirrindularitzan. Hemeretzi urte zituea Gasteiza joan zen ikasketak egitera eta bertan bertsozaletasuna piztu zitzaion. Ikasketak egin bitartean bertsotan ikasi eta plazara atera zen. Prudentzio Deuna eta Arabako txapelketa gehien irabazi dituen bertsolaria da.

## Eskuko telefonoaren aurreko belaunaldia

Oihane Perea, Zigor Enbeita eta Asier Otamendirekin egindako mahai ingurua jaso dugu orriotan

Gasteizko eta Arabako bertsolaritzan belaunaldi bateko kide direla esan daiteke. Eskuko telefonoak gorbatadunen tresna ziren garaian hasi ziren bertsotan. Zigor Enbeita eta Asier Otamendi 1971n jaiotakoak dira eta Oihane 1977an. Ez ziren batera hasi, baina batera askotan kantatu dute eta Arabako bertsolaritzan erreferentzia bihurtu dira. Gasteizko alde zaharreko etxe batean egin dugu hitzordua eurekin.




**Zuek hirurok belaunaldi bateko bertsolariak zarete. Non kokatzen duzue zuen burua belaunaldi horretan?**

**Oihane:** Laurogeita hamargarren hamarkadakoa da gure belaunaldia, bertsolaritzak boom hori bizi izan zuenekoa gutxi gorabehera. Gu ere boom horretan murgilduta sartu ginen bertso-munduan. Niri bertsolarien perfilaren aldaketak, erreferentzia urbanoek eta abarrek eragin zidaten.

Bertsolaritza gazte eta urbanoago bat ari zen loratzen Unai Iturriaga, Igor Elortza, Jon Maia… eta hori guztia guretzako bizigarri izan zen. Aldi berean, bertso-eskolak sortutako lehen gazte belaunaldia osatu genuen guk eta gazte gehiago erakarri.

**Zigor:** Ni, berriz, bertso eskola sortu zenetik, generazio batekin baino gehiagorekin nago identifikatuta. "Guardia zaharrekoekin" ekin nion bertso eskolari. Gero Perea agertu zen eta ondoren Otamendi eta Iriondo Dani Castañorekin. Gazteagoekin ere aritu izan naiz. Beraz, nire burua guardia zaharrekoen eta gazteen arteko zubi bezala kokatuko nuke.

**Asier:** Zigorrek esan bezala, gu geroxeago iritsi ginen. Laurogeita hamargarren hamarkada hasiera horretan. Mutikoagotan ere bertsoarekin kontaktua izan nuen, baina nire garaia Oihanek aipatutako boom horretan dago. Ni Gasteiza iritsi nintzenean Murua, Mendizabal, Peña, Egaña eta belaunaldi hori garai gorenean zegoen.

**Publikoa nolakoa da? Asko aldatu da?**

**Zigor:** Lehen saio oso gutxi egon arren bertsolari askoz gutxiago zegoen. Gehiago abesten genuen baina saioak oso ezberdinak ziren. Hiru bertso hemen euskararen alde, beste bi han presoen alde… Bertso saio haiei bertso-marroiak deitzen genien. Bestalde, urtean zehar bi jaialdi egiten ziren arabar bat eta kanpoko bertsolariekin, Goiuri jauregian normalean.

Publikoa, berriz, asko aldatu da. Lehen ez zen bertsozalea, euskaltzalea zen. Orain ere badago lehengo publikoa, baina bada bertsozalea den publiko bat ere. Lehenagoko publikoa sarritan "sufridorea" zen. Askotan bertsolarien maila txarra agoantatu behar izaten zuen eta bertsorik txarrenari txalorik handienak eman bertsolaria animatu nahian.

**Oihane:** Jende asko mugitzen zen Gasteizen saioetara. Bertso-asteak antolatzen hasi zen Arabako Bertsozale Elkartea eta arrakasta handia zuten. Zigorrek esan bezala, bertsolariak han eta hemen sartzeko moda jarri zen eta garai batean bertsolari gutxi ginenez asko ibili ginen plazaz plaza. Orain bertsolari gehiago dago, txapelketako zerrendari erreparatzea nahikoa da horretaz konturatzeko.

Publikoari dagokionez, nik uste Gasteizen bazegoela nahikoa kualifikatutako publikoa, baina, batez ere, goi-mailako bertsogintza jarraitzen zuena. Printzipalean antolatzen ziren jaialdiak izarrekin egiten ziren eta entzule kopuru ikaragarria biltzen zen. Gogoratzen dut gu gazteak ginela eta haserretu egiten ginela horrekin. Uste genuen bertsolaritza zabaltzeko ez zegoela horren elitista izan beharrik. Jendeak bertako bertsolariak txarrak zirela uste zuen. Apurka-apurka hasi zen Gasteizko jendea Arabako bertsolariengan ere erreparatzen eta konfiantza hori garai horretan eskuratu genuela esango nuke. Noski, azken urteetan ere gure maila apur bat igotzeak lagundu du.

**Zigor:** Orain inguru ezberdinetara egokitu da bertsolaritza eta formatu berriak bilatu ditu. Lagun arteko saio eta tabernetako saio mordo bat dago eta publiko oso ezberdina

mugitzen da, inoiz jaialdi batera joango ez litzatekeena esaterako. Bertsoa zer den dakien publikoa daukagu eta ona eta txarra bereizten dakiena. «Mejor que ese canto yo» edo «echa un bertsolari» esaten zigun hasierako publiko erdalduna bukatu da.

**Asier:** Hasieran, euskaltegietan eta ikastetxeetan ere dezente mugitu ginen. Zigorrek esan bezala euskararekin kontaktu oso gutxi zuen jendearen aurrean kantatu izan dugu. Publikoan jendea euskalduntzen ere ikusi dugu. Badira euskaltegian urrats baxuetan zebiltzan ikasleak gero bertso eskolan ere ikusi izan ditugunak. Bestalde, nire kasuan saio kopuruan ere igarri dut. Garai batetik hona plaza kopurua dezente jaitsi zait niri.



**Gasteiztik Arabarako prozesu bat izan da. Bai saioen aldetik bai bertso-eskolen aldetik.**

**Oihane:** Gasteiztik eta Aiaratik kanpo, nik uste, entzuleak guztiz berriak eta hezigabeak ziren. Hau da, ez zen bertsozale kualifikatua. Bertsoak beste zerbaitekin hartu behar izaten dituen horietakoa zen, patata frijituak bezala. Baina bertsolaritza Araban Gasteiz eta Aiarako ohiko zirkuituetatik atera eta leku berriak konkistatzen hasi zela iruditzen zait.

**Asier:** Gu hasi ginenean Gasteiz zen Arabako bertsolaritza. Prudentzio Deuna txapelketan Gasteiztik ateratzen ginen baina hiriburukoak ginen parte hartzaile gehienak.

Gaur egun, alde horretatik ikusten den koloreak ez dauka zerikusirik. Bertsoaren presentzia Araba guztira zabaldu da. Oraindik ere lan handia dago baina urte gutxitan egindako bidea oso nabarmena izan da.

**Zigor:** Hala da bai. Une batean Aiara deskolgatu ere egin zen denbora luze batean eta Gasteiz geratu zen erreferentzia bakar. Ez da izan lan erraza. Euskararen mugak bertsoaren mugak dira baina gaur egun Araba guztira zabaldu dugu bertsolaritza. Bertsoa eta euskara batera zabaldu direla esango nuke.

**Oihane:** Gasteizko gure txokotik atera eta Arabako herrietan lan egiteko beharra sentitu zuen gure belaunaldiak. Laurogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran sortu ziren Aramaioko bertso-eskola, Aguraingoa, Kanpezukoa, Legutiokoa… Gasteiz izan zen prozesuaren motore. Hiriburutik joandako irakasleekin erein genituen gainerako herrietan haziak. Horietako batzuetan sustraiak bota eta bertakotzea zen azken helburua, eta orain ari da ahalegin hori fruituak ematen. Aramaioko bertso-eskola eta urte askoren ostean berriz martxan jarritako Aiarako bertso-eskola dira horren erakusgarri.

**Zigor:** Gaur egun hezkuntza arautuan Araba guztian daude bertso eskolak. Eskualde gehienetan edo ia guztietan dauzkagu eta gero eta gehiago. Bertso saioak ere Arabako eskualde guztietan egin dira aurten. Lehen gazteak bertso-eskolara hurbildu baina gero joan egiten ziren eta hiru lau generazio horrela galdu genituen. Gaur ez da hori gertatzen. Herri askotan beren burua bertsolari ikusten ez duten gazteek, bertsolari peto-petoak ez direnek esan nahi dut, beste lan batzuetan dihardute gai-jartzaile, epaile, irakasle, antolatzaile… edo afalosteko bertsolari. Inoiz baino gazteago dago arabar bertsolaritza eta inoiz baino arabarrago

**Asier:** Bai, gu ia aitona-amonak bihurtu gara.

**Zein irudi dute Euskal Herriko gainerako lurraldeek Arabako bertsolaritzaz?**

**Oihane:** Arabaz dagoen irudia nahiko estereotipatua da. Euskaraz ere ez dakigula uste dute zenbait herrialdetako bertsozaleek. Gogoan dut niri eskolarteko txapelketa batean bertsolari aitzindari batek esandakoa: «Ez duzu gaizki egiten euskaraz arabarra izateko». Ikastolen sorreratik 15 urtera hori entzuteak belarrian min apur bat ematen du, egia esan.

Beste batzuk inorekin baino exigenteago dira gurekin. Gogoan dut Osinalde sariketa bateko finalera heldu nintzela. Tentsio handiko saioa izan zen niretzat. Nire euskarak kezkatzen ninduen eta perfektu ahoskatzeko ahaleginean "s" bat "z" ahoskatu nuen. Gertatzen dira horrelakoak. Tira, Gipuzkoan lehen aldiz eta ehunetik gora goierritar indigenaren aurrean ari nintzen kantuan eta ez da arraroa larritzea. Lupatik begiratuko balute bezala sentitzen nituen, animalia exotiko bat banintz bezala… eta horrela zen. Bukaeran txapela eta purua daramaten indigena horietako bat hurbildu zitzaidan eta «ondo neska, euskaraz ondo egiten duzu, lastima "z" hori!» esan zidan.



**Zigor:** Nik gaztetxotan Gipuzkoako eskolartekoan hartzen nuen parte eta, gogoan dut, gai-jartzaileak ni arabarra nintzela esaten zuenean zurrumurru zabala sumatzen zela publikotik. Baten batek ere esan zidan banuela meritua arabarra izan eta bertsolari izanda. Gero abizena esan eta normala zela zioen askok, abizenak bertsotan egingo balu bezala. Aurrerago, Bizkaian ere antzekoa gertatu zitzaidan, baina Enbeita abizena ezagunagoa zen eta askok bizkaitartzat ninduen. Hor ere kosta zitzaidan nire arabartasuna mantentzen. Ondoren Perea, Castaños, Irati Anda, Viñaspre, Ane Zelaieta eta beste asko pasa dira eskolartekotik. Ikusi dute hemen bertso mugimendu bat badagoela eta, gezurra dirudien arren, arabar askok euskaraz badakiela eta, kasu askotan, ondo hitz egiten dutela gainera. Bertsozale elkartean ere gero eta handiagoa da Arabaren presentzia eta azken hamar urteotan ezer ez izatetik ohiko izatera pasa gara.

**Oihane:** Beti bilatzen da esplikazioren bat. Baina, zu arabar-arabarra ez zara izango? Nongoak dira zure gurasoak? Eta aitona-amonak? Sorpresa eraman dute askok gutako asko guraso erdaldun edo euskaldun berrien kumeak garela jakitean, zeresanik ez euskaldun berria baldin bazara!

Jendea Arabatik kanpo ez da kontziente berreuskalduntzeko egin den ahaleginaz eta urte gutxitan egon den gorakadaz. Ez dute prozesuan konfiantzarik. Baina tira, denborak jarriko du bakoitza bere lekuan.

**Asier**: (Asier) Iriondo eta biok askotan azaldu behar izaten genuen baietz Gipuzkoan sortuak ginela, baina bertsolari Araban egin ginela. Prentsan txapelketa kontuak ateratzen zirenean askotan azpimarratzen zen nire gipuzkoar jatorria azalpen bat eman beharko balitz bezala. Seguruenik, ordea, Gasteiza etorri izan ez banintz ez nintzateke bertsolari izango.

**Beste lurralde batzuetan euskalkien inguruan egin izan da gogoeta. Nola ikusten duzue zuek?**

**Asier:** Bertsolariengan jarrera aldaketak ikusi dira. Batez ere, bizkaitarrena da nabarmenena. Txapelketetan ere hori bultzatzen saiatu izan dira. Nire kasuan nire euskara gipuzkera da. Araban plazak egiten hasi ginenean euskara batuan kantatzen genuen. Bertsolari egin gintuenez, Arabari hori zor geniola iruditzen zitzaigun. Esaterako, Bizkai-Arabako txapelketan “det” edo “degu” entzutea gogor samarra izan zitekeela uste genuen. Gaur egungo ikuspegitik horrekin gehiegi obsesionatu ginela iruditzen zait.

**Oihane:** Euskalkiarena guk ez dugun zerbait da eta seguruenik gure asignatura pendienteetako bat. Zein da Arabako euskalkia? Nondik hartu behar dugu erreferentzia? He-

rri batzuetan ez dute arazorik euskalkia oso gertu dute eta (Legutio, Aiara…). Baina Gasteiz erdian dago. Euskalki berri bat sortu behar dugu? Batua ez zen ahozkorako sortu eta gure jarduera ahozkoa da batez ere. Defizit bat badago hor.

Bestalde, batuan kantatzen dute gaur egun bertsolari gehienek. Nik uste dut bustidura dela klabea, gure euskara malguago egin behar dugula alboko euskaretan egiten diren antzeko bustidurak eginez. Euskalkiek aberastu egiten dute gure batu agian zurrunegi hori. Arabako bertsolariak eredu izan daitezke herrialdeko gainerako hiztunentzako. Ikerketarako gai interesgarria da hori.

**Zigor:** Araban tamalez euskalkia galdua dagoen arren badago zerbait bereizten gaituena: Popurria. Hemen denetarik entzuten da: batua, bizkaiera, gipuzkera… Bertako jendea euskaldun berria da eta batua ikasi du umetan ikastolan edo AEKn. Bizkaia eta Gipuzkoatik etorritakoen semeek, berriz, etxeko euskara eta batua egiten dute eta unibertsitarioek beren euskaran. Hori ez dut pentsatzen txarra denik, aberasgarria baizik.

**Etorkizuna nola ikusten duzue?**

**Oihane:** Bertsolaritzaren ezagutza herrialdean zabaltzeko lanak aurrera jarraitu behar du, hezkuntza arautuan hasi, bertso-eskoletan jarraitu eta plazan biribildu. Arabako herrietan bertako bertsolariak sortu eta bertsolaritzan benetako sustraiak botatzera eraman behar ditugu. Bide onetik goazela iruditzen zait. Arabako txapelketan aritu diren bertsolariak herri askotakoak izan dira, eta hor ikusten da bertso-eskolen lana.

Zabalkunde handia izan du Arabako bertsogintzak azken hogei urteotan. Gaur egun, bost eskualdetako bertsolariak daude, saio kopuru polita dute eta bertsolariak bertako zerbait izatera pasa dira zenbait herritan. Herrietako jaietan bertso-jaialdiak antolatzeko joera sumatzen da adibidez eta hori oso positiboa da. Arabako publiko berriak eta Arabako bertsolariek ondo konektatzen dute eta jaialdi horiek antolatzerakoan oso kontuan hartzen dira bertako bertsolariak.

Norabide polita hartu du prozesuak nire iritziz. Baina ezin gara lotan geratu eta apustu sendoak egin behar dira. Maila batetik gora estankamendua saihestu eta bertako bertsolariak bultzatu behar ditugu piramidean pauso bat aurrera egin dezaten. Bertsolari bat nazio-mailako zirkuituan sartzeak berebiziko bultzada eragingo lioke Arabako bertsogintzari.

**Zigor:** Etorkizuna geurea dela esango nuke. Inoiz baino gazteago, inoiz baino gehiago eta inoiz baino organizatuago gaudelako. Bertso eskolek gure etorkizuna markatzen dute eta bertso-eskola ugari eta gazteak daude Araba guztian. Urtero berriren bat sortzen da gainera. Bertso irakaskuntzan jende gaztea ere ari da sortzen eta, ilusio handiz, lantzat

daukate bertsolaritza. Orain hamar urte amets bat zena gaur errealitate bihurtzen ari da eta hori Arabako eskolarteko txapelketetan ikusten da.

**Asier:** Zalantzarik ez dut bertsolariak etorriko direla. Egindako lanak fruitua emango du. Bertsolari gehiagoren etorrerak mailan ere eragingo du eta elitera ere iritsiko da.

**Besterik gabe bukatuko dugu, hortaz. Eskerrik asko.**

**Zigor:** Nik amaitzeko zera esan nahiko nuke: probintzia honetan lan egitea ez da erraza. Populazio txikiena du eta erdaldunena da. Nik Perearen lana nabarmenduko nuke. Berak garai zail batean bere lepora bota zuen lanik zakar eta ilunena eta bertso eskola tabernatik ateratzeko lehen pausoak eman zituen. Bada jende gehiago ere lan asko egin duena. Batek bakarrik ezin duelako egin aurrera, baina bat nabarmentzekotan Oihane nabarmenduko nuke.

**Oihane Perea:** Niri bertsolarien perfilaren aldaketak, erreferentzi urbanoek eta abarrek eragin zidaten.

Txapela eta purua daramaten indigena horietako bat hurbildu zitzaidan eta «ondo neska, euskaraz ondo egiten duzu, lastima "z" hori!» esan zidan.

**Zigor Enbeita:** Publikoa asko aldatu da. Lehen ez zen bertsozalea, euskaltzalea zen.

«Mejor que ese canto yo» edo «echa un bertsolari» esaten zigun hasierako publiko erdalduna bukatu da.

**Asier Otamendi:** Publikoan jendea euskalduntzen ere ikusi dugu. Badira euskaltegian urrats baxuetan zebiltzan ikasleak gero bertso eskolan ere ikusi izan ditugunak.

Gasteiza etorri izan ez banintz ez nintzateke bertsolari izango.



## TXUSTATIK BELODROMORA (BEC-ERA)

Hainbat urtetan Arabako bertsozale elkartea batez ere Gasteizko bertso eskola izan zen, baita ere Aiara aldekoa. Eta pixkana-pixkana ilustreak etortzen hasi ziren, edo hemen “ilustratu” ziren lagunak, batzuk orain direna baino lurtarragoak , Andoni Egaña kasu.

Andoni 82. urteko bukaeran heldu zen Gasteiza, Amuriza bigarren txapela irabazten ari zela… Bera ere Txustako ostegunetako bertso eskolatik pasa, baita bertso-eskola osteko eskolatik ere, eta gero noraino iritsi den… Hala ere, lekuetatik pasatzen garenean, batez ere 8 bat urtez egon eta aritu eta gero, joan joan ez gara erabat joaten, arrastoa geratzen da tabernetan, kaletan eta Andoniren kasuan, Matxete plazan.

Andoni bi garairen arteko mugarri jarriko dugu, kasualidadez, bera Gasteizen gure historia txikiko lehen garaian egon zen eta gero Gasteizko eta EH osoko beste aro bat izan den 90. hamarkadako protagonistetako bat izan da, Gasteizaldia bukatu zitzaiola. Orduan ezagutu zutenentzako, ordea, oraingo eta batez ere lehengo Andoni da Andoni Egaña.

“Meleé” taldea deitzen zigutela esatearekin adierazia dago gehiena. Errugbi-jokalarien modura jartzen ginen nonbait tabernetan, elkarri bizkarretik helduta, bost edo seiko borobila osatuz, makurtu samarrik, puntuka ari ginela elkarrena entzun ahal izateko. Gainerako parranderoek bitxi iritziko zioten gure joerari. Halakoxea zen izan ere.

Bertso-eskolako lanak aski ez, eta bertso-eskolatik irtenda ostegun gaueko ibilia eta kemena bertsotan xahutzen genuen goizalderarte, segur aski bere txarrean ongien egiten genuena bertso-lana zelako.

"Txusta"n elkartzen ginen orduan. Hura zen gure bertso-eskolaren egoitza. Goiko solairura igotzen ginen eta baziren han gela bat handia, eta beste pare bat txikiagoak. Garaiak ere halakoak ziren, eta kuadro xelebreenen partaide izatea egokitu zitzaigun. Gu, bertsotan gela batean, ondokoan, MERCEDES BENZ edo MICHELINeko langile talderen bat asanblada burutzen ari zen bitartean. «Zure irribar hori da oso maltzu...», «por que la problemática puntual en esta coyuntura...», «emango badidazu halako egurr...», «la reivindicación salarial no es sino la punta del iceberg...», «hauxe da beldurra!».

Asko zor diet Txustari eta Gasteizko bertso-eskolako kideei. Bertsolari Gasteizen egin nintzen. Gogoan dut iritsi berritan egin nuela lehen saioa. 1982.eko azaroa edo abendua hor nonbait, Foruen Plazan ginen kantari, Altuna azpeitiarra, Abel Enbeita, Ireneo Ajuria eta lauok. Ohore handia zen niretzat, entzute handiko bertsolariekin saioa egitea, eta goiz hartan eskolatik piper eginda, errima-zerrendak errepasatzen nola aritu nintzen gogoratzean irri-murritxa datorkit orain ezpainetara. Gero, apurka-apurka, Abel, Serapio, Juanjo, Rikardo, Xabier, Karmele, Txipi eta Txerren, Patxi... orain "guardia zahar"rekotzat jo genitzakeenak, adiskide egin nituen. Ez zen gurea metodologia zehatza eta prozedura argiak zituen bertso-eskola. Zetorrena zetorrela aritzen ginen. Baina egin genuen gure bidea... Gasteizaldia bukatzera nindoala jarri zen purian bertsolaritza. Orduan, bertso-eskolara Filologia ikastera joandakoak eta gainerako hurbiltzen hasi ziren. Zarautzera itzultzea erabakia neukan ordea. Banekien jaso adina eman gabe alde egin behar nuela Gasteiztik.

Nuenarentxo bat han utzi nuen ordea, zinez. Andra-Mari Zuriaren jaietako Matxete plazako saioa nire sentitzen dut hein batean. Duela hamazortzi-hemeretzi urte, zerbait antolatzen hasi ginelarik ez genuen pentsatzen gaur egunerarte iraungo zuenik...

*Andoni Egaña*

## PUNTO ETA KOMA



Gasteizen 90. hamarkadan ikasle boom bat izan zen, gainontzeko Euskal Herritik (batez ere Bizkaia-Gipuzkoa, gero Nafarroa, eta Ipar Euskal Herritik urri) ikasle asko etorri dira geroztik eta beren giro propioa eta egun/gau propioa ere sortu: ostegunak. (Batzuetan bertakoak arrotz bilakatzeraino ere!). Bisitari horietako bi (etorrera ordenaren arabera) Jon Maia eta Igor Elortza izan ziren. Laster konturatuko zarete ez zirela ez oharkabean pasatu Gasteiztik. Parrandak, kaleko bizipenak, Gasteizko fauna, kolektibo eta abarrekin izandako harreman eta kontuen 20 minutuko solasaldia duzue hau. Ez dut uste argitu beharra dagoenik, nor den "," eta nor den ".", edo alderantziz.

## ;
## punto eta koma
## ;

.–Koma, zu gasteizen ni baino beteranuau zara, ya lotsa galduta zeunken ni heldu nintzenerako, beraz… hasi!

,–Nik hasieran ez nuen Gasteiza jun nahi, gogorra eiten zitzaidan, ba hori 18 urtekin, ba oso koadrilakoak izaten gera, eta oso gure herrikoak-eta… ikaragarrizko pena, negar ta guzti ein nun Gasteizera jun behar izan horrekin, eta koadrilako eguneroko bizitza, bizitza ta hori dena, beno gero ya Gasteizen…

.–Zu'be han gizondu zinen orduen!

,–Beno hura izan zan nere bidaia iniziatikoa… bai, gero…

.–Eske herri txiki batekoa da! (komak kar, kar…)

.–Eske herri txiki batekoa da, ta beno gertatzen diren gauzak dire.

,–Bai…

.–ni ostera, ez dakit kontrakua zenbateraino, baina Gasteizek asko erakartzen ninduen, eee motibo batzuengaitik baina beno… bateko hertzainak, besteko ba hori! hau eta beste gentuza bat han eguen, ta etxetik urtetie, eee durangotik urtetie, nahiz ta durango be, beno, hiri bat izen.

,–ze zu ordurako ya gixontxoa zinan…

.–exaktamente, exaktamente. (komak kar, kar…)

.–beno ni de hecho gizontxo jaixo nintzen ta holan segitzen dot, ta oindiño txo hori kendu barik.deguixartixe(?) ta dana, seguramente… eta hoixe! Holan! ta ez nindun defraudau Gasteizek, egixe esan, bueltau be gustora bueltau nintzen herrira, baina pena apur bet bebai Gasteiz ixtiaz.

,–Bai ni lehenengo urtetik ya oso espabilauta ibili nintzan, ez nintzan klasetara juten, (puntok kar, kar) berehala ein nitun lagunak, baina gainera bertako lagunak, nik ikusten nun jende guztiya, ikasliak eta, ba azkenian mundutxu bat zirela ta mundutxu hortan bizi zirela, ikasliak elkarrekin, ostegunetako ghettoak, eta hori dena. Eta nik hasieratik ba bertako lagun batzuk ein nitun eta… ni ba… ia egunero ateratzen nintzan, eta neretzat ia hasieratik Gasteizek suposatu zun bizitzan lehenengo aldiz askatasuna, hori izan da neretzat hasiera batian. Askatasuna… ba hori amaren etxetik kanpora bizitzearena, nahi duzunian kalera erten, institutua baino askoz xamurragoa zan unibersidadea, osea, nahi bazendun ez zinan juten, institutuan ezin zendun egin hori! Eta ordun askatasuna zentzu guztietan!

.–beno hori seguramente, adin horrekin estudiante edozein hiritara jun den edozeinena da, experintzixe da!

,–baina nik ikusten nun, puntualizazio bat, jendia mugatzen zela eskema prototipo batera, klasetara jun, eta ostegunetan parranda, eta gu berriz ez ginan klasetara juten, eta ez nago harro eee! Baina ez ginan klasetara juten ta parranda eiten gendun nahi gendunian, ahal bazan ostegunetan ez, beste egun guztietan.

.–ahal bazan astelehenetan!

,–astelehenetan uzten gendun maleta, eta poteatzera juten ginen alde zaharrera zuzenian.

.–eta gero nik ez dakit, jonek zenbateraino konpartituko dauen hau, igual geixau inkluso, eee

(koma!)

.–koma barkatu! Nik lehen esan dot erakarri eiten ninduela Gasteizek, baina adibidez nik umetako nire akordua Gasteizena, eta hau holan esan biot, oso hiri arrotz batena da, euskal hirixe da, baina nik esango neuke paisaje urbanuen, eta jendian janzteko moduen ta danien, ba zan durangotik, hombre, ba bilbotik harantza jutea moduen, ezta? Umetan ez dakit zelan explikau, ze ez dot sentitzen ezer despektiborik, baina bazan paisaje arrotz eta zera ezta? eta gero aldi berien, hori 19-20 urtekin, ya, nahiz eta euskal herrixen oin be, inor ez dan ez dakit ze hiperfamoso eta abar, askatasuna aparte etxetik urtetako, nik uste hori ere bazala, ezta? Gasteizen psss! bertsolarixe ixe-ixe etzala inor, eta horrek bere alderdi onak dekoz, bai bertsotan, gero komentauko dogun moduen, hainbat gauza probetako, eta hirixen ibilteko anonimato handi baten, eta hori askatasun handixa da!

Ring! Ring (bulegoan dagoen tf-a hoska)

.–zuk hartuko duzu telefonue, edo?

.–uste dot entzule bat dabilela deike!

,–bai.. entzule bat, baina oraindik ez degu zozketatuko Jon Maiaren azken liburua!

(puntok kar kar, komak kar, kar)

,–neretzat… nik berehala kariño handia hartu nion, eee, gusto handia hartu nion, ni gogoratzen naiz nere pisuko neska batek, lehenengo pisuko neska batek, nola esaten zun, bueno desiatzen egoten zala osteguna iristeko ya bere herrira juteko, eta ni berriz, penaz bueltatzen nintzan herrira, han oso ondo neon, eta gero ya bihurtu nintzen Gasteizko kausaren aldeko militante, artikuluak idazten nituen egin-en, astero, eta beste zenbait lekutan ere egiten nitun nere gauzak, eta askotan ateratzen nuen gaia izaten zan, neri amorru handia ematen zidan, nere herrira juterakuan edo Gipuzkuan-eta, Gasteizen gaia ateratzen zanean ba hori kastilla da, hori dana kastillanoz beteta dago, hori ez da Euskal Herria, horrelako gauzak entzutea, ezta? Eta horrek ematen zidan amorru handia, eta beno behin baino gehiagotan atera izan dudan gaia izan da!

.–nik ez dakit, apur bat gaixan sartu eta iguel apur bat serixo ipintie izango da eee, baina uste dot, berdin dotzo, baina argia-n honi buruz idatzi dot ez dakit aste honetan, edo

noz urtetan dan, ez dakit zenbateraino daukoten arrazoi, baie nik uste dot Gasteizen badauela leziño bat edo bi ikasteko euskaldunontzat, eta euskal kulturillentzat… osea, euskal kulturan hiriburue da Donosti, por antonomasia, ezta? bizkaitarrok be edozer in bigunien han jun biogu Donositire,

,–gipuzkoarzentrismoa!

.–ze han dago euskaltasune, ta bestie, ta hurrengue, azkenengo urte batzutan badau bebai beste bueno e diskurtso bat, ta neretzako onerako, ta bagabiz pausu batzuk emoten, ba esaten dauena, bilbo danez EHko benetako kapitala, bueno bilbo komilla artian konkistau bidala ta bilbo irabazten danian ba euskerien eta euskal kulturan borrokia irabazita eongo dala, etabar, ezta? Ta neretzat gasteizen pasetan da fenomeno kurioso bat, oso aberasgarrixe eta interesantie, eta da… euskal eta erdal mundu, ez dakit kontra kulturala deitu edo ez ofiziala edo dana dalakue, elkarren beharrizan handixan dauz, ezta? Beste leku batzutan ee jende asko bizi dalako edo bizi dire separaute edo inkluso batak bestia jan gura dauela, ezta? Eta Gasteizen ba hori, sortzen da elkarren beharrizan bat, eta beraz elkarlan bat eta errespeto bat «dela hostia», nik Gasteizen moduen inon ez dot ikusi, jendie ez dauena tutik pe ulertu bertsue, interesetan ez igual bertsuegaitik beragaitik baina eiten duzunagaitik, eta ez pedantekeri tipikuaz, hau uste dot idazten dot gainera hor, beste leku batzutan etortzen jatzu erdaldun bat ta esan dotzu «no te he entendido, pero te he comprendido», ezta? eta holan «son mas pedantes que la hostia!», nik Gasteizen, alde horretatik, ibili ginen lekuetan, tabernetan eta abar, nik ikusten naben benetako interes bat, txorrada bakue, ezta? Preguntau zer dan eiten dozune, nondik datorren, preguntau zotzun zure iritzixe honi ta bestiai buruz, eurek esaten otzuen eurek zelan ikusten deixen gauzek, eta…nik uste dot hor, ez dekot goitik behera teorizaute, baina badauela irakasgai interesante bat Donostirako, Bilborako, seguramente Iruñean pasetan dire antzeko gauza batzuk, ez dakit, eta hor gu, ni behintzet, bastante aberastu nintzen eta uste dot aberasteko modue badauela, pasau ezkero «la gran linea roja» Jonek esaten dauena, ezta? Ostegun gabetan bakarrik urteten bazara filologiako kolegakin ba ez zara enteretan horretaz, ezta?

,–nik uste jende pilo bat jun dala Gasteiztik, 5 urte pasa eta gero, ezer ezagutu gabe, kasik han bertako lagun bat ere egin gabe, eta hori… bueno zure tituloa besapean eramango duzu berriz bueltan herrira, baina pixka bat tristea da, ezta? Neri kontrakoa gertatu zait tituloa ekarri nuen besapean, baina ez nuen aprobetxatu asko karrera, baina karrera hainbeste ez aprobetxatzeak ekarri zidan esperientzia bital hori, ezta? eta han dauden mundutxo guzti hoiek, nigan deskubritu nituen mundu asko eta jende mota asko, ze Gasteiz txikia da baina oso aberatsa da zentzu hortan, mundu alternatiboan ere bai, ezta? gero lehengo haritik…

.–eee, barkatu! Esan bidana da, ba klaro mundu guztiak ez dekola guk dekogun aurpegixe eta besapie!

,–bai, bai hombre, lehen esan det ez nagola harro nire karreraz! Baina,

.–baina besapiaz bai!

,–bai besapiaz bai, besapiaz bai, kar, kar… eta esan behar nun, ez dakit ze esan behar nun…

.–mundu txiki eta interesante asko dauzela, nahiz eta txikixa izan Gasteiz…

(…)

.–ez baina bueno adibidez, adibidez bertsotan eta bertso munduan, mila bider komentau dogu, ezta? baina nik uste dot gauza batzuek kointziditu dabiela, guk geunkela gogue, bestela bebai, eiteko, bueno azken baten berba itsusiekin esanda, potroen puntan ipintzen jakuna bertsotan, ezta? eta ez deitzen oskunien, berdin doste, Zornotzatik edo Urnietatik, ba saio formal hori, orduen gainera bertso-boomen osteko sasoi hori zan, baina bueno bertso saio horrek oin be eiten direnak, eta neretzat in bidirenak, e edozein motatako bertsolari, adin guztietako, edozein adinetako publiko eta abarrekin, ee baina bueno gu ez gintuena guztiz asetzen, o bueno beste gauza batzuk ein gure genduzen bertsotan, ezta? Ta nik uste, bueno, oinbe bixetatik egon bidala, hori dala bertzue, baina orduen guk Gasteiz aprobetxau ginun ba bueno apur bat experimento laboratorixo moduen, ezta? Gasteizko aukera… inkluso tabernan baten kantau ginun inork ulertzen ez doskule… hori deko

,–“Angar”–en!

.–Ba azken baten, bueno ez dakit kobaya deitu… Iosu Goikoetxeakin juntau, ta bueno, tramiena ta orduan sortu zan

,–elkarrekin bizi izan ginan urte betian, iosu goiko puntu eta koma, Iosu Goiko zen gorrotaguarri gure programan, kolaboratzailea…

…

,–hor interesantena da, gainera batez ere, mugitzen ginala alde zaharraren periferian, auzotan, auzoetako tabernak eta auzoetako jendiakin, ezta? Ni gehiago ibili naiz auzoetan zentroan baino, bolada luze batean, eta Errotan…

.–Judimendin bertan , baina bueno batez be Errotan![3]

,–kar, kar, Errotan a sako! osea Txalupa taberna izan da nere “centro de operaciones” eta auzoetako tabernak ere bai, ezta? Eta hori zan interesantea, ez ya predisposizio bat daukan leku eta jendearen aurrean, baizik leku birjinak zirenak erabat bertsotarako, angar-eko saio hori, oso esanguratsua da zentzu hortan, bai Parralen egin gendun lehenengo aldiz bertso trama, kontzeptu horrekin saio bat, Parral izan da gure txokoa, ezta?…

.–hor esan bida pixkat kontserbadore jokatu giñule, lehenengue Parralen eginde, apur bat filologoentzat ein giñule.

3. Errota eta Judimendi Gasteizko auzoez ari dira.

,–bai, bai kar, kar.

(Angarrekoa zer izan zen?)

,–jo ha zan egun bat, edurra…!

,–neguko egun bat, iluna, eta elurra bota ta bota ari zun, ta ez dakit zergatik, okurrituta edo, baina txapela jantzi gendun, eta

.–han librien ein giñun, a ez zan tramie, bixok… baina egin giñun ordu erdi pasako saio bat, ez zegoen euskaldun bakar bat,

,–ez, ez, kar, kar uste dut Idoia zegola, Parralekua, uste det, gero Txitxo morenoa, Diego Extremo Duroko bajista…

.–cicatriz-ekue!

,–extremoduro!

.–orduen extremoduro-n ebilen?

,–ez dakit orduan baina… eta holako jendia, ezta? Eta ikusten zendun, uste det baten bazebilela, ez dakit Idoia zan edo baina, baten batek itzulpena eiten zun inguru guztiantzat, Bode-n ein gendun beste bat, beste trama bat, lehenengotako trama bat izango zan hura ere, bi zoro ginala zoro etxetik ihesi eginda Iosu Goikokin…

.–Bai Bode-n zan… polite zana zan, traduziño simultaneo be ez dakit inagurau ginun bertsotan baina, etzan egon publiko asko bez, baina guk eiten giñun bertsotan eta inkluso tarte txikitxo bat itxi in bizan, ze eongo ziran ba joe igul… 24 pertsona gu entzuten, egon ziren 5 edo 6 euskaldun eta orduen beste danari tatatatata «pues ha dicho esto, o ha dicho lo otro», eta hola ein ginun saioak orduen ez…! Ze konturatu ginen eta momentu baten esan ginun bueno ba gainera holan bertso bi pentsetako denbora ematen eban, danok pozik, ezta!

,–txalekoan ere ein gendun saio bat, Camarón-ena doinu batekin kantau genduna…

.–ba eske gero zan lehen esandakue apur bat, afinidade bat sentitze eben jendia bazan baina «ni puta idea» zeukena guk benetan eiten gendunari buruz, baina aldi berien ba ikusten gintuen sasoi horretan egin-en, edo telebisiñuen edo zerien, baina ez ginen gero… eurentzat bertakuak be baginen, osea ez ginen tipo bi Gasteizen eguazenak eta kamarero batek esanda «egizue saio bat hemen» ez? Gu egoten ginen han, eurekin erre eta edaten «guztiz itsuak ari ginen jartzen» eta gero ikusten gintuzten domekan telebisiñoko programan edo hurrengoan egin-en , ezta? Eta esaten eben bueno «tenéis que cantar aquí, hacer lo que queráis, pero tenéis que cantar aquí!» eta holan…

,–harremanetatik sortzen ziran gauza asko, ezta? Eta hori politta zan…

.–eta bueno gero nik ez dakit benetan zenbaterainoko aportaziñoa eitezon bertsolaritzaren historixari honegaz,

,–bueno tramarena gure pisuan sortu zan!

.–ez dakit igual gure burue asko loreatzen gabiz, baina gauza politak urten ziren, hori dala eta, libertade horretatik sudurren puntan ipinten zana eitetik ba gauza politak irten ziren…

,–bai eta gero jendiak ikusi zun ba bazegola bertsolari perfil bat beraiekin bat eiten zuna, ezta? Hango jende askok pentsa zezakeen bertsolaria zala gauza kostunbrista bat eta ia ia ba zimaur zakuakin zetorrena eta ikusi zuten ba beraiek bezalako bi tipo euskeraz bizi ginala eta bertsotan eiten gendula, gainera ezta? Eta orduan nik uste det hor konexio natural bat zegola, eta batzuek gitarra jotzen zuten bezala ba guk bertsotan eiten gendun, baina tipo bereko pertsonak ginan, ezta? hori da interesantia, guk ez degu iraultzarik ekarri bertsotara, guk ekarri degu gu izan garena, besterik gabe, gu garena ikusi da gure bertsotan eta gure estetika eta gure hitz egiteko modua eta hori, ezta?

.–gero esan bida apoyo handixa geunkela beti agertzen ginen leku guztixetan beti eguen baten bat, zelan da? Koldo Mitxelena da? Institutoa? Koldo Mitxelenatik pasatutako makarran bat beti ebilen handik bueltaka orduen harek espliketan otzien ingurukoei «jo que no! Pues estos son… hacen esto y lo otro, y son hasta buenos!» beti agertzen zan baten bat euskeraz zekixena eta zu zer ba? Eta justu Koldo Mitxelena, ez?

,–gero girotxo bat ere bazegon, gure adin inguruko jendia, ezta beste gauza batzutan zebilena, Mikel Urdangarin orduan irakaslia zan

.–azkeneko urtiak dire horrek!

,–azkenengo urtiak izan ziran, nik han ein nun harreman handiena Garirekin, asko egoten ginan elkarren etxean eta hola, arauak-eko zera lana orain akordatu naiz aspaldiko partez, disko bat atera zuten.

.–gero Ardanza ere handik ebilen, baina bueno ez ginun koinzididu

,–ez ez deitu zigun pare bat aldiz baina…

.–baina ezin izan ginun…

(zein?)

.–Ardanza, Jose Antonio.

,–garai hartako interinoa, Ajuria Eneakoa.

.–apur bat zelan aipatu doguzen Mikel Urdangarin eta Gari eta… intelektualak aipatzearren, ezta?

.–gero ya autokritika einde apur bat geure buruari, onartu bioguna da Gasteizko bertso eskolari ez dotzagula aportaziño oso mamitsurik egin!

,–ez, kar, kar!

.–dana esan biher bada…

,–puntualak, kolaborazio puntualak, kar, kar

.–holako baten, beste hainbati ein itzien moduen, ba Oihane Pereak urte baten ixe-ixe belarritik heldu ta esan oskun «bueno txabales, ondo dago dibertitzie, baina ya ke Gasteiztik pasau zarien ba itxi in bikozue zeozertxo hemen be!, ezta?» ta bueno urtebete in ginun hango gaztetxo batzuekin…

,–Irati Lotina ta…

,–ez dot uste arrasto handirik itxi ginunik, baina bueno behintzet kunplidu ein ginun, astero juaten ginen eta inkluso fotokopixak eiten ginuzen bertso zaharrenak eta…

,–bai, bai, bai.

.–aizu landute, asuntue landute!

,–bai, asuntua serioa, bion artian lortu gendun klase bat betetzia

.–gero saioak eta hori por supuesto ein doguz, baina… zu hasieran lehenengo urtien ibili zinen apur bat…

,–ni Koldo Mitxelenan ibili nintzan klase batzuk ematen, gero urtero jun izan naiz urte batzuetan hitzaldia ematera, euskeraren gaia nire experientzia kontatzera eta hola, baina gu oso izpiritu libreak izan gera, oso oso oso libreak, gero Igorrek hartu zun karrera gizon izatekoa eta nik hartu nun karrera beti gazte izatekoa.

.–kar, kar

,–diferentzi hori zegon, baina hala ere igorrek bere topografo sena eukita ere, nahiko filologo ibiltzen zan gero eee! Libertadia hartzen zun topografia eiten!

,–danerako astixa dao! Barkatu eee! lehen Gari ta zerak aipatu dozuz, zuen pisuen urte baten o bitan Anari bizi izan zan, ein ginun trama bat Anarigaz bebai…

.–Bai!

.–Iosu tramagile eta Anari… Bagare-n izan zan hori!

,–Zientzia fikzio trama bat zan

.–Orduan gainera ginen, bat Ardanza zan, Idigoras ta Ardanza etorkizunean…

,–Idigoras 30.a, Arzallus… oso gauza sikodelikoak ein ditugu!

.–Entzun in biko litzakezen bertsuek eee! Baina bueno…

,–bai, kar, kar… baina bueno gu aberastu gera gehien gasteizekin… gero, nola ez? heldu gaitezen ya hala bedi-ko estudioaren unibertsotxora, ezta? Hori oso esperientzia polita izan zan, hala bedi bera mundu bat zan baita ere, pentsatzen det orain ere izango dala, eta ba gu mundu horretan sartu ginan, eta bueno gure zoramenari eskape bat emateko mikrofonoak izan ziran haiek, hor ere ba topografo baino flilologoago ibiltzen ginan, alegia ez gendun kolpe zorrik jotzen, baina bueno bertsolari izanik bageneukan hitzak mareatzeko abilidade horrekin ba salbatzen genitun programak, eta nik uste det azkenian lortu gendula kasikan estilo bat…

.–hombre, oso programa bertsolarixa zan eta…

,–oso inprobisatua!

.–eta permititzen bajate metaforia, inprobisetako be beti biozu oinarri bat ezta? Orduen oso programa filologue zan, baina bueno eiten ginuna zan, ordun laurden arinau programa hasi baino lehen, 4 kordenada adostu…

,–zenbait gonbidatu kalian estudiora bidian harrapatuta ere, eraman izan gendun gonbidatu bat baino gehio

.–baina bueno bageunkezan gure 3-4 sail tontuek inprobisaute eiteko, eta gero hori gorrotaguarri eta aditua jauna ahaztezinak, aditua jauna Unai Iturriaga Olinpotik berba eite ebana eta gorrotaguarri, gorrototik, normalian edo komun batetik, edo taberna baztar batetik, baina baztarra ulertu bida… zoruan, zoruko baztarrian…

,–kar, kar! Gero, jartzen gendun musika ere etzan oso bertsolaria, musika ere kuriosua zan ezta! Nahasten genitun oso kontzeptu musikal diferenteak, eta bueno euskeraz egindako programa izateko, oso programa bitxia izaten zan, lehenengoa izan zan 3 erregeen mahaia, lehenengo urtian

.–ez, ez! Ze lehenengo urtien ez zan Iosu, bixok hasi ginen.

,–a bai?

.–lehenengo urtian ez dakit zelan zan bez, gu bixok hasi ginen gero etorri zan Iosu eta orduen zan 3 erregeen mahaia, eta gero barriro Iosu juen zanien puntu ta koma eiten hasi ginen ta orduan Iosu hasi zan gorrotaguarri eiten eta Unairena… lehenengo urtien eztakit zelan…

,–ormaren kontra?

.–holako… ze gainera zuk gura zinun Maradona ipintie! (biek kar, kar)

,–punto, ez zendun onartu nahi…

.–gaur balitz igual onartu eingo notzun baina…

,–maradona nik uste non irabazlea zela…

(manu chaorena baino lehenago?)

.–bai, bai, bai!

,–ziurraski bai ze manu Chaok gero deitu zigun permisoa eskatzeko. Euskadi irratitik ez digute permisorik eskatu, orain 3 erregeen mahaia izeneko programa bat dago asteburuero…

.–eske ez dogu patentaten ezebez! ez bertso tramie, ez 3 erregeen mahaia, dana daukogu emoteko, baina bueno horregatik gero ipinten oskunien mikrofono bat aurrien ba aprobetxau eiten dogu rebindiketako eta gure burue laudatzeko…

,–eta, eta kar, kar izaten zan programaren ezaugarrietako bat, mikrofonoaren jabetzaren erronka (biek kar, kar)… ez geneukan gidoirik idatzita, baina etziran kabitzen gure hitzak ordu t'erdian.

.–bueno eoten ziren… azkenien bertsotan pasetan dana da, programa batzuk nik uste egon ziren antologikuek, eta beste batzuk desastre totalak, ezta?

,–bai, bai!

.–baina bertsotan txandak markauta dauz, orduen inspiraute zauzenien be errespetau eiten dozu ondokuena, eta ez zauzenien inspiraute ba toketan jatzunien be bota eiten dozu, ezta? Han pasetan zan aldrebes egoten ziren tarte batzuk elkarri holan beire eta orain ze ostia esan biogu, eta beste momentu batzuk derrepentien etorten zanien eldarnioaaa (biek kar, kar, kar) alkarri ixe-ixe ostixak emoten bata bestie ixiltzeko.

,–bai, bai! Gainera 3 erregeen mahaian edo imitazio sekzio bat ere bagendun, pertsonaje famosoena, nik imitatzen nitun Garaikoetxea eta Arzallus, eta Iosuk Atutxa

.–Atutxa! «De puta madre» eiten ban, gainera Iosuk eroan ebien, ze gure aurretik urte pare batien edo justu egoten zan «una hora tarde» oindiño badau? Horiek fenomeno batzuk ziren!

,–bua horiek mundialak!

.–bai pare bat aldiz eroan ebien papera eitera! Iosu arduratuta ta dana egon zan momentu baten.

,–estudio berriaren inaugurazioan izango zan igual, ez dakit, balkoitik egin gendun zeremonia bat, Iosu Atutxan karetakin eta ni txapel handi batekin bertsotan, eta ikurrina bat balkoian, halako zeremonia bat ere egin izan gendun, ba bai, ba nik uste gauza horiek danak Gasteizen bakarrik ein leizkeela, ezta?

.–bueno ein ein leikez edonun

,–ez dakit utziko luketen, nik ez dakit Euskadi Irratian egin daitezkeen edo beste edozein irrati formaletan baina irrati pirata bat zan gure moduko piratentzat, eta horrelako piratak ziren han ibiltzen ginanak eta hori zan onena nahi zenduna esatia eta gainera onena zan pertsonajeen paperetik hitz egitea, ez norberaren ahotik, horrek askatasun handia ematen zun

.–Bueno hori gureta ein ginun bebai, osea, nik uste dot hola gauzak ein leikez edonun be beste gauza bat dau ya zuzendaritzak eta abar, euskadi irratia aipatu dozulako dinot eee, baina batetik zan gasteizek guri pertsonalki ematen oskun libertade hori bebai, igual gure etxe onduen pare bat gauza eiteko guk pe pudore geitxo eukiko ginun batetik eta bestetik bebai, nahiz ta momentu batetik aurrera entzuten abien danek, esango neuke, jakin nortzuk ginen, ta azkenien ez da bez hainbeste izkutatie, baina bueno pertsonaje baten izenien eiten dozunien berba, ba azken baten bertsotan be askotan pasetan da hori, zuk esango zeunkezan edo momentu baten grazia eiten dotzun gauza asko ba pertsonaje baten ahotik errezago esaten dozuz Igor Elortza edo Jon Maian moduen baino, ezta? Zelan ematen dauen, ostias, ez dakit oin ze adibide zehatz jarri, ezta baina bueno horrekin jokatzia…

,–jarri dituzun biak gainera insoportable batzuk dira

.–bai, bai, bai, bi horrekin…

,–horiei ezin zaie sinistu ezer, gainera! heien ahotik datorren ezer!

,–gero aipatu behar dira ba riojana-ko afariak, programa hasi aurretik jaten genitun bokadiloak eta ardo botila fijoa, nik uste Gasteizko experientziaren esentzia botila batian kabitzen dala, osea hango ardua zan kasikan gure bizitzaren ardatza, kar, kar, kar, ez bizitzarena, baina gure experientzien esentzia zan…

.–hombre gero jendiek pentsaten aben, ze klaro pseudonimoena ta hori ondo dau baina, dana zala teatrue, baina dana zan egixe aldi berien, akordetan naz behin estudixuen ez dakit ze hasiera antologikue ein ginun, baina azkenien amaitzen ginun topa eiten eta estudixoko bestekaldian euezenak entzuten hainbeste deskojonau ziren ze esan eben «jo ke buenos» eta zabaldu abien atie eta ikusi abien kontetan egon ginen dana egixe zala, uste dot egon ginela jaten ta ardaue edaten aldi berien ta ji ji ja ja, ta «joke buenos!» ta «jo ke buenos, no joe ke hemen gauz de merendola!».

,–behin etorri ziran kolaboratzaileak estudiora, han ein gendun festa! Harrapatu gendun bat…

.–kolaboratzaileak eta zelan da beste bertsolari hori, Larraulgoa…

,–zein?

.–Jesus Mari ooo

,–A txiki bat?

.–bai beste txiki hori, han ein gendun hasiera bat justu eguen Tau, ez dakit zein..

,–bai?

.–Bai harrek ein eban Saldiasena, Xabier Saldiasena, bai, bai Irazuk

,–joe ez naiz akordatzen

.–Bai Xabier Saldiasen papera, giputza zala

,–a bai! Kar, kar!

.–han eguen ta «etorri hadi, la hostia, etorri hadi programara, ez dakit zer eta…» ta ezetz ta baietz ta hik Saldiasena eingo dek eta benga! Ez dakit zer ei neban

,–ta kia ta botila!

.–ta gero eguen beste bertsolari hori, zelan da durangokue patilladun hori?

,–bai beste insoportable bat

.–beste insoportable hori, harek potroen puntan ipinten jakona eingo aben, baina zan justu TAU eguen, ez dakit zer zan ze kopa edo Europako zein partidu o ez dakit zer, baina ein gendun programa hasierie hau paperien reproduzitzie oso gatxa da baina zan: «Manuel Rivaaaas! Gure laguna da! Ez dakit zein! (alineaziñue esaten) ta gure laguna da! Ta azke-

nien Jose Antonio Ardanza! Ta gure laguna daaa!» kar kar… danak, danak Galindo ta la hostia!

,–bai, bai bagenekin zer eiten ari ginan osea ridikulua, baina jendiak ondo pasatzen zula, ezta? Batez ere guk! Gonbidatu batzuk eraman genitun eee!

.–Lora batzuk entzuten gemezen programagaitik, batez be Jonek badeko kapazidadia jendie…

,–lorak asimilatzeko? Kar, kar

.–bueno lorak asimiletako ta inkluso reproduzidu ta biderkatzeko

Biek kar, kar

,–Poloniaraino iristeko pilotakin!

.–kar, kar!

,–bai gero batzuk Altsasutik entzuten zutela eta ez dakit nondik, gerora jendiak komentatu izan digu… zeintzuk eraman genitun? Jon Arretxe behin!

.–Markuleta

,–Iñigo Muguruza

.–gero sasoi baten ibili ginen pixkat, pixkat eee…

,–flojetazen?

.–ez, ez bai flojeetan, pixkat tipo profesionalak ibilten diren moduen, entrebistak eiten jendeari ta, hor flojeu ein ginun momentu baten, jendeari deitzen geuntzon, Tapaiari…

,–bai, zeozer ez geneukanian ba entrebista serioa eiten gendun… (biek kar, kar)

.–bai Iñigo Muguruza etorri zan atara ebanien "karpe diem", bai baina bueno orduen izan zan, derrepente 3 hiletan eman oskuen ba ezagutzen gendunez jendie ba jendie entrebisteagaitik, nik uste dot hala bedi-k eskartu abela, baina gero ya pasetan zan egun hori ta barriro be harrapetan ginun ondie ba hoixe tontuana eiten ibilteko…

,–baina gainera, gainera tontuak ee!

.–baina inteligentzixaz! Osea tontakeixa inteligentea!

,–bai, bai!

.–eta ez dakitt, zelan… zelan amaitzen diren hemen gauzak, programian moduen ez?

,–bai, bai, ondo!… asko maite degula Gasteiz eta pixka bat abandonatuta ere badaukagu…

.–bueno nik gure dot aprobetxau bebai agurtzeko Estokolmo, Singapur eta Kongoko entzuliek aspaldi ez gara egon eurekin!

,–bai, bai! Horiek abandonatuta dauzkagu

.–gero han Marten daukaguzen lagunek bebai

.–eske urtiek dire! Hortik agertu barik eta aprobetxau in biher!

,–bai, bai Finlandiakoak, eta Polonia eta horko jarraitzaile guztiak, ezta? hala bedi entzuten duten horiek guztiak ba bueno bizi gerala oraindik eta nork daki ba egun batean igual izuliko ote diran punto ta koma…

.–bueno orduen hau amaitzen da «eta punto» batekin!

,–eta… eta koma!

## KARTZELAKO GAIA

Nahiko genuke kartzelako gaia bertsotan erabiltzen dugun metafora hori balitz beti. Eta betiko. Baina ez, justua iruditu zait, zuzena eta beharrezkoa kartzelako gaia sartzea gure liburuan. Arrazoia sinplea da, gure eskolako lagun bat baino gehiago, Abel bera, Xabier eta Rikardo Izaga, Nagore, Ibai, Txusta kartzelatik paseak izan dira, eta Iratxe eta Unai oraindik barruan daude. Beldur naiz gainera, baten bat ahazten zaidan, izan ere, gure herrian bertso eskolak eta kartzelak, biak dira oso bisitatuak.

Iosuri eskatu diot kartzelako gaia. Iosu ez zen bertso munduan asko ibili, zalea bazen ere, sartu baino lehen. Baina gero barruan "alikates" oso ezaguna zen bere bertso zaletasun izugarriagatik. Eta 19 urtez kartzelako gaian bakarka jardun eta gero, irten eta berehala kantukideak bilatzen hasi zen. Egun, Urbinatik Gasteizera egiten du txango bertso eskolara joateko. Txapelketan ere ateratzen da, eta beste gauza askotarako bezala, bertsotarako ere sekulako afizioa eta, batez ere, ilusioa dauka.

Ormaetxeatarren kasta.

Iosu Ormaetxearen argazkia

**Bueno Iosu, noiz eta nola hasi zinen euskara ikasten?**

Hasi Urbinan hasi nintzen duela 30 urte, garai horretan Araban eta Euskal Herri osoan sortu ziren gau eskolak Aek-rekin eta Urbinan ere sortu genuen. Baina gero euskaldundu euskaldundu kartzelan, han topatu nuen lagunarteko giroa guztiz euskalduna baitzen.

**Eta bertsolaritzaren berri nola hartu zenuen, nola ezagutu zenuen?**

Ba Kutxin 81 edo 82. urtean gu koadrilan gindoazen eta topatu ginen 2 edo 3 lagunekin bertsotan ari zirenak, eta nik galdetu nien zertan ari ziren nire euskara traketsarekin. Haietako batek, bere aurpegiarekin oraindik gogoratzen naiz, azaldu zidan bertsotan ari zirela, nik ez nion piperrik ulertu. Pertsona hori "txinotxu" zen gerora Arabako lehenengo txapelduna izango zena.

Ondoren noiz edo noiz joan ginen Txustara bertso afariren batera, baina gutxi. Benetan zaletu kartzelan zaletu nintzen. Herreran herrialde guztietako presoak zeuden eta kristoren irakasleak izan nituen euskara ikasteko eta bertsotan ikasteko. Bertsotan, batez ere, Xabier Beloki Kortajarena igeldotarrarekin aritu nintzen, gainera gero biok Garocara eraman gintuzten elkarrekin. Sakabanaketaren proba bezala egin zuten.

**Nik entzunda daukat "alikates" (Iosu) beti bertsotan ari zela barruan...**

Egia da bai, ez dakit sekulan bertso onik bota dudan, baina noizbait etorriko dira onak, eta oso onak, kar, kar! Nik euskara ikastearen prozesua bizi izan dut eta uste dut lotsa galtzeak sekulako garrantzia duela, ez da lotsagabekeria, baina ridikuluari beldurra, batez ere lagun artean, ez zaio eduki behar.

Beraz, nik nekien apurra egiten nuen eta kantatu ere bai, jende guztiak eskatzen zidan. Txiplas ere Jon Etxeandia eta nirekin entrenatzen ibili zen "Audiencia Nacional"-eko epaileari bertsotan erantzuteko. Eta hala egin zuen. Epaileak galdetzen zion ea ezagutzen zuen ETAkoa zen emakume hura, eta besteak bertsotan, Herriko Tabernan poteatzen ikusi zuela edo presoen aldeko mobilizazioetan… Eta galdera guztiei bertsotan erantzun zien. Gero madero batek "pezeratik" atera eta bizkarrekoak ematen esan zion: «Muy bien chaval has puesto ambiente!».

**Nola jarraitu duzu barrutik kanpoko bertsolaritza?**

Ba jakin-min izugarriaz jarraitu dut, senideek eta lagunek zintetan grabatzen zituzten saioak eta ahal zen kartzeletan sartu. Askotan oztopo askorekin, 1993ko EHko Txapelketa Nagusia jokatu zenean, adibidez, Jerezen nengoen eta han ez geneukan bisabisik, ezin ziguten ezer sartu… Txapelketa hura bi urte beranduago heldu zitzaidan.

Horrela doinuak eta ikasi ditut, bueno oinarrizkoan Xabier Belokirekin ikasi nituen, Bilintxenak, Mainontzi, Bizkaiko aberatsak…

**Herritik kanpo 19 urte eman eta gero, nola aurkitu duzu euskara eta bertsoaren egoera Araban eta Euskal Herrian?**

Beste herrialdetaz asko ezin dut hitz egin, baina Arabaz bai hitz egin dezaket. Beste herrialdetan maila altuagoa dago, baina Araban jauzi ikaragarria egon da bertsolaritzan eta euskaran. Orain 25 urte Kutxin euskaraz entzuten bazenuen harriduraz begiratzen zenuen, eta Kutxitik kanpo izu aurpegiaz begiratzen zuten. Alde horretatik jauzi ikaragarria bai, nire inguruko jende asko euskaldundu da eta orain euskaraz egiten dugu.

Egia da orain euskaraz jarduteko irrika hori ez dela lehengoa bezalakoa gazteengan, guretzat zen kristauentzat katezismoa bezala.

Bestalde lehen Araban bertsolaritza guztiz tradizionala zen, molde bat zegoen eta hortik ateratzea oso zaila zen, jenda gustura zebilen horrekin, eta horrekin segi! Orain zabalagoa da, bertsolariak nortasunez ezberdinagoak dira eta bertsolaritza zabaldu da esparruz, estiloz… Freskoago dabil alde horretatik, adibidez alderatzen badituzu Oihane (Perea), Iñaki (Viñaspre), Ruben (Sánchez) eta Rikardo (Glez. de Durana) oso ezberdinak dira.

**Atera eta berehala bertso eskolara sartu zinen, zer moduzko giroa daukazue?**

Bertso eskolan ezin hobeto, egia esan. Irten nintzenetik 3 urtez ibili naiz, lehenengo urtean Xabi Payarekin eta azken bietan Iñakirekin. Giro ederra dugu, nire bizitzako bertsorik onenak han bota ditut, Iñakik konfiantza handia ematen digu. Gazteekin ere joan naiz bertso eskolara eta horrek ere asko lagundu dit lotsa galtzen, zeren eta haiekin astakeria bat botatzen baduzu barre egingo dizute, gazteak dira eta.

**Eta etorkizunari begira, zer asmo?**

Asmoa gorantza joatea, lehenik Arabako Txapelketan (beheragο joatea zaila da! kar, kar). Oraindik ez dut eman eman nezakeen %10 ere, txapelketan urduri egoten naiz, trabatu egiten naiz. Tabernetan edo eskolan lasaiago egoten naiz, traketsak ere botatzen ditut baina tira.

**Zer eman dizu bertsolaritzak?**

Niri bertsolaritzaren munduak asko eman dit. Harreman hori oso aberasgarria izan da niretzat, euskara ere ia-ia bertsolaritzari zor diot, idazten ere bertsolaritzari esker trebatu naiz, lehen oso gutxi idazten bainuen, lagun asko eta oso onak eman dizkit…

Bakartuta eduki nautenean ere bertsotan egiten nuen, bertso asko dauzkat idatzita orduko koadernoetan, bertso pila bat. Hasieran Euskal Herriaren aldeko borrokari emanak ziren, gero gaiak zabaltzen joan nintzen: maitasuna, ziriak lagunei… Bilakaera bat ikus daiteke koaderno horien bidez, orain fenomeno bat naiz garai hartako Iosurekin alderatuta!

Fenomenoak beti fenomeno Iosu!

## ARABAKO BERTSOLARITZARI BULTZADA; ESKOLEN GARRANTZIA

1982ko urrian Gasteizko talde euskaltzale bat bildu zenetik eta sortu zuten lehen bertso eskola haren hastapenetatik, hamaika dira Araba osoan zehar sortuz joan diren bertsotarako taldeak. Bertso eskolen ugaltzea emateaz gain, ordea, bada bertsolaritzaren transmisioa zeharo eraldatu duen bestelako fenomenoa, hezkuntzarena, alegia. Gaur egun, tokian tokiko bertso eskolekin batera, asko dira bertsolaritza ikasgai gisa eskaintzen duten irakaskuntza zentroak, horretarako Arabako Bertsozale Elkartearen laguntza izanik. Era honetan, gero eta gehiago dira txikitatik bertsolaritzarekin nolabaiteko harremana duten haur arabarrak, garai batean euskal kulturaren alor honekiko egondako ezjakintasunarekin apurtuz.

Urtetik urtera ugarituz joan dira Bertsozale Elkartetik bertsolaritzaren irakasteari begira abiatu diren ekimenak eta egun lagun talde polita aritzen da bai transmisioa deritzon lan arloan, bertso eskolekin zein euren arteko harremanez eta ekimenez arduratzen, eta hezkuntza arautuko lanaren jarraipena eginez, hain zuzen.

Egun irakasle lanetan dabiltzan asko eta askok eskoletan jaso dute bertsolaritzarekiko zaletasuna eta ikastola, institutua edo eskola izan dira euren jarioaren iturburu. Horietako bat dugu Irati Lotina. Hogeita hiru urteko neskak gertu ditu institutuko garaiak eta han jaso zituen bertsolaritza klaseak ere. Gaur baina, bera dugu irakasle lanetan, bertsolaritzan, beste horrenbeste alorretan bezala, ikasle izateari inoiz uzten ez zaion arren.

### Irati lotina (Bertsolaritza irakaslea Laudioko bertso eskolan)

#### Nola eman zenuen ikasle izatetik irakasle bihurtzeko jauzia?

13 urte nituela hasi nintzen bertso eskolan. Txustan elkartzen ginen gazte gehienak taldetxo batean. Urteak aurrera joan ahala pixkanaka-pixkanaka eskaintza zabaltzen joan zen eta bertso eskola gehiago sortu zen. Guk lehenengo urratsak emanak genituela eta, hasi berria zen talde bateko irakasle izatea proposatu ziguten lagun bati eta bioi.

Orduan hasi eta iaz arte. Zorionez, bertsolaritza Araban ere gero eta oihartzun handiagoa duen esparrua izanik, taldeak ugaritu egin dira eta apurka-apurka errelebo hori ematen doa, progresio natural batean, ikasle direnak irakasle ere izanik.

#### Nola izan ziren hasiera horiek?

Irakasle lanak bi esparru ezberdinetan burutu ditut, bertso eskoletan eta hezkuntza arautuan. Lehenengoan sei bat urte eman ditut, hezkuntza arautuan, aldiz, bi urte.

Bertso eskoletan abantaila handiarekin hasten zara, izan ere, taldekideak gogotsu daude bertsotan hasteko eta motibazio handiarekin etortzen dira, oro har. Era horretan, lanaren zati handi bat egina duzu kasik oharkabean. Oroitzen dut izan genuen lehenengo taldea, gehienbat, euskal filologiako ikasleek osatua zegoela eta kontutan izanda gu baino dexente nagusiagoak zirela eta gure lehenengo esperientzia zela, hasieran segurtasun falta sumatzen genuen. Haien jarrera ikusita, ordea, eta zegoen giro paregabeak lagunduta, oso esperientzia aberasgarria izan zen. Handik gutxira, hamabi urteko hamar bat neska-mutilekin hasi nintzen klaseak ematen eta oroimen ezin hobeak gordetzen ditut.

Hezkuntza arautuan, esparrua ezberdina bada ere, oso esperientzia polita bizi izan dut. Eremu honetan baina, hogei bat ikaslek osaturiko taldeak izaten dira irakasle bakoitzeko eta motibazioa, batzuen zein besteen aldetik, ezberdina da oso. Orokorrean, hala ere, oso ondo igarotzen dituzte klaseak, izan ere, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak hezkuntza arauturako duen planteamendua nahiko metodologia eta dinamika ludiko eta motibagarrian oinarritzen da. Honen ildotik, esan beharra dago, Bertsolaritzaren Kurrikulua ere egin dela, ezinbestekoa zelakoan baikeunden, hezkuntza arautuan genituen helburuen gauzatzerako.

**Zer zailtasunekin egin duzu topo?**

Zaila da galdera honi erantzutea. Ezberdina da bertso eskola edo hezkuntza arautuan irakastea eta, beraz, zailtasunak ere oso ezberdinak dira leku batean eta bestean. Adinak ere zerikusi handia duela esan behar da. Gurea bezalako herrialde batean, eskola eta kokalekua zein inguruaren arabera, zenbaitetan, hizkuntza bera bilakatzen da arazo. Beste batzuetan, bertsolaritzaz ez dute inoiz ezer entzun haurrek, oso urrutiko zerbait da beraientzako, horrela, esanguratasuna bilatu behar diozu gaiari, euren errealitatera hurbildu, zerbait erabilgarritzat, motibagarritzat izan dezaten.

Bestela, orokorrean, zailtasunak ez dira asko eta daudenak ere, ez dira, gehienetan behintzat, bertsolaritzarekin harreman zuzena dutenak.

**Zer behar dute ikasleek bertsotan aritzeko?**

Gogoa. Batzuek erraztasun handiagoa izango dute besteek baino, baina nire ustez motibazioak, saiakerak… muga gehienak hauts ditzake. Ongi aztertu behar dira helburuak eta horren arabera aztertu, baina nire ustez, bertsotan egiteko eta bertsolaritzaz gozatzeko baliabide eta egoera egokiak eskaintzen bazaizkie, aritzeko gogoa besterik ez dute behar.

**Zein da egun eskolen egoera? Zer giro bizi da?**

Kostata lortzen ari bada ere, apurka-apurka bertsolaritza leku bat betetzen doa, hezkuntza arautuan ere. Hizkuntzaren irakaskuntzan eragin zuzena ekar dezakeen esparrua dela begi bistan geratzen ari da bertsolaritza, hitzekin jolastea delako, azken finean. Arabak duen errealitate soziolinguistikoa kontutan harturik, ahozko hizkuntzak gabezia nabariak dituela esan dezakegu zalantza gabe, eta gure lana hori bultzatzea da, haur eta gazteek euskara erabiltzea, hain zuzen ere, ahozkotasunean trebatzea. Nik, behintzat, gero eta jarrera positiboagoa ikusten dut gure lanarekiko eskoletako irakasleen aldetik, beharra nabarmena da eta begirunez tratatzen dute bertsolaritza.



## Juan Mari Juaristi (Bertsolaritza irakaslea Koldo Mitxelena institutuan)

Artean gaztetxoa zela kantatu omen zuen estreina Pedro Mari Otañok Karidadeko Bentan, Jose Bernardo osabak etxean bertsolari hobea bazela esanez bertara eramanda. Zarauzko Azkenportu tabernan zaildu zen Basarri mutil koxkorra inguruetako bertsolariei entzunez; zortzi urterekin hasi Uztapide bertso zaharrak buruz ikasi eta kantatzen, bat-batean ausartu aurretik, burua bertsoz ongi betez; antzekoa kontatzen digu Xalbadorrek ere. Lazkao-txiki, bederatzi urterekin Uztapide eta Zepai kantari entzun zituen batean jo bide zuen bertsoaren tximistak.

Gaur puntan dabiltzan bertsolariei bere zaletasunaren iturburuaz galdetuz gero ordea, haiek ez bezala, eskola hitza aipatuko dute gehienek: herriko eskola, ikastola, bertso-eskola… garaiak dezente aldatu direnaren seinale. Izan ere, bertso eskolak sortu ondorengoak dira ia guztiak, Amurizaren lanaren ondorio neurri handi batean. Gainera, bertso eskolan hasi aurretik, ikastola izan zen gaztetxoak zirela bertsoaren mundura hurbildu zituena horietariko asko eta asko, eta egun, mordoxka bat behintzat, ez litzateke bertsolari izango lehen pauso hura bere garaian eman ezean.

Gaur egun ere bada horren premia. Euskal Herriko gaztetxoak teknologia berriez inguraturik bizi dira batetik (Telebista, Play Station, Interneta, Mugikorrak, Mp3), eta bestetik, jarduerak praktikatzeko duten aukera aniztasuna ikaragarria da: ingelesa, pianoa, saskibaloia, eskalada, karatea… Ondorioz, bertsolaritza bezalako hitzezko eta kantuzko ariketa soil eta askotan arrotz batera euren kasa inguratzea –zer esanik ez Araba bezalako lurralde erdaldun batean– oso-oso zaila gertatzen da, eta ezinbestekoa da eskolaren lana bertsoaren ingurumariak ezagutaraziz gustatu eta bertsozaletu daitezen. Beraz, interes pitin bat dutenek lehen pauso hori eman dezaten eta ez dutenengan apur bat zaletasuna pizten saia gaitezen, eskolak ahalbidetu behar du bertsolaritzarekiko lehen hurbilketa, eta hurrena bertso eskolan luzatu pausoa; hortik aurrera, plazarik plaza eta ibilian ibiliaz egingo du bere bidea bertsolari izan nahi duenak.

Zaletasuna bultzatzeko, arestian esan dugun bezala, funtsezkoa da eskolako eskaintzari eustea eta bertan bertsolaritzaren oinarriak lantzea eta ezagutaraztea. Hori burutzeko bideak desberdinak izan litezke, eta Euskara ikasgaian integratzearekin batera, Koldo Mitxelena Institutuan azken hamarkadan egin dugun bezala bertsolaritza hautazko ikasgai gisa eskaini behar da, ikastaro trinkoak burutu aldizka, eskolaz kanpoko tailer modura ere bultzatu, bertso saioak bertara eraman.

Kontua ez da –eta hau argi utzi nahi nuke– eskolatik bertsolariak ateratzea, hori helburuak gehiegi murriztea bailitzateke. Taldetxoak osatu behar dira, bertsolaritza eta bertsoa lagun giroan bizi: bertso zaharrak ikasi eta kantatu, saioak entzutera eraman, sariketatxoak antolatu, topaketak… Euskara, bertsotan aritzeko ez ezik, harreman-hiz-

kuntza gisa erabiltzeko indartu behar da lehen-lehenik ingurune erdalduna dugun eskoletan. Ezin da ahaztu guretzat bertsolaritzak betetzen duen euskalduntze funtzioa.

Halaxe gabiltza gure institutuan eta Araban barrena hamaika eskola publiko eta ikastoletan, eta halaxe jarraitu beharko dugu aurrerantzean ere: pausorik pauso bidea eginez lurrak emankorrenak ez badira ere, ildoak irekiz eta erretenak zabalduz gure lurraldean ere uztarik izango bada. Nolanahi ere, aitor dezagun, Araban gaur bizi dugun egoera –bere gabezia eta guzti– ametsa baino ez zen duela hogei urte. Egun, bertan, koadrila polita osatzen dugu plazak egiteko moduan gabiltzan bertsolariok, eta ikasleak izandakoak euren irakasle ohiekin entzun litezke kantari, aurkezle lanetan edo gaiak ematen; bertso eskolatik edo institututik pasatakoak beren zaletasuna mantentzen dutela ohartzen gara gainera sarri publikoaren artean ikusita… Ez da gutxi!

Noski, badira lana edo ikasketengatik bidean geratu zaizkigunak, tamalez bertsoa utzi egin zutenak edo nahi beste aurrera egin gabekoak, eta baita agian nazkatu edo aspertu zirenak ere; uste dut antzera gertatzen dela leku guztietan. Aztertu egin beharko dira gaizki eginak, aurrerantzean lan ildoak ongi zehaztu eta motibazioari eusteko egin beharrekoak egin. Ibilian egiten da bidea eta prest gaude urrats berriak emateko. Hori bai, duela hogei urte ez bezala, gaur bertsolaritzak existitzen du Araban, bizirik da, eta han-hemenka egiten diren saioetan, gure publiko propioa izateaz gain, hainbat gaztez eta ez hain gaztez osatutako talde polita mugitzen du inguruan, eta hein batean eskolarena ere bada horren errua.


ARABAKO
BERTSOLARI
GAZTEEN
I. EGUNA
Izarrako
Frontoiean,
Maiatzaren
3an
Idatzizko eta Bapateko
TXAPELKETA
ETA
JAIALDIA
Antolatzaileak
- ARABAKO BERTSOLARI GAZTEOK
- LAN ETA JOLAS
Laguntzaileak:
- ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA
- IZARRAKO UDALA




## BERTSOLARI GAZTEEN TOPAKETAK

### Bertsotan elkar ezagutuz

Arabako Bertsolaritza gaztetzat jo dezakegu zalantza barik. Ez soilik jarduera honen inguruan ditugun datu garbienak azken 20 urtetan kokatzen direlako, baizik eta Arabako bertsolaritzaren egungo panorama gazte jendeak osatua dagoelako hein handi batean. Arrazoi historiko eta soziolinguistiko zehatzak dituen egoera koiuntural honek, esperientzia berriak abiatzea ahalbidetu du, bertsolari gazteek bultzatuta eta hauei zuzenduriko egitasmoak sortuz. Honen adibide garbiena, *Arabako Bertsolari Gazteen Topaketak* dira, lehendabiziko aldiz 1998an ospatu eta urtez urte sendotuz joan den ekimena.

Urtero, asteburu pasa antolatzen du Elkarteak Arabako herri batean, eskoletan eta ikastoletan bertsotan hasitako gazteak bestelako testuinguruan kantuan ari daitezen. Begi bistakoa izanik gero eta arabar gazte gehiagok erabakitzen duela bertsolaritzara hurbiltzea, nabarmena da ere topaketa hauetan urtez urte izaten ari den parte hartzaile kopuruaren igoera, hala nola, bi egunetako eskola ezberdin honetan antolatzen diren ariketa, saio eta ekimenen aniztasuna.

## Irati Anda (Bertsolaria, Hala Bedi irratiko Bertxoko irratsaioko esataria)

**Noiz hasi zineten topaketa hauek antolatzen?**

Egia esan, ni ez nintzen Arabako lehenengo topaketetan izan, oraindik ez bainengoen bertso eskolan apuntatua. Topaketen birjinitatea Albeitzan eginikoetan galdu nuen eta horren esperientzia aberasgarriaren ostean urtero errepikatu izan ohi dut, bai nik eta bai beste hainbeste gaztek eta ez hain gaztek.

**Zein behar ikusten diozue horrelako ekimen bati? Zer helburu dute topaketek?**

Nire ustez helbururik garrantzitsuena bertsoak gozatzea eta bertsoekin gozatzea da, beti ere ukitu patatero baten inguruan, bertsozale eta gazte sentitzen diren arabar denak batuta. Topaketa hauek oso motibagarri izaten dira eta urte osorako bateriak kargatzeko balio dute. Arabaren kasuan, gero eta gehiago izan arren, ez gara asko eta topaketak gure arteko harremanak indartu egiten ditu. Argi dago harremanak ondo doazenean lan taldea eraginkorragoa dela. Hala ere, parranda txikia egiteko aitzakia ere badira topaketak.

**Zer nolako topaketak izaten dira? Zeintzuk ekimenak?**

Urtero ezberdinak izan ohi dira topaketak, nahiz eta bertsoak beti diren plater nagusia, noski. Normalean ostiral gau batetik igandeko bazkalostera arte irauten dute. Afalosteak bertso trama, bertso saioa, bertso desafioa edo librean egiteko aukera eskaintzen du, baita kantu zaharrak kantatu eta jolas berriak probatzeko ere. Goizek badute bere xarma lotan daudenak zirikatzeko. Arriskutsua izaten da goizetarako ezer prestatzea parte hartze eskasaren ondorioz. Egunean zehar gogoetak, joko-jolasak, gorputz adierazpen ikastaroak… antolatzen dira edo gauerako gaubeila prestatzeko tartea hartzen dugu. Igandeak garbiketa brigadei ematen die bide; etxea txukundu eta hurrengo topaketen zain geratzen gara.

Topaketek bertso eskoletan ikasi duzun guztia praktikan jartzeko aukera ematen dute, baita gehiago ikasi eta trebatzeko aukera ere. Lotsa etxean geratzen da beti eta poliki-poliki eta nahi gabe bertso munduan murgildurik aurkitzen zara. Eskoletako lagunarte giroa sumatzen da, baina askoz indar handiagoarekin. Bertsoa gozatzeko beste modu bat da, dibertigarriagoa, praktikoagoa, ausartagoa, intentsiboagoa. Bertso gaindosi sanoa da.

**Zer eskaintzen dute topaketek egunerokotasunean eskolek ematen dutenarekin alboratuz?**

Bertso eskoletan apuntatzen direnak, gehienbat, gazteak izan ohi dira, umeak sarritan, baita bertso eskola horietako edukiak irakasten dituztenak ere. Argi dago gazteen ekarpena handia izan dela eta gaur egun ere badela. Talde polita bildu gara eta lanerako gogo handia dago, bai Arabari begira eta bai Euskal Herriarekiko elkarlanari begira ere. Elkartearen barruan erreleboa hartzeko prest ere badago gazteria. Bestalde, gazteen artean talde giro bat sortu da bertsoaren inguruan, bertsoa gozatu eta bizitzeko modu bat, arabarra eta gurea. Baita gozatzeko modu hori Euskal Herriarekin banatzeko gogoa.

## NIRE SEMEA DRISS (ETA ETORKIZUNEAN ZER?)

nik, ni baino zaharragoa den seme bat eduki nuen orain dela urte ta piko. orduan 7-8 urte neuzkan euskal herrian sortu (edo sartu) nintzenetik, eta 23 orduko haurdunaldia izan zen. gauzak horren azkar joanda, ez da harritzekoa euskal herrira sortu (edo sartu) eta berehala nire semea lan bila hasi izana, ez zen jaio bizitza erreza izateko hemen, ez. dena zailtasun, dena arazo, dena debeku, babesgabe eta txiro.

aitatxo eta aitatxoren lagun gehienak euskaldunak izanagatik, drissek euskara bigarren hizkuntza izan du hemen, gaztelania izan da lehenengoa. arrazoiak pisuzkoak dira: eskolak gaztelaniaz doan (euskaraz ez), lana bilatzeko euskara jakinda bakarrik ezinezkoa, telebista, aldizkariak….

hala ere, laster adierazi zigun euskara ikasi nahi zuela, eta aitatxo poz-pozik. euskaltegira apuntatu zen urtea egin aurretik. orain batzuetan euskaraz egiten dugu: agurrak, ohiko galderak, baina ziriak eta bromak ere bai. berak batzuetan aitatxo imitatzen du bertsotan (aitatxok batzuetan bertsotan egin behar izaten baitu). eta ez nintzateke sobera harrituko laster bertso eskolara apuntatuko balitz, daraman martxarekin!

ni, jakina, asko poztuko nintzateke, lehenengo kopla moldatutakoan, lehenengo ziriak eta adar jotzeak bertsotan egitean, lehenengo bertsoa bapatean botatzean… asko poztuko nintzateke holakoetan sentitzen den poza bere aurpegian ikustean. gainera asko du berak esateko.

hala ere, honetan ere ez du bide erreza izango gasteizko bertsolaria izatearena. ez du izango herri hizkera bat hari atxikitzeko. euskara batutik lehiatu beharko da besteak euskara jatorrean ari diren bitartean: esapide falta, inguruko euskal kulturaren gabezia, kalitatea…

nik animatuko dut, esango diot berak egin beharreko lana bi aldiz polita dela bere euskara eta bere bertsokera, biak eraiki beharko dituelako, eta hori sortzaile batentzat, (eta bertsolariak (eta pertsona guztiak) halaxe izan beharko lirateke), gaitza bezain ederra dela, baina ezina ez, ezina ekinez egina baita.

eta gainera bere eraikuntza lan pertsonal horrek maila kolektiboan ere isla izango duela, halabeharrez (eta hala behar duelako benetako bertsolarien jardunak). eta, beraz, berak egindako lana, ekarpenak, eta eredua gasteizko beste euskaldun batzuentzat baliagarriak izango direla, bai formak eta bai edukiak.

animatuko dut bai, lehenago gasteizko eta arabako beste batzuek hasitako bidean jarrai dezan, ondorengoek jarrai dezaten gero. esango diot laster gasteizko euskara bat-edo izango dugula, eta lasai egoteko batzuei gustatzen ez bazaie, gustuak beste pertsona dagoelako mundu honetan.

gaitzerdi! bera libratuko da, seguru asko, gauza askotatik, gasteizko bertsolari pribilejiatua izango litzateke bere exotikotasunagatik. izan ere hori dela eta barkatuko litzaizkioke: "ahoskera xelebreak", "euskara ez-jatorra", "erdararen eraginak"… *aizank jatorri marrokiar/berebereko bertsolariak ez titunk egunero ikusten!*

pena da bertako erdal jatorria dutenekin horren zorrotzak eta gogorrak izatea, belarrietan hainbesteko mina hartu behar izatea, horren onarkaitzak egitea.

gasteiz zazpigarren alaba da eta arabako herri txikiak zortzigarrena. baina testu honen helburua ez da gure penetan nahaspilatzea. erakutsi dugu aleka euskaldundu garela, gero aleok gure artean euskaraz bizi garela normal-normal, orain hiztun komunitatea indartu behar dugu eta bertsoak badu horretan bere ekarpena. Arabako bertsolariok gozatu eta ahal dela gozarazi behar ditugu arabako bertsozaleak (eta euskal herrikoak), gure bertsokera eta erreferentzia propioekin. oraindik ere, sabandoko gamizen olerki-bertsoak, orain dela 200 urte baino gehiago idatziak, indarrean darrai:

gaizqui badoaz ere,
orra eusqueraz,
ifin naiz au eguiten,
neure bildurraz,
eguizu farre,
gaizqui mintzatzen badut
lotzarik bague

arabako euskaldun zahar, gazte, ikastolako, etorkin eta joakin, kanta dezagun, maitatu eta bertso txarrak bota…

animo denori, gaur bazkaltzera bai driss?

# ARABAKO "BERTSO AURREKARIAK"

Eta lehenago zer? Ba lehenago zegoen puzzlearen pieza batzuk baino ez ditugu, tamalez pieza gutxi horiekin ezin dugu pieza guztiek osatuko luketen irudia(k) ikusi. Irudikatu dezakegu ordea, hori librea da: orain dela ez hainbeste Araban euskarazko bertsoek, koplek, baladek, ipuinek jendartean zeukaten lekua, eragina, garrantzia… Oraindik ere XXI. mendean bizirik daude Arabako euskaldun zaharrak Aramaion edo Legutiano (Nafarrete, Urrunaga, Elosu, Ollerieta) aldean antzinatik zetorren jendarte hura ezagutu zutenak, ahozkoa nagusia zen garaia. Bestalde, bitxia da, gaur egun alaba ahultzat jotzen den Arabak beste garai batzuetako euskara lekukotasun dexente dituela,[4] eta haietako batzuk bertso moldean, gainera, ondoren ikusiko dugun bezala.

XXI. mendean Araba gehienean euskara berreskuratzen ari gara, eta Aramaio eta, indar gutxiagoz, Legutiano aldea baizik ez dira bertako euskara gorde dutenak. Badakigu, gutxi gorabehera, gainontzeko arabar lurraldeetan euskara noiz galdu zen, baina bertso tradizioa… Hori zailagoa da. Plazaz plaza ibili ez direnen zerrenda osatzea ez da erraza, lehenago zein "etxeko" bertsolari zeuden jakitea, baten aitonaren osaba, baserri hartako Manuel… Bertsoa ahotik belarrira joan ohi da, bertso paperetan ez zenean, horrek zailagotzen du. Hortik pentsatu ezazue, mugetako euskal lurretan, non euskara puxkaka ordezkatua izan den, are zailagoa dela, zegoen euskal kultura (bertsoa besteak beste) zer/nola zen irudikatzea, baina zirriborrotxoa egin ahal da.

Liburu honen xedea ez da ikerketa lana egitea, bilketa xume bat egin dugu, eta zuri, irakurle, jakingarri ipini. Baten bati pizten badiogu gogoa puzzle horren pieza gehiago aurkitzeko eta non kokatu litezkeen asmatzeko, e derto!

Orainetik iraganera joanez, egungo "euskal eremutik" abiatu behar dugu. Legutiano eta Aramaio. XX. mendean biak euskaldunak izan dira, horrek esan nahi du bertsolaritza

4. Esti Breñas eta Jabi Otsoa de Aldak, GEU elkartearen bidez, egindako "Arabako Euskal Hotsak" liburua da egun Arabako euskarazko lekukotasunak jasotzeko tresnarik onena. Pena da Lazarragarrena liburua argitaratu baino pixka bat beranduago aurkitu zela!

ezagun dutela biek, Aramaioko kasuan bertso tradizio handi samarra egon da gainera eta bertso saio asko egin izan dira: Uztapidek berak bere "Lengo egunak gogoan" liburuan aipatzen du «gu pozik joaten giñan Aramaiora bertsotara, Araban izan giñala esateko ere; baña etzegoan beste nora joanik, eta erri batekin konformatu bear». Pozik egongo da ziur Uztapide zaharra eta berarekin etortzen zen Basarri orain Arabara leku gehiagotara etortzea luketela ikusita; dena den, liburuan bertan berak bazioen: «Bitorian ari omen dira batzuek orain euskeraz ikasten. Bitoriak ez du galdu egingo euskerarik. Ni egon nintzan an mutil koskorretan, eta an etzan orduan ere itzegiten euskerarik [...] orregatik esaten det Bitoriak ez duala galduko euskerarik; bada ere, irabazi. Berrogei ta amarrek ikasten badute ere, aiek gehiago, eta galtzeko bildurrik ez». Eta hemen eransten dugu Gasteizen bezala, gainontzeko Arabako herri eta haranetan.

Uztapide eta Basarri Aramaion (hau da, Ibarran) eta Azkoagan ere ibili ziren bertsotan, eta bertso hari hori ez da eten zaletasunean. Orain ere urtean zehar bertso saio dexente antolatzen dira. Aldeak egon badaude hala ere, lehengo garaietan bertsolariek ez zeukaten kotxea hartu, kantatzera joan eta buelta egiterik, Aramaiora iristea Uztapide eta Basarrirentzat ez zen ordubeteko kontua. Aramaiora, ordea, gustura etortzen ziren, non geratua bazeukatelako. Ormaetxeatarren etxea zen beraien aterpea eta oso lagun onak ziren. Errenteriatik atera bost eta erdietan trenean Amararako, sei eta erdietan Amaran Bitoriakoa hartu, Arrasaten gelditu eta Aramaiokoa hartu: «etzan bereala izaten gosaria, ara iritxita!».

«Esan bezela, gure saioa arratsaldean izaten zan. An saloi koskor bat bazan, eta ara joango giñan. Angiozarko Pelisek joko zuan lenbizi soñua, pare bat pieza, eta Basarrik eta nik bertsotan egingo genduan beste saio bat. Txandan, orrelaxe, pare bana saio egingo giñuzen [...] ta erri guzia ederki dibertitzen zan. Gero, gaberako ere, bertan gelditzen giñan geienetan. Ormaetxearen etxera bilduko giñan, eta an ederki apaldu ta bertso-saiorik etzan paltako, apaldondora ezkero [...] gero, badakizu, Aramaiora hainbeste aldiz joaten giñan eta Azkoagan ere bazuten gu eramateko desioa, eta ara ere joan giñan, ba, alako batean». Uztapidek ederki kontatzen du Azkoagakoa ere.

Ormaetxeatarren etxea nik entzuna neukan, baina Txipi eta Txerrenengatik. Gasteizko bertso eskolako sorrera hartan biak ibili ziren beste batzuekin batera eta egun ere jarraitzen dute gure hemengo bertso giroan oso lotuak. Haiek dira akaso gure "aro modernoan" etxean bertso afizioa berrartu zuten lehenengoetako arabar gazte euskaldun zaharrak. Txipik adibidez gogoan du oraindik bere aita Imanolek kantatu zion bertsoa 10 urterekin apaiztegira bidali zutenean: «Gauza bi eskatzen dizut biotzan erditik/ zuk irtetzen dezu gaur goizian goizetik, otoi egin zazula gurasoa gaitik, eta euskera ez aztu Jaungoikoa gaitik!». Zenbat etxe eta baserritan egongo ziren horrelako bertsolariak?

Baina bertsoak funtzio ezberdinak izan ditu beti, eta Araban ere horren lekukotasunak badauzkagu, bertso paperek, adibidez, berriemaile lana izan dute EH osoan. Aramaion bertan, 1935ean, *Lurgorri*ren inguruko gazte-talde batek gurutzea eraiki zuen Belamendin (tartean Ormaetxea familiko 5 anaia). Berrogei urte luze pasata, 1977ko lehen egunean

ikurrina jarri zioten. Guardia zibilak, ordea, oso pozik ez ziren geratu eta gurutzea bonbakatu zuten ikurrin eta guzti. Hori dela eta, Aramaion urte askoren buruan lehen manifestazioa egin zen urtarrilaren 5ean eta bertso paperak ere atera zituzten "Arabarrak" goitizenarekin sinatuta ekintza hori salatuz. 6 bertso izan ziren, azkenak honela dio: «Gurutze hori botatzen ziranian asi/nola eroria zan askok zun ikusi/Orduantxe erriak egin zun karraxi/alkatia aurretik guzien nagusi/baña artu zituzten tiro eta guzi». Doinua ere idatzi zuten: «Otaño aundiak bere semeari amerikara zijoala jarriak».

Historiako istorio honekin bukatzeko esan behar da urte hartako martxoaren 5ean "Aramaixotarren ekimen ausartaz" ostera jaso zela berriztapen ekitaldia, berriz, uztailaren 17an izan zen, eta plakatxo bat jarri zioten: "Lurgorri"k jaso nindun lerkaiak irauli/berriz zutik nauzute esker herriari/mendi tontor honetan guztion zaindari. 1935ean gurutzea lehenengoz altxarazi zutenean, Lurgorri, eta beste lagun askoren artean, Ormaetxeatar 5 anaiak hartu zuten parte. 1977an aramaixotar haien hurrengo belaunaldiak egin zuen.

Legutiano.

Bertso paperen haritik segituz, mende bat aurrerago joango gara. Guda karlistak zirela eta, Hego Euskal Herriko luze-zabalean asko izan ziren bertsoak propaganda politikorako erabili zituztenak, alde batean zein bestean. Araban ere hala gertatu zen. Araian 2 bertso sorta aurkitu dira. Zeferino Lopez de Ilarrazak egin zuen bat, 1870ean idatzia, 22 urte zituela, hortik 15 bertso geratu zaizkigu. Nahiko zori ona eduki dugu, izan ere, giro politikoagatik maiz egileak ez zituen bere izen-abizenak idazten. Nahiko tonu ironikoa eta burlazkoa darabil, liberalek Savoiako Amadeo Espainiako errege jarri nahi zutela eta, kontra eginez.

Bigarren bertso sortaren egilea, ordea, ez dakigu. Horiek ere karlisten aldekoak dira, aurrekoarekin alderatuta euskara ezberdinez eginak dira.

Lehenago euskaraz idatzita utzitako bertso/olerkiak asko dira:

–Josef Paulo de Ulibarri y Galindez Okondokoak (1775-1847) egin zituenak. Gaiak natura, hizkuntza, matematika, hezkuntza, gizona, historia… ziren.

–Sabandoko Joan Baptista Gamiz Ruiz de Oteorenak (1696-1773), umorea, euskara, emakumea, naturari buruzkoak eta batzuk klabean idatzita.

–Aramaioko Pedro Ignacio de Barrutia y Basagoitiak (1682-1759) bertsoka idatzitako antzezlana "Gabonetako ikuskizuna", umorezkoa dena.

–Urizaharreko Martin Portalek 1610ean lehen postua irabazi zuen Iruñean antolatu zuten Poesia lehiaketan. Gai erlijiosoa da.

–Larreako Juan Perez de Lazarragak 1564-1567 bitartean idatzitako eskuizkribua, batez ere neurri handiko koplek eta bertsoek osatua. Maitasunezko bertsoak dira gehienak.

–Azkenik Ozaetako Santxak utzitako balada bere senarra Martin Bañez de Artazubiaga 1464an hil zutelako.

Beraz, bistan da Araban Erdi Arotik eta XXI. mendera arte, emakumeek, jauntxoek, apaizek, militarrek, eta pentsatzekoa da herri xeheak ere euskaraz koplak, baladak, bertsoak, neurtitzak, olerkiak, bertsopaperak, salaketak... egin zituela. Gainera, Arabako koadrila gehienetan geratu zaizkigu lekukotasunak. Ahozkoak berebiziko pisua zuen. Euskara ordezkatua izan zen herrietan, galtzen azkena kantak izan ohi dira. Ez da bide txarra izango bere berreskurapenean, beraz, kantatzea.

Oinetako lur hau jabilt ikara,
Lau haragiok bere han berala,
Martin Bañes Ibarretan hil dala.

Hartuko dot esku batean gezia,
Bestean zuzi irazegia,
Erreko dot Aramaio guztia.

*Ozaetako Santxa*

# ESKER ONAK

Liburu honek historia luze samarra izan du zure eskuetara heldu ahal izateko, irakurle. Joseba Gorostiza eta Aitziber Perez de Karkamo lehenago ibili ziren liburu hau atera nahian. Lehenengoari besteak beste Madrilgo epaile superezagun batek eragotzi zion dexente, izan ere, Egin egunkariko langilea izanda, bertan zeukan material asko, eta hortxe nahastu zuten gure liburutxoa beste "froga" askorekin batera. Geroago, 20. urteurrenaren aitzakiarekin Aitziberrek heldu zion berriz egitasmoari eta nik berak hasitakoa azkenean "burutu". Josebak ere pasatu zidan berak bildutako hainbat material.

Jakina, protagonista nagusiak liburuan zuen ekarpenak egin dituzuenak zarete. Liburu hau zuena da, zeuek kontatzen duzue hemengo mamia eta zeuek zarete mami. Eskerrik asko.

Beste lagun eta laguntzaile asko ere, nola ez ditut aipatuko Xenpelar Dokumentazio Zentroan dabiltzan xorgintxuak, pazientzia goxoa gosaltzen dutenak goizero, beti laguntzeko prest, patatero honekin oso ondo portatu zarete. 3 damatxoak.

Carmen Larrañagak eskuratu zidan Santxa Ozaetakoaren berri eta Landerrek Aiara aldekoen argazki "modernoak" egin eta eman zizkidan. Arabako Bertsozale Elkarteko langileenei ere txindurri lanak egiteagatik, beti laguntzeagatik eta animatzeagatik, Oihane eta Naroa, mila esker eta muxu bana.

Txipi Ormaetxeari ere Aramaioko bertso historiaren berri eman zidalako eta liburua zuzentzeagatik.

Eta oraingoz, liburu honen bigarren, hirugarren, laugarren… partea idatzi baino lehen, eta eskertu behar eta eskerrak eman ez dizkiedanei barkamena eskatuz…

Bukatu da, bukatu da, bukatu da, akabo!

# BESTE ARGAZKI BATZUK












BERTSOLARI
TXAPELKETA-87
EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI ELKARTEA


AIARAKO
BERTSOLARI ESKOLA
X. URTEURRENA
10 Urteko Bertso Idatziak
-1.992-

Arabako Bertsolari Eskolak, berriz ere Kultura Sailaren laguntzaz, **PRUDENTZIO DEUNA II BERTSO SARIA** antolatzera ausartu gara, baina urte honetan berciztasun bat ezarriz.

Iazkoan hiru saiotan burutu genuen eta zortzi bertsolarik parte hartuz; aurten, ordea, sei saio izango ditu, baina bi eratara banatuak, hau da, lehen laurak eskolartekoak eta azken biak plaza saioak. Parte hartzaileen kopuruari dagokionez, aurtengoak hogeitamar izango ditu.

Lehen lau saioak, inoiz parte hartu ez dutenei egokituak izan dira eta afaloste edo afalaurreetan antolatuak, batez ere kontutan izanik parte hartzailerik gehienak Institutu edo Ikastoletatik aurkeztu diren gaztetxoak direla. Honela gerorako frogatu daitezela nahi genuke, bai Arabako bertsolaritzaren geroari begira eta nola ez euskarari begira.

Bigarren zatian ohizko plaza saioak izango dira. Bi saio egingo dira: Apirilaren 14ean iazko bost finalista gehi aurreko saioetatik sailkaturiko hiruk hartuko dute parte; Gasteizko azken saiora zortzi horietarik sei pasatuko dira.

## PARTE HARTZAILEAK

Aimar ATXURRA
Iker GANBOA
Urtzi GOITIA
Iban REFOYO
Marielo URKIJO
Itsaso ZULUETA
Zigor GOROSTIAGA
Iker MAIO
Aritza ORTUZAR
Eneko PAGAZAURTUNDUA
Beñat SARATXAGA
Karla SANTISTEBAN
Patxi AIZPURUA
Emiliano DIEZ
Josu ALDAMA
Jose Manuel RAZKIN
Oihane PEREA
Oier ENBEITA
Txema ALANGUA
Mikel AZAROLA
Juan M. FERNANDEZ
J. Angel SANTA CRUZ
Jon GERRERO
Joanjo RESPALDITZA
Rikardo GLZ. de DURANA
Pedro BIZKARGUENAGA
Zigor ENBEITA
Serapio LOPEZ
Peli PAGAZAURTUNDUA
Xabier RIKO

Zazpigarrena deitzen diote
seme-alaben artean
Hain zuzen ere Araba baita
Euskadiko muturrean
Hala ta guztiz euskaltzaleak
gogor dabiltza lanean
ta zorionez aurkitzen gara
hauxe esan beharrean:
bertsolaritza aurrera doa
euskararekin batean.

KULTURA SAILA

PRUDENTZIO DEUNA

# I. BERTSO SARIA




| LAUDIO | LAPUEBLA DE LABARKA | GASTEIZ |
|---|---|---|
| 90-IV-6 | 90-IV-22 | 90-IV-29 |
| Abenida Zinema | Pilota tokia | Printzipal Antzokia |
| 19,30 | 11,30 | 11,30 |

DIPUTACION FORAL DE ALAVA

FECHA 29 de mayo de 1984

REFERENCIA Educación, Deportes, Turismo, Protocolo y Relaciones Públicas

ASUNTO Subvención para Concurso de Bersolaris

EXPEDIENTE N.º 122/84

DIPUTACION FORAL DE ALAVA
ARABAKO FORU ALDUNDIA
REGISTRO GENERAL
ERREJISTRO OROKORRA
- 1 JUN 1984
Salida 9120
Irteera

SR. D. ABEL ENBEITIA EALO, Representante de la "ESCUELA DE BERSOLARIS".-

ABORNICANO (Alava)

El Excmo. Sr. Diputado General de Alava ha dictado con fecha 26 de mayo ---------- de 1984 el siguiente Decreto:

"Estudiado con todo detenimiento el escrito presentado por don Abel Enbeitia Ealo, representante de la "Escuela de Bersolaris", de Aborníсano, -------------- - - - - - - - - - interesando una subvención para la celebración de un Concurso de Bersolaris.

Teniendo en cuenta la actividad para la que solicita la ayuda económica, así como su incidencia en el desarrollo socio-cultural de la Provincia.

Vistas las posibilidades económicas de la Corporación, deducidas del importe de la Partida presupuestaria a cuyo cargo habrá de asignarse la atención a que se refiere la petición, según resultó aprobado el vigente Presupuesto Provincial por los Organos Forales competentes.

Visto el Informe del Sr. Interventor General de Provincia nº 01/534 de fecha 21 de mayo de 1984, y a propuesta del Diputado Foral titular del Area de Cultura.

HE RESUELTO: Conceder una subvención de 200.000,-- pts. para el fin solicitado y abonarla, con cargo a la Partida 5.4.13 del vigente Presupuesto Provincial al citado don Abel Enbeitia Ealo, como representante de citada Escuela de Bersolaris."

Lo que le comunico para su conocimiento y efectos.
Dios guarde a Ud. muchos años
EL SECRETARIO,
P.D.

Fdo.: Joaquín Jiménez

Las cantidades que hayan de percibirse como consecuencia de acuerdos provinciales, se harán efectivas por Tesorería de Provincia, a partir de los ocho días siguientes al recibo de su notificación.

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Núm. ______

AYUNTAMIENTO DE VITORIA - GASTEIZ
REGISTRO DE SALIDA
6 JUN. 1984
N.º 17496

FECHA 5 DE Junio DE 1984

NEGOCIADO DE Cultura

ASUNTO:

Sr. D. Abel Enbeita

Bertsolari Eskola

En sesión ordinaria celebrada por la Comisión Municipal Permanente el pasado día 25 de Mayo, fue aprobado el dictamen de la Comisión de Euskera que transcribimos a continuación.

"Conceder una subvención de 300.000,-- pesetas a Bertsolari Eskola, como adelanto para sus gastos, si bien deberán presentar un estudio detallado de sus necesidades."

Lo que tengo el honor de participar a Vd. para su buen conocimiento y demás efectos pertinentes.

Dios guarde a Vd. muchos años.

El Secretario,

AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ
EDUCACION Y CULTURA

Núm. ______

Sr. D. Abel Enbeita
Bertsolari eskolek

AYUNTAMIENTO DE VITORIA - GASTEIZ
REGISTRO DE SALIDA
6 JUN. 1984
N.º 17497

En sesión ordinaria celebrada por la Comisión Municipal Permanente el pasado día 25 de mayo, fue aprobado el dictamen de la Comisión de Euskera que transcribimos a continuación:

"Conceder a las Escuelas de Bertsolaris de Alava una subvención de hasta 200.000,-- pesetas para el I Campeonato de Bertsolaris de la Provincia, facultándose a la Comisión de Cultura para que concrete la cantidad exacta de la subvención."

Lo que tengo el honor de participar a Vd. para su buen conocimiento y demás efectos pertinentes.

Dios guarde a Vd. muchos años.

El Secretario,

AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ

GASTEIZKO BERTSO ESKOLA-
IKASTARO OSAGARRIAK (1998-1999)
*Xabier Amuritza eta Andoni Egaña*

**Izenburua:**
- Ideien lanketa eta bertsoaren barne hizketaren antolaketa
- Errima lanketa eta errimaren kanpo semantikoak

**Iraupena eta ordutegia**
Urriaren 21etik Martxoaren 18ra
* Asteazkenero
- 1. taldea (Goi Maila): 18:00etatik 19:30etara
- 2. taldea (Erdi Maila): 19:30etatik 21:00etara

**Matrikularen zenbatekoa**
- Ikasle eta langabetuentzat 5.000 pzta.
- Besteentzat 8.000 pzta
  - Euskadiko Kutxan: 3035-001274- 01200-2586-2 kontu korrontean sartu

**Matrikula epea**
- Urriaren 15a baino lehen Fitxa eta kutxako ordainketa agiria Txustara (Mateo Moraza 19) bidali.

(Matrikula fitxa eltakitzeko)

**GASTEIZKO BERTSO ESKOLA- ikastaro osagarriak, 98-99**

**Izen-Abizenak** ____________________

**Jaioteguna** ____________

**Helbidea** ____________________

**Postakodea** ________ **Herria** ____________

**Telefono zenbakia** ____________

| Maila | Ez | Gutxi | Nahiko | Asko |
|---|---|---|---|---|
| - Lagunartean bertsolan | __ | __ | __ | __ |
| - Plazetan | __ | __ | __ | __ |
| - Txapelketetan | __ | __ | __ | __ |

**Urteak Bertso Eskolan**

____________________

Arabako
**Bertso BERRIketa**

**1. Alea**
**1998ko Urria**

Aupa Lagun!

Bazkide zarelako, ikaskide zaitugulako bertso eskolan, edo besterik gabe, bertsozale amorratua zarelako jarri gara zurekin harremanetan, Arabako Bertsozale Elkarteak egiten duen edo egin nahi duen gauza ororen berri zuzenean euki beharko zenukeela pentsatzen dugulako.

Berripaper honetan, Araban dauden Bertso-Eskolen, ekitaldien, ikastaroen eta bestelako eskaintzen berri jasoko duzu noizean behin. Saiatuko gara urtean 3 ale behintzat belarazten.

Bestalde, gogoratu nahi dizugu, Elkarteko ateak zabal-zabalik dauzkazula behar duzun guztirako, baita bere egituratakoak ere.

Arabako Bertsozaleok lan handia dugu egiteko, baina ilusioa daukanarentzat ez dago ezinezkorik. ***Bertso BERRIketa*** ere, hurrats txiki bat delakoan gaude.

Besterik gabe, ea baliagarri egiten zaizuen.

Besarkada bat,

**ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA**
























ARABAKO














HERRI BATASUNA
BATASUNA
HERRI BATASUNA
HERRI BATASUNA
HERRI BATASUNA








GESTORA PRO-AM
ARES DE PRESOS
ARABA


I. BERTSO


ANV
ANV






SAILA ren


ARA
HERRIA


GAUGUIN






ERTSO S
EA: ARA FOR
KUL SAI










V BERTSO SARIA
BABESLEA: ARABAKO FORU
NDIA
KULTURA SAIL




SCV



















